Nolanahi ere, osaeraren arabera HP2 Erregarri gisa sailkatzea egokia izan arren *Gida honetako 9.4.2.* atalean deskribatutako saiakuntzen bidez frogatzen bada hondakinak ez duela ezaugarri erregarririk, saiakuntza horien emaitzak nagusituko dira.

### 5.3 HP3. Sukoia.

Beheko arrisku-argibide hauetakoren batekin sailkatutako substantzia bat edo gehiago dituen hondakin bat hondakin arriskutsu gisa sailkatu beharko da, egokia eta proportzionatua denean, saiakuntza-metodoen bidez:

Arrisku-mota eta -kategoriaren kodeak	Arrisku-argibidearen kodeak
Flam. Gas 1	H220
Flam. Gas 2	H221
Aerosol 1	H222
Aerosol 2	H223
Flam. Liq. 1	H224
Flam. Liq. 2	H225
Flam. Liq. 3	H226
Flam. Sol. 1	H228
Flam. Sol. 2	
Self-React. CD	H242
Self-React. EF	
Org. Perox. CD	
Org. Perox. EF	
Pyr. Liq. 1	H250
Pyr. Sol. 1	
Self-Heat 1	H251
Self-heat 2	H252
Water-React. 1	H260
Water React. 2 / 3	H261

4. taula: Arrisku-mota eta -kategoriaren kodeak eta arrisku-argibidearen kodeak HP3 arriskutsu gisa sailkatzeko.

Hondakinen Sailkapenari buruzko Europako Batzordearen Gidatik<sup>17</sup> eta Batzordearen Komunikaziotik hiru irizpide berezi eratortzen dira, ahal denean erabiliko direnak:

<sup>17</sup> C.3 Eranskinaren C.3 atala.

- Sukoitasun posiblea substantzia Flam. Gas Cat. 1 (H220) eta 2 (H221) substantziak egotearen ondoriozkoa denean, ISO 10156 arauaren kalkulu-metodoa erabil daiteke. Metodo horrek gas bat edo gas-nahaste bat sukoa den ala ez zehazteko formula bat ezartzen du<sup>18</sup>:

$$\sum_{i=1}^n \frac{A'_i}{T_{ci}} \leq 1$$

Non:

$$A'_i = \frac{A_i}{\sum_{i=1}^n A_i + \sum_{k=1}^p K_k B_k}$$

Eta non:

$A'_i$  da gas sukoiak nahastean duen eduki baliokidea (%).

$T_{ci}$  da nitrogenoarekin nahastean airean sukoa ez den gas sukoia gehieneko edukia (%).

$A_i$  da  $i$  gas sukoia frakzio molarra nahastean (%).

$B_k$  da  $k$  gas geldoaren frakzio molarra nahastean (%).


$K_k$  da  $k$  gas geldoaren baliokidetasun-koefizientea nitrogenoarekiko.

$n$  da nahasteko gas sukoien kopurua.

$p$  da nahasteko gas geldoen kopurua.

- Sukoitasun posiblea Water react 1 (H260), 2 eta 3 (H261) substantzien presentziaren ondorioa denean, Batzordeak kalkulu-metodo bat proposatu du hondakina arriskutsua izango litzatekeen kontzentrazio-mugak aurkitzeko.

Lehenik, substantziak gas sukoa sortzen duen ekuazioa estekiometrikoki doitu behar da:



Non:

$r$  da H260 edo H261 substantziaren koefiziente estekiometrikoa.

$w$  da H<sub>2</sub>O molekularen koefiziente estekiometrikoa.

<sup>18</sup> Ikus CLP Erregelamenduaren irizpideei buruzko ECHAren Gidako 2.2.4.4 atala.

$p$  da produktuaren koefiziente estekiometrikoa.

$g$  da gas sukoiaren koefiziente estekiometrikoa.

Ondoren,  $r$  eta  $g$  formula honetan sartzen dira:

$$\text{Límite (\% peso)} = 10 * \frac{r * PmR}{g * 22,4}$$

Non:

$PmR$  da H<sub>260</sub> edo H<sub>261</sub> substantziaren pisu molekularra.

- Sukoitasun posiblea Org. Perox. CDEF (H<sub>242</sub>) substantzien presentziaren ondorioa denean, kalkulu-metodoa lehen aipatutako ISO 10156 arauarena izango da berriro ere.

Nolanahi ere, konposizioaren arabera HP<sub>3</sub> Sukoia sailkatzea egokia izan arren *Gida honetako 9.4.3.* atalean deskribatutako saiakuntzen bidez frogatzen bada hondakinak ez duela sukoitasun -ezaugarririk, saiakuntza horien emaitzak nagusituko dira.

Gasolinarekin, dieselarekin, fuel-olioarekin edo bestelako TPHekin kutsatutako lurren eta harrien kasuan, irizpide zehatzak ezarri dira *dokumentu honetako 8.2.1. atalean.*

#### 5.4 HP<sub>4</sub>. Narritagarría.

Ebakidura-balio batzuk daude arriskugarritasun-ezaugarri honetarako; beraz, muga hauek gainditzen edo berdintzen dituzten substantziak bakarrik hartuko dira kontuan (gainerakoak baztertu egingo dira eta ez dira zenbatuko):

Ebakidura-balioak		
Skin Corr. 1A	H <sub>314</sub>	% 1
Skin irrit. 2	H <sub>315</sub>	% 1
Eye Dam. 1	H <sub>318</sub>	% 1
Eye Irrit. 2	H <sub>319</sub>	% 1

5. taula: HP<sub>4</sub> arriskuaren argibide-kodeetarako ebakidura-balioak.

Ebakidura-balioak gainditzen edo berdintzen dituzten substantziak soilik kontuan hartuta, hondakin bat HP<sub>4</sub> gisa sailkatuko da konposizioan honako substantzia hauetako bat edo gehiago dituenean:

Arrisku-mota eta kategoriaren kodeak	Arrisku-argibidearen kodeak	Kontzentrazio-muga
Skin Corr. 1A	H <sub>314</sub> *	% 1

Eye Dam. 1	H318	% 10
Skin irrit. 2 + Eye Irrit. 2	H315+H319**	% 20

\* Kontuan hartu 1A kategoriako Skin Corr. substantziak bakarrik hartzen direla kontuan (ez 1B edo 1C)<sup>19</sup>

\*\* 2 kode horiek dituzten substantzien kontzentrazioak batzen dira.

6. taula: Arrisku-mota eta -kategoriaren kodeak eta arrisku-argibidearen kodeak HP4 arriskutsu gisa sailkatzeko.

Egia bada ere lege-testuan Skin Corr. 1A oharpena bakarrik agertzen dela, toxikologia aldetik eta CLP Erregelamenduaren ikuspegitik 1. kat. korrosibo dermikoaren sailkapena aplikatzen zaie bai 1A, bai 1B eta bai 1C*i*, eta horregatik H314 bera esleitzen zaie, ikusitako efektu bera (dermisaren suntsitze itzulezina) soilik adierazten ari baita, esposizio-denboraren eta behaketa-denboraren arabera. Adibidez, 1,4-naftokinona korrosiboak ez du efektua 3 minutuan sortzen, 4 orduren buruan baizik.

Kasu horretan, substantzien kontzentrazioen ebaluazioa 3 fasetan egiten da:

- Lehenik, Skin Corr. 1A substantziak batuko dira eta egiaztatuko da kontzentrazioen batura % 1 baino handiagoa eta % 5 baino txikiagoa ote den.
- Ondoren, H318 substantziak batu eta kontzentrazioen batura % 10 baino handiagoa ote den egiaztatzen da.
- Azkenik, H315 eta H319 substantziak batu (batera) eta kontzentrazioen batura % 20tik gorakoa dela egiaztatzen da.

Baturetako batek dagokion mugaren emaitza edo handiagoa ematen badu, hondakina HP4 ezaugarriarekin sailkatuko da.

Skin Corr. cat 1B edo 1C gisa sailkatutako substantziak izanez gero, sailkapenak oinarritu behako luke pHren ebaluazioan, erreserba alkalinoan edo saiakuntzan, jada ez bada sailkatu 1A kat. korrosibo dermiko gisa sailkatutako substantziengatik.

MITERDek egindako sailkapen-gidaren arabera, hondakin baten pH-a 2 eta 11,5 bitarteko tartearen azpitik edo gainetik badago, hondakina *narritagarri* eta *korrosibotzat* joko litzateke<sup>20</sup>; beraz, erreserba alkalinoa hartu beharko litzateke kontuan.

*Dokumentu honetako o. atalean HP4 Narritagarria ezaugarri hori zehazteko saiakuntzak azaltzen dira. Saiakuntza horiek eginez gero, saiakuntzen emaitzek lehentasuna izango dute hondakinen konposizioaren arabera egindako ebaluazioarekiko.*

<sup>19</sup> Hala ere, Skin Corr. 1B y 1 C "HP8 Korrosiboa" ebaluatzeke kontuan hartzen diren arrisku-kategoriak dira; ez dira kontuan hartzen hondakin bat narriagarria ote den erabakitzeke. Horrela, Skin Corr. 1B substantzia baten % 4,9 duen hondakina ez litzateke arriskutsua izango, eta % 5 duena "HP8 Korrosiboa" izango litzateke, tartean "HP4 Narritagarri"tik pasatu gabe. Harrigarria da, baina hala ondorioztatzen da 1357/2014 Erregelamendutik, eta irizpide horri jarraitzen zaio bai Hondakinen Sailkapenari buruzko Europako Batzordearen Gidan bai Batzordearen Komunikazioan.

<sup>20</sup> CLP Erregelamenduaren arabera, azido eta base indartsuen ondoriozko muturreko pH-ak korrosibo gisa sailkatzea dakar, kontrakoa adierazten duen saiakuntza-daturik ezean; 1357/2014 (EB) Erregelamenduaren arabera, hondakinari HP8 ezaugarria aplikatzen badio jada ez zaio HP4 ezaugarria aplikatuko.

## 5.5 HP5. STOT / Arnasteagatiko toxikotasuna.

Ezaugarri horren ebaluazioa bi fasetan banatzen da, arau desberdinak dituztenak:

### 5.5.1 STOT

Arrisku-argibide horietako batekin sailkatutako substantzien kontzentrazio **indibiduala** kontuan hartuta –hau da, kontzentrazio-rik batu gabe–, baloratuko da ea horietako edozein ote den muga hauen berdina edo handiagoa:

Arrisku-mota eta -kategoriaren kodeak	Arrisku-argibidearen kodeak	Kontzentrazio-muga
STOT SE 1	H370	% 1
STOT SE 2	H371	% 10
STOT SE 3	H335	% 20
STOT RE 1	H372	% 1
STOT RE 2	H373	% 10

\* Kontuan izan STOT RE3 H336 substantziak ez direla kontuan hartzen. Esposizio errepikatuen ondorengo toxikotasun organoespezifikoko 3. kategoria ez da jasotzen CLPn. H336 esposizio bakarrerako da, logura- eta bertigo-efektuetarako (esposizioa amaitu ondoren desagertzen den efektua)

*7. taula: Arrisku-mota eta -kategoriaren kodeak eta arrisku-argibidearen kodeak HP5 arriskutsu gisa sailkatzeko, eta kontzentrazio-mugak.*

*Dokumentu honetako 9.4.5. atalean, arriskugarritasun-ezaugarri horretarako dauden saiakuntzen berri ematen da hasiera batean. Saiakuntzen emaitzek lehentasuna izan beharko balute ere, ikusiko da praktikan ez dagoela laborategiko proba horiek egiteko aukerarik merkatuan eskaintzarik ez dagoelako.*<sup>21</sup>

### 5.5.2 Arnasteagatiko toxikotasuna

Hondakinean dauden **H304 substantzia guztien kontzentrazioak batu** behar dira <sup>22</sup>. Arriskutsu gisa sailkatuko da baturaren emaitza % 10ekoa edo handiagoa bada.

Hala eta guztiz ere, fluidoaren kasuan, aurrekoa gorabehera frogatzen bada hondakinak 20,5 mm<sup>2</sup>/s-tik gorako biskositate zinematikoko orokorra (40 °C-ra) duela, hondakina ez da ezaugarri horren arabera sailkatuko.

Dena den, H304 substantziak direla-eta hondakin arriskutsu gisa sailkatzeak fluidoetarako (likidoak eta gasak) funtzionatuko luke.

<sup>21</sup> Toxikotasun organoespezifikoa toxikotasun kronikoko, subkronikoko edo erreprotoxikotasun- nahiz genotoxikotasun-saiakuntzak oinarri hartuta ebaluatzen da REACHen eta CLP erregelamenduan. Saiakuntza horiek konplexuak direnez, baliteke horregatik merkatuan eskaintzarik ez egotea. Iradokitzen da ezaugarri hori ebaluatzea ezagutzen diren osagaien informazio erabilgarritik abiatuta.

<sup>22</sup> Ez dago ebakidura-baliorik, ezta CLP Erregelamenduan ere; izan ere, arriskua hondakinaren ikusgarritasun zinematikokoak baldintzatzen du (likido organikoa bada). Nolanahi ere, egokia izango litzateke 1357/2014 Erregelamenduak egitea, efektu gehigarrien beste ezaugarri batzuetarako bezala (HP4, HP6, HP8, HP14).

## 5.6 HP6. Toxikotasun akutua

Arriskugarritasun-ezaugarri hau ebaluatzeko, ebakidura-balio hauek berdintzen edo gainditzen dituzten substantziak bakarrik hartuko dira kontuan (gainerakoak baztertuko dira eta ez dira zenbatuko):

Ebakidura-balioak		
Acute Tox. 1 (Oral)	H300	% 0,1
Acute Tox. 2 (Oral)	H300	% 0,1
Acute Tox. 3 (Oral)	H301	% 0,1
Acute Tox. 4 (Oral)	H302	% 1
Acute Tox. 1 (Dermal)	H310	% 0,1
Acute Tox. 2 (Dermal)	H310	% 0,1
Acute Tox. 3 (Dermal)	H311	% 0,1
Acute Tox. 4 (Dermal)	H312	% 1
Acute Tox. 1 (Inhal)	H330	% 0,1
Acute Tox. 2 (Inhal)	H330	% 0,1
Acute Tox. 3 (Inhal)	H331	% 0,1
Acute Tox. 4 (Inhal)	H332	% 1

8. taula: HP6 arriskuaren argibide-kodeetarako ebakidura-balioak.

Ebakidura-balioak gainditzen edo berdintzen dituzten substantziak soilik kontuan hartuta, hondakin bat HP6 gisa sailkatuko da konposizioan beheko arrisku-argibideetako bat duen substantzia bat edo gehiago dituen kontzentrazio hauetan edo hauek baino handiagoetan:

Arrisku-mota eta -kategoriaren kodeak	Arrisku-argibidearen kodeak	Kontzentrazio-muga
Acute Tox. 1 (Oral)	H300	% 0,1
Acute Tox. 2 (Oral)	H300	% 0,25
Acute Tox. 3 (Oral)	H301	% 5
Acute Tox. 4 (Oral)	H302	% 25
Acute Tox. 1 (Dermal)	H310	% 0,25
Acute Tox. 2 (Dermal)	H310	% 2,5
Acute Tox. 2 (Dermal)	H311	% 15
Acute Tox. 4 (Dermal)	H312	% 55
Acute Tox. 1 (Inhal)	H330	% 0,1
Acute Tox. 2 (Inhal)	H330	% 0,5
Acute Tox. 3 (Inhal)	H331	% 3,5
Acute Tox. 4 (Inhal)	H332	% 22,5

9. taula: Arrisku-mota eta -kategoriaren kodeak eta arrisku-argibidearen kodeak HP6 arriskutsu gisa sailkatzeko, eta kontzentrazio-mugak.

Kasu honetan, substantzien kontzentrazioak batzen dira, baina arreta jarri behar da eta batura egin bakarrik arrisku-motaren, arrisku-kategoriaren eta arrisku-argibidearen kodeak bat datozenean. Bestela esanda, aurreko taula hartuta, baturak errenkadaz errenkada egin behar dira (adibidez, H300 partekatu arren, batetik Acute Tox. 1 (Oral) batuko dira eta bestetik Acute Tox. 2 (Oral)).

Baturetako batek dagokion mugaren emaitza edo handiagoa ematen badu, hondakina HP6 ezaugarriarekin sailkatuko da. Hala ere, *dokumentu honetako 9.4.6. atalean* deskribatutako saiakuntzen emaitzak nagusituko dira.

### 5.7 HP7. Kartzinogenoa

Hondakin bat HP7 gisa sailkatzeko, beharrezkoa da gutxienez arrisku-argibide hauetako batekin sailkatutako substantzia bat **indibidualki (hau da, batu gabe)** kontzentrazio hauetan edo handiagoetan egotea:

Arrisku-mota eta kategoriaren kodeak	Arrisku-argibidearen kodeak	Kontzentrazio-muga
Carc. 1A	H350	% 0,1
Carc. 1B		
Carc. 2	H351	% 1

10. taula: Arrisku-mota eta -kategoriaren kodeak eta arrisku-argibidearen kodeak HP7 arriskutsu gisa sailkatzeko, eta kontzentrazio-mugak

Nolanahi ere, baldintza horiek bete arren, dokumentu honetako 9.4.7. atalean jasotako saiakuntzen emaitzak nagusituko lirateke, **baina praktikan ez daude eskuragarri merkatuan eskaintzarik ez dagoelako.**

### 5.8 HP8. Korrosiboa

1357/2014 (EB) Erregelamenduaren arabera, hondakin bat HP8 izango da H314 gisa sailkatutako substantzien batura % 5 edo gehiago denean. Batura horretan, % 1eko ebakidura-balioa gainditzen duten substantziak bakarrik hartuko dira kontuan. Kasu honetan, batura bakarra egiten da H314 substantzia guztiak barne hartuta, Skin Corr 1A, 1B edo 1C izan ala ez.

Hondakinen Sailkapenari buruzko Europako Batzordearen Gidaren<sup>23</sup> eta Batzordearen Komunikazioaren (14. grafikoa) arabera, hondakinean dauden substantzia guztiak ezagutzen ez direnean, hondakinaren edo haren lixibiatuaren pH-a ebaluatu behar da.

pH-a  $\leq 2$  edo  $\geq 11,5$  denean, hondakina HP8 arriskutsua izango da beheko bi baldintzak bete ezean. Baldintza horiek egiaztatu beharko dira; izan ere, MITERDen Gidaren arabera, erreserba azidoa/alkalinoa aztertuz gero nahastea korrosiboa izatea zalantzan badago pH-

<sup>23</sup> Ikus C Eranskineko C.4 eta C.8 atalak.




aren balio txikia edo handia gorabehera, hori beste datu batzuekin berretsi beharko da, ahal bada behar bezala balidatutako in vitro saiakuntza baten bidez:

- Azido/alkali erreserbak<sup>24</sup> behar adinako gaitasun indargetzailea adierazten du. Egoera hauetako batean gertatzen da hori:
  - $\text{pH} + 1/12$  erreserba alkalinoa  $< 14,5$
  - $\text{pH} - 1/12$  erreserba azidoa  $> -0,5$
- Saiakuntzen bidez frogatzen da hondakina ez dela korrosiboa, baizik eta narritagarria soilik (kasu horretan HP<sub>4</sub>), edo hondakinak ez duela inolako efekturik sortzen; kasu horretan, hondakina ez litzateke ez HP<sub>4</sub> eta ez HP<sub>8</sub> izango.

Batzordearen Komunikazioan eta MITERDen gidan, substantzia korrosiborik ez dagoenean eta pH-a 2tik 11,5era bitarteko tartean dagoenean, HP<sub>8</sub> (eta HP<sub>4</sub>) arriskugarritasuna baztertzen da saiakuntzarik egin beharrik gabe.

Grafikoki, hau izango litzateke erabakitzeko prozesua:



4. Irudia: hondakin baten HP<sub>8</sub> arriskugarritasuna zehazteko jarraitu beharreko irizpideak.

Dokumentu honetako 9.4.8. atalean arriskugarritasun-ezaugarri horretarako dauden saiakuntza-metodoak deskribatzen dira, eta horien emaitzak nagusituko dira.

<sup>24</sup> Saiakuntza-metodoa: OECD Test No. 122: Determination of pH, Acidity and Alkalinity

## 5.9 HPg. Infekziosoa

Legerian edo erreferentziako agirietan ezarritako arauen arabera zehazten da. EAEn, hau hartuko da kontuan ebaluzioa egiteko: 21/2015 Dekretua, martxoaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeari buruzkoa. Infekzioso gisa sailkatuko dira, alde batetik, II. multzoko (*Hondakin sanitario espezifikoak*) hondakinak eta III. multzoko c) eta d) epigrafeak<sup>25</sup>. Honako hauek dira:

### 5.9.1 II. multzoa. Hondakin sanitario espezifikoak.

Infekzioa eragiteko arriskuagatik nahiz arrisku antzeman edo psikoemozional bat edukitzeagatik kudeaketaren etapa guztietan kudeaketa berezia eskatzen duten hondakinak dira.

Multzo honek mota hauek hartzen ditu barnean:

- a. Hondakin infekziosoak; hots, Dekretu honetako (21/2015 Dekretua) I. eranskinean zerrendatutako gaixotasun infekziosoren bat duten pazienteengandik datozela-eta, gaixotasun horiek kutsatzeko gai izan daitezkeenak. Salbuespen gisa, eta zentro ekoizleak hala baderitzo, infekziosoak izan daitezkeelako zalantza sortzen duten bestelako hondakin batzuk ere sartu ahalko dira multzo honetan (desagerrarazitzat jotako gaixotasunak, kanpotik ekarriak, gaixotasun berriak edo oso birulentoak).
- b. Agente biologikoen kultiboak eta erreserbak, baldin eta gizakiei nahiz animaliei gaixotasunik eragiteko modukoak badira, eta haiekin kontaktuan egondako hondakin-materiala, fluxu edo korrante laminarreko kanpaietako eraginkortasun handiko iragazkiak barne.
- c. Agente bizi motelduak dituzten txertoak eta haien bialak.
- d. Anatomia-hondakinak, baldin eta beren tamainagatik ez badira sartzen indarrean dagoen hilotzen alderdi sanitarioei buruzko erregelamenduaren aplikazio-eremuan (202/2004 Dekretua, urriaren 19koa).
- e. Hondakin zorrotz edo ziztakariak, hala nola bisturiak, orratz hipodermikoak, suturarako orratzak, kapilarrak, portak, estalkiak eta agente patogenoei sartzeko bidea ireki diezaiekeen beste edozein hondakin.
- f. Odola eta hemoderibatuak, pleura-likidoa, peritoneo-likidoa eta beste edozein fluido biologiko (gernua izan ezik), baldin eta ontzitan jasota 100 ml-tik gorako kantitatea badira, edo hondakin horien laginak, guztira, 100 ml-tik gorako kantitatea badira, eta betiere puntu honetako a) eta g) motako hondakin infekziosoak ez badira edo saneamendu-sistema orokorraren bidez deuseztatzekoak ez badira.

<sup>25</sup> III. taldeko a) epigrafekoak (*Medikamentu zیتotoxikoen eta zیتostatikoen hondakinak, eta botika horiek prestatzeko erabilitako edo horiekin kontaktuan egondako material guztia, fluxu edo korrante laminarreko kanpaietako eraginkortasun handiko iragazkiak barne*) zیتotoxikoak izango lirateke, baina ez infekziosoak, eta gainerako botikak ez lirateke arriskutsuak izango, baina eskatzen da kudeaketa-modua errausketa izatea).

- g. Animalia infekziosoetatik datozen hondakinak edo Dekretuaren I. eranskinean zerrendatutako patologiak eragiten dituzten agente infekziosoak inokulatu zaizkien animalietatik datozenak, gorpuak, anatomia-hondakinak eta haien estabulaziotik sortutako hondakinak, baldin eta patologia horiek kutsatzeko gai izan daitezkeela uste bada eta ez badira sartzen giza kontsumorako ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuei buruzko araudiaren aplikazio-eremuan.

### 5.9.2 III. multzoa. Hondakin sanitario ez-biologikoak, eta horrelakoak dituzten nahasteak.

- c. Hondakin sanitarioak, kontserbatzearen formoletan edo beste gai kimikoren batean sartutako anatomia-hondakinen nahastea badira.
- d. Beste edozein hondakin, baldin eta, osasun-arloko jardun profesionalerako beharrezkoa izanik, Dekretuaren 3. artikuluan zehaztutako II. eta III. multzoetako hondakinak erabiliz egindako nahastearen emaitza bada.

9.4.9. atalean ikusiko den bezala, **ez dago arriskugarritasun-ezaugarri horretarako saiakuntzarik.**

### 5.10 HP10. Ugalketarako toxikoa

Hondakin bat HP10 gisa sailkatzeko, beharrezkoa da arrisku-argibide hauetako bat duen sailkatutako substantzia bat gutxienez kontzentrazio hauetan edo handiagoetan egotea **indibidualki (hau da, batu gabe):**

Arrisku-mota eta -kategoriaren kodeak	Arrisku-argibidearen kodeak	Kontzentrazio-muga
Repr. 1A Repr. 1B	H360	% 0,3
Repr. 2	H361	% 3

11. taula: Arrisku-mota eta -kategoriaren kodeak eta arrisku-argibidearen kodeak HP10 arriskutsu gisa sailkatzeko, eta kontzentrazio-mugak

Dokumentu honetako 9.4.10. atalean deskribatutako saiakuntzen bidez egindako arriskugarritasun-ebaluazioak lehentasuna izan beharko lukeen arren hondakinaren osaeraren arabera egindako sailkapenaren gain, **praktikan ez dago horrelako proben eskaintza merkatuan.**

### 5.11 HP11. Mutagenoa

Hondakin bat HP11 gisa sailkatzeko, beharrezkoa da arrisku-argibide hauetako bat duen sailkatutako substantzia bat gutxienez kontzentrazio hauetan edo handiagoetan egotea **indibidualki (hau da, batu gabe):**

Arrisku-mota eta -kategoriaren kodeak	Arrisku-argibidearen kodeak	Kontzentrazio-muga
Muta. 1A	H340	% 0,1
Muta. 1B		
Muta. 2	H341	% 1

12. taula: Arrisku-mota eta -kategoriaren kodeak eta arrisku-argibidearen kodeak HP11 arriskutsu gisa sailkatzeko, eta kontzentrazio-mugak

Dokumentu honetako 9.4.11. atalean arriskugarritasun-ezaugarri horri dagozkion saiakuntzak sartu dira. Emaitzak lehenetsiko lirateke egindako ebaluazioaren gain, hondakinaren konposizioa kontuan hartuta.

### 5.12 HP12. Toxikotasun akutuko gas bat askatzea

Beheko arrisku-argibide gehigarri hauetakoren batekin sailkatutako substantzia bat edo gehiago dituen hondakin bat hondakin arriskutsu gisa sailkatu beharko da gidalerroen edo saiakuntza-metodoen arabera<sup>26</sup>:

Propietateak	Arrisku-argibidearen kodeak
Urarekin kontaktuan gas toxikoak askatzen ditu.	EUH029
Azidoekin kontaktuan gas toxikoak askatzen ditu.	EUH031
Azidoekin kontaktuan gas oso toxikoak askatzen ditu.	EUH032

13. taula: HP12 arriskua dakarten propietateak eta argibideko kodeak.

Hondakinen Sailkapenari buruzko Europako Batzordearen Gidak eta Batzordearen Komunikazioak aukera ematen dute kontzentrazio-mugak kalkulatzeko metodo bat erabiltzeko hondakin horien arriskua ebaluatzeko. Lehenik, substantziak gas sukoia sortzen duen ekuazioa estekiometrikoki doitu behar da:

$$rR + wW \longrightarrow pP + gG$$

Non:

*r* da EUH029, EUH031 edo EUH032 substantziaren koefiziente estekiometrikoa.

*w* da ur- edo azido-molekularen koefiziente estekiometrikoa.

*p* da P produktuaren koefiziente estekiometrikoa.

*g* da toxikotasun akutuko G gasaren koefiziente estekiometrikoa.

<sup>26</sup> 1357/2014 (EB) Erregelamenduaren arabera, ez da nahikoa hondakinak substantzia horiek edukitzea arriskutsutzat hartua izan dadin. Sailkapena saiakuntza edo gidalerroen bidez egingo litzateke

Ondoren,  $r$  eta  $g$  formula honetan sartzen dira:

$$\text{Límite (\% peso)} = 10 * \frac{r * PmR}{g * 22,4}$$

Non:

$PmR$  da EUH029, EUH031 edo EUH032 substantziaren pisu molekularra.

Batzordeak HP12rako mugak kalkulatzeko aukera ematen duenez, metodo hau erabiliko da ahal denean.

Nolanahi ere, hondakinaren konposizioan oinarritutako arriskugarritasunaren ebaluazioaren aurrean, HP12 ezaugarri honetarako dokumentu honetako 9.4.12. atalean deskribatutako saiakuntzak lehenetsiko lirateke; bertan, sailkapen-irizpide espezifikoak daude saiakuntza-metodoaren beraren barruan.

### 5.13 HP13. Sentsibilizagarria

Hondakin bat HP13 gisa sailkatzeko, beharrezkoa da arrisku-argibide hauetako bat duen sailkatutako substantzia bat gutxienez kontzentrazio hauetan edo handiagoetan egotea **indibidualki (hau da, batu gabe)**:

Arrisku-mota eta kategoriaren kodeak	Arrisku-argibidearen kodeak	Kontzentrazio-muga
Skin Sens. 1	H317	% 10
Resp. Sens. 1	H334	% 10

14. taula: Arrisku-mota eta -kategoriaren kodeak eta arrisku-argibidearen kodeak HP13 arriskutsu gisa sailkatzeko, eta kontzentrazio-mugak.

Dokumentu honetako 9.4.13. atalean deskribatutako saiakuntzen bidez egindako arriskugarritasun-ebaluazioak lehenetsuna izan beharko lukeen arren hondakinaren osaeraren arabera egindako sailkapenaren gain, **praktikan ez dago horrelako proben eskaintza merkatuan.**

### 5.14 HP14. Ekotoxikoa

Araudi-erreferentzia 2017/997<sup>27</sup> (EB) Erregelamendua da. Erregelamendu horren arabera, arriskugarritasun-ezaugarri hau ebaluatzeko, ebakidura-balio hauek berdintzen edo gaintzen dituzten substantziak bakarrik hartuko dira kontuan **(gainerakoak baztertuko dira eta ez dira aintzakotzat hartuko)**:

27 2017/997 (EB) Erregelamendua, 2017ko ekainaren 8koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina aldatzen duena HP14 «Ekotoxikoa» arriskugarritasun-ezaugarriari dagokionez.

Ebakidura-balioak		
Ozone	H <sub>420</sub>	-
Aquatic Acute 1	H <sub>400</sub>	% 0,1
Aquatic Chronic 1	H <sub>410</sub>	% 0,1
Aquatic Chronic 2	H <sub>411</sub>	% 1
Aquatic Chronic 3	H <sub>412</sub>	% 1
Aquatic Chronic 4	H <sub>413</sub>	% 1

15. taula: HP<sub>14</sub> arriskuaren argibide-kodeetarako ebakidura-balioak.

Ebakidura-balio horiek kontuan hartuta, formula hauek aplikatu behar dira, eta nahikoa da horietako bat betetzea hondakina HP<sub>14</sub> gisa sailkatzeko:

$$[c(H_{420}) \geq \% 0,1]$$

$$[\sum c(H_{400}) \geq \% 25]$$

$$[100 \times c(H_{410}) + 10 \times c(H_{411}) + 10 \times c(H_{412}) \geq \% 25]$$

$$[\sum c(H_{410}) + \sum c(H_{411}) + \sum c(H_{412}) + \sum c(H_{413}) \geq \% 25]$$

Formula horietatik ondorioztatzen dira substantzia indibidualei edo arrisku- eta -kategoria mota berean sailkatutako substantziei aplikatu beharreko mugak, hau da, hondakinek substantzia ekotoxiko mota bakarra dutenean behean adierazitako muga-balioen azpitik, honako taula honen arabera sailkatuko da hondakina:

Arrisku-mota eta -kategorien kodeak	Arrisku-argibidearen kodeak	Kontzentrazio-muga
Ozone	H <sub>420</sub>	-
Aquatic Acute 1	H <sub>400</sub>	% 25
Aquatic Chronic 1	H <sub>410</sub>	% 0,25
Aquatic Chronic 2	H <sub>411</sub>	% 2,5
Aquatic Chronic 3	H <sub>412</sub>	% 25
Aquatic Chronic 4	H <sub>413</sub>	% 25

16. taula: Arrisku-mota eta -kategorien kodeak eta arrisku-argibidearen kodeak HP<sub>14</sub> arriskutsu gisa sailkatzeko, eta kontzentrazio-mugak.

Arriskugarritasun-ezaugarri guztiekin gertatzen den bezala, 2014/955/EB Erabakiak aukera ematen du HP<sub>14</sub> ebaluazioa egiteko substantzia arriskutsuen kontzentrazio-muga horiek aplikatuz saiakuntzen bidez, ohartaraziz bi bideak erabiliz gero saiakuntzen emaitzak nagusituko direla.

Batzordeak HP14rako saiakuntza-metodoei buruzko jardunbide egokien trukea sustatzea harmonizazio posiblea lortzeko; izan ere, Erregelamendua prestatzeko lanetatik<sup>28</sup> ondorioztatzen den bezala, estatu kideen arteko kasuistika heterogeneoa da.

### 5.15 HP15. Lehen aipatutako arriskugarritasun-ezaugarrietako bat, jatorrizko hondakinak zuzenean ez zeukana, izan dezaketen hondakinak.

Hondakin bat HP15 gisa sailkatzeko, nahitaezkoa da beheko taulako arrisku-argibide bat edo arrisku-argibide gehigarri bat duen substantzia bat edo gehiago izatea:

Arrisku-argibideak	Arrisku-argibide gehigarriak
Sutea izanez gero, masako leherketa-arriskua	H205
Leherkorra egoera lehorrean	EUH001
Peroxido leherkorrak sor daitezke	EUH019
Aire konfinatuan berotzearen ondoriozko leherketa-arriskua	EUH044


*17. taula: HP15 arriskua dakarten propietateak eta argibideko kodeak.*

HP15 ezaugarri honetarako saiakuntza egokiak dokumentu honetako 9.4.15. atalean jaso dira.

<sup>28</sup> Study to assess the impacts of different classification approaches for hazard property "HP14" on selected waste streams: <http://ec.europa.eu/environment/waste/studies/pdf/hazard%20property.pdf>

# 6. Sailkatzeko prozedura


Bai Hondakinen Saillapenari buruzko Batzordearen Gidak, bai Batzordearen Komunikazioak eta bai MITERDen Gidak gidalerro batzuk eskaintzen dituzte hondakinak sailkatzeko prozedurari dagokionez. Gidalerro horiek MITERDEk prestatutako hondakin arriskutsuak sailkatzeko gida teknikoaren 1. irudian islatzen dira:





5. irudia: Hondakin bat modu sekuentzialean sailkatzeko fluxu-diagrama (Iturria: MITERDen gidaren 1. irudia)

Hala ere, Gida honetan hondakinak ispilu-kodearekin karakterizatzeko biderik onena garatu nahi denez, beheko grafikoan oinarrituko gara, ispilu-kodea duen hondakin baten erabakien zuhaitza xehetasun handiagoz banakatzen duena:<sup>29</sup>



6. irudia: Hondakinak sailkatzeko fluxugrama.

Sailkatzeko prozedura honetan oinarritua, **1. eranskinean ("1357/2014 Erregelamenduaren (EB) Gida aplikatzeko protokoloa ingurumen-organoarentzat")** xehetasun handiagoz deskribatu da EAEko Ingurumen Organoak urrats bakoitzean egin beharreko eragiketa. Protokolo horretan ematen dira hondakinaren ekoizleei informazioa errekeritzeko edo eskatzeko irizpideak, gomendioak eta ereduak, bai eta emaitzak interpretatzeko ere

<sup>29</sup> EJAren 487/17 epaiaren ondorioen arabera, 1. urratetik hondakin arriskutsura joan beharko litzateke informazioak ez dagoenean.

arriskutsu gisa sailkatzeari dagokionez. Irizpide eta eredu horiek gida hau prestatu aurreko azterketa-faseetan garatu dira. 1357/2014 (EB) Erregelamendua aplikatzeko EAEn garatutako azterketaren lehenengo fasean, urteko hondakin ez-arriskutsuen inbentarioetan oinarrituta, ispilu-kodeak zituzten hondakin ez-arriskutsuetatik sortutako korronte nagusiak identifikatu ziren, eta, beraz, arriskutsuak izan daitezkeenak (**ikus 2A eranskina**).

Korronte horiek identifikatuta, HP ezaugarri potentzialen aurretiazko balorazio bat egin zen, haietako bakoitzari eragin ziezaioketenak osaerei, lehengaiei, prozesuei, analisi erabilgarriei eta bibliografiari buruzko informazioan oinarrituta (**ikus 2B eranskina**).

Identifikatutako hondakinak behar bezala sailkatzen direla ziurtatzeko asmoz, enpresa kaltetuei eskatu zaie hondakin-korronte zehatz horien arriskugarritasuna nahiz arriskugarritasunik eza justifikatzeko. Eskakizunetan, ingurumen-organoari aurkeztu beharreko informazio zehatza zehazten da. Informazio horren zati bat modu orokorrean eskatuko da, baina kasu zehatz bakoitzean hondakin bakoitzerako eskatu beharreko informazio espezifiko ere definitu beharko da, eragiten dioten HP potentzialen arabera, 2B eranskinean adierazitakoaren arabera. (**ikus 3. eranskina (Informazio orokorra eskatzeko eredu)**) lehenik eta behin kasu guztietarako, eta **4. Eranskina (Informazio espezifiko eskatzeko eredu)**. **5. eranskinean**, egindako urratsak eta analisia eta erabilitako informazio-iturriak erakusten dituzten bi adibide argigarri daude, bi hondakin oso desberdinen kasuetan arriskugarritasuna zehazteko eskatu beharreko informazioa erabakitzeko: aluminiozko aparrak eta hondakin-urak arazteko lohiak.

### 6.1 1. urratsa. Hondakinaren konposizioari buruzko informazioa

Funtsezko premisa batetik abiatu behar da: ispilu-kodea duen hondakin baten arriskugarritasuna ebaluatu ahal izateko, beti izango da beharrezkoa ahal dela dena delako hondakin zehatzaren konposizioari buruzko informazio jakin bat izatea; baina, halakorik ezean, hondakin-motaren konposizio tipikoa zein den jakin beharko da gutxienez.

Gutxienerako informaziorik ezean, ezin izango da zehaztu hondakinari hondakin arriskutsuaren edo ez-arriskutsuaren kodea esleitu behar ote zaion. Kasu horretan, hondakina arriskutsu gisa sailkatuko da.

Beraz, kasu guztietan aztertu beharko da ahal den neurrian hondakinaren konposizioa, honako informazio-iturri hauek kontuan hartuta:

- Jarduerari, prozesuei eta lehengaiei eta materia osagarriei buruzko bibliografia.
- Hondakinak sortzeko prozesuan erabilitako nahasteen edo substantzien segurtasun-datuen fitxak.
- Antzeko hondakinekin lotutako espedienteak.
- Hondakinaren ezaugarri fisiko-kimikoak.

Beraz, oro har, hondakinari buruzko informazio hori eskatuko zaio ekoizleari. Horretarako, ikus "1357/2014 Erregelamenduaren (EB) Gida aplikatzeko protokoloa ingurumen-organoarentzat"<sup>30</sup> protokoloaren 1. ATAZAren deskribapena. Helburua da hurrengo fase batean zein ezaugarri edo saiakuntza behar diren zehaztu ahal izateko behar diren datuak lortzea. Batzuetan, ekoizleak emandako informazioaz gain, nahitaezkoa izango da ingurumen-organoak bibliografiari edo aurreko espedienteei buruzko informazio gehigarria biltzea. Ekoizleak ezin izan badu hondakinaren konposizioa ezarri aurretiazko informazioan oinarrituta, substantzia arriskutsuen presentzia zehazteko behar diren analisiak egin beharko ditu eta 1357/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritako kontzentrazio-mugak gainditzen ote diren zehaztu beharko du.

Informazio orokor hori osatu ondoren, dagokion informazio espezifikoa beharko da, hau da, hondakinaren arriskugarritasuna ebaluatzeko aukera emango duten ezaugarriak eta/edo saiakuntzak. Alde horretatik, ikus "1357/2014 Erregelamenduaren (EB) Gida aplikatzeko protokoloa ingurumen-organoarentzat"<sup>31</sup> protokoloaren 2. ATAZA.

Dokumentu honetako **2B eranskinean** ikusi ahal izango da EAEko lehentasunezko EHZ kodeetarako egindako ekitaldiaren emaitza: informazio orokorra aztertu ondoren, kasu bakoitzean aurreikus zitezkeen substantziak identifikatu ziren, baita HP posibleak ere. Kode horietarako, informazio hori laguntza-elementu gisa hartu ahal izango da, dagozkion ezaugarriak edota saiakuntzak identifikatzeko.

## 6.2 2. urratsa. Arriskugarritasuna ebaluatzea

Bi modu daude hondakinaren arriskugarritasuna ispilu-kodearekin ebaluatzeko:

- 1357/2014 (EB) Erregelamenduaren muga-balioak aplikatuta, hondakinaren konposizioan oinarritutako kalkuluak erabiliz.
- 440/2008 Erregelamenduaren (EE) edo nazioartean aitortutako beste gidalerro eta saiakuntza-metodo batzuen arabera saiakuntzak eginez, 1272/2008 (EE) Erregelamenduaren 7. artikulua kontuan hartuz animaliekin eta gizakiekin egindako saiakuntzei dagokienez. 440/2008 (EE) Erregelamenduko saiakuntza-metodoak eta haien ondorengo aldaketak aplikatzean, kontuan hartuko da CLP Erregelamenduaren 7. artikulua arabera **animaliekin egindako saiakuntzetan oinarritutako metodoak saihestu behar direla**. Ildo horretan, eta arriskugarritasun-ezaugarri jakin batzuetarako ez dagoenez in vitro saiakuntza-metodoric 440/2008/EE Erregelamenduan, metodo alternatiboak bilatu beharko dira hondakineterako egokiak direnean eta halakoak daudenean. Horretarako, Animalien Esperimentazioaren Alternatibei buruzko Europako Erreferentzia Laborategian kontsultatzea gomendatzen da. Bertan, animaliekin egindako saiakuntzen ordezko proba batzuk daude eskuragarri. Horretarako, kontsultatu esteka hau:

<sup>30</sup> 3. eranskin gisa informazio orokorra eskatzeko eredu bat sartzen da.

<sup>31</sup> 4. eranskinean informazio espezifikoa eskatzeko eredu bat dago.

<https://ec.europa.eu/jrc/en/eurl/ecvam>

Printzipioz, 2014/995/EB Erabakiari jarraikiz, bi hurbilketa horiek baliozkoak dira, eta, Batzordearen Komunikazioak berresten duen bezala, ez dago inolako lehentasunik:

*"Arriskugarritasun-ezaugarri bat hondakinean dauden substantzien kontzentrazioan oinarrituta ebalua daiteke, 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskinean adierazten den bezala, edo, 1272/2008 (EE) Erregelamenduan besterik xedatzen ez bada, saiakuntza bat eginez 440/2008 (EE) Erregelamenduaren edo nazioartean aitortutako beste gidalerro eta saiakuntza-metodo batzuen arabera [...]".*

Metodologia bat edo bestea (kalkuluak edo saiakuntzak) aukeratu arren, biak aplikatzen badira, saiakuntzen emaitzek lehentasuna izan behar dute<sup>32</sup>:

*"Hondakin baten arriskugarritasun-ezaugarri bat saiakuntza baten bidez ebaluatu bada eta substantzia arriskutsuen kontzentrazioak ere aplikatu badira, 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskinean adierazten den bezala, saiakuntzaren emaitzak nagusituko dira".*

1. urratsean bildutako informazioaren arabera, erabaki beharko da lortutako xehetasun-mailak kalkuluak edo saiakuntzen bidea erabiltzea gomendatzen ote duen. Nolanahi ere, Batzordearen Komunikazioa esplizitua da: **hondakinak sailkatzen dituzten pertsonak saiakuntzak egin aurretik hondakinen konposizioa eta arriskugarritasun-ezaugarriak zehazteko arrazoizko neurri guztiak hartuko dituztela espero da.**

Horrenbestez, ahaleginik onenak egin beharko dira informazio "nahikoa" sortzeko, hondakinak kalkulu-metodoa aplikatuz sailkatzeko, eta metodo horri lehentasuna eman beharko zaio honako arrazoi hauengatik:

- Sailkatzeko prozeduraren bizkortasunagatik.
- Beharrezkoak ez diren laborategiko probak saihesteagatik, batez ere animaliekin egiten direnean.
- Erakunde interesdunei beharrezkoak ez diren kostuak saihesteagatik.

<sup>32</sup> Salbuespena izango litzateke 2014/955/EB Erabakian aipatutako kutsatzaile organiko iraunkorrak dituzten hondakinen kasua; alderdi hori sailkatzeko prozesuaren 3. urratsari dagokion atalean tratatuko da.

Kalkuluak erabiltzeko informazio "nahikoa" ote dagoen erabakitzea ez da erraza, eta kasu bakoitzean egiten den irizpenaren mende egongo da beti.

### 6.2.1 Konposizio ezezaguneko hondakinak

Ohikoena izango da hondakinei buruzko zenbait informazio egotea, nahiz eta konposizioa modu "nahikoan" ezagutzen ez den, hasiera batean, konposizioaren azterketaren eta kalkulu egokien bidez sailkatzeko.

Hala ere, MITERDeK egindako Gidaren 5.1.3. puntuan adierazitakoari jarraituz, hondakinaren jatorria eta konposizioa erabat ezagutzen ez direnean, **gutxienez** substantzia hauek ote dauden aztertu beharko da:

Substantziak	Definizioa eta jatorria	Adibideak	Lotutako arriskugarritasuna
Inorganikoak			
Metal astunak	Industria-aniztasunaren ondorioz ingurunera askatutako propietate metalikoak erakusten dituzten elementuak; isuri-iturri nagusiak errekuntza-instalazio handiak, zementu-fabrikak eta erraustegiak dira.	As, Cd, Cr, Hg, Ni, Pb, Se, Tl, etab.	Metal astunek toxikotasun akutua eta ekotoxikotasuna sor ditzakete, ugalketarako toxikoak izan daitezke eta toxikotasun espezifikoak sor dezakete organo jakin batzuetan.
Zianuroak	Konposatu organiko eta ez-organiko ugarirekin konbinatzen den karbono/nitrogeno lotura bat edukitzeagatik bereizten diren substantziak. Pinturen, ehunkien eta plastikoen fabrikazioan erabiltzen dira, eta hondakin gisa ager daitezke halakoetan, baita metalurgia-industrian ere.	Ager daitezke zianuro libre gisa (HCN edo CN <sup>-</sup> ), zianuro disolbagarriak osatuz (NaCN), ingurune azido ahulean disozia daitezkeen zianuro gisa (Cd(CN) <sub>2</sub> ) edo konplexu egonkorak osatuz (K <sub>4</sub> (Fe(CN) <sub>6</sub> ).	Zianuroek toxikotasun akutua eta ekotoxikotasuna sor ditzakete.
Amoniakoa (NH <sub>3</sub> )	Konposatu kimiko honen molekula nitrogeno-atomo batek eta hiru hidrogeno-atomok osatzen dute. Pestiziden, industria kimikoen eta ehunki-industrien sektorearekin lotuta dago nagusiki.	--	Amoniakoa narritagarria edo korrosiboa izan daiteke, toxikotasun akutua sortu edo ingurumenarentzat toxikoa izan.
Ozono-geruza urritzen duten substantziak	Hidrokarburo aseetatik eratorritako substantziak, hidrogeno-atomoen ordez fluor-eta/edo kloro-atomoak jarri batez ere. Hozte-industriatik eta	CFC eta beste substantzia batzuk <sup>33</sup>	Ozono-geruza kaltetzen dute (ekotoxikoak).

<sup>33</sup> Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1005/2009 (EE) Erregelamenduaren ozono-geruza urritzen duten substantziei buruzko I. eranskinean, ozono-geruza urritzea eragiten duten substantziak zerrendatzen dira.

Substantziak	Definizioa eta jatorria	Adibideak	Lotutako arriskugarritasuna
	aerosol-propulsaileetatik datoz. Isolatzaile termikoetan ere presente daude.		
Amiantoa eta zuntz mineral artifizialak	Burdina, aluminio eta magnesiozko metasilikatoen seriea, zuntz-sorta gisa agertzen direnak. Asko erabili da eraikuntzaren sektorean, itsas industrian edo material termoerresistenteen fabrikazioan.	Krisolitoa, amosita, krozidolita	Amiantoa kartzinogenoa izan daiteke, eta toxikotasun espezifikoak sor dezake zenbait organotan.
<b>Organikoak</b>			
Hidrokarburo aromatiko poliziklokoak (HAP)	Heteroatomorik ez duten eta ordezkorik ez duten eraztun aromatiko sinplez osatutako konposatu organikoak. Bigarren mailako produktu gisa sortzen dira errekuntza-prozesuetan. Industrian, batez ere aluminioaren ekoizpenean eta tratamenduan eta kokearen eta ikatzen fabrikazioan sortzen dira.	Naftalenoa, antrazenoa, krisenoa, etab.	Konposatu horietako batzuk kartzinogenoak izan daitezke, toxikotasun akutua eragin edo ekotoxikoak izan.
Bentzenoa, toluenoa, etilbentzenoa eta xilenoa (BTEX)	Petrolioan eta bere eratorrietan dauden hidrokarburo lurrunkor monoaromatikoak, hala nola gasolina.	Bentzenoa, toluenoa, etilbentzenoa eta xilenoa	Bentzenoa eta toluenoa narritagarriak izan daitezke, eta toxikotasun espezifikoak sor dezakete zenbait organotan. Gainera, bentzenoa kartzinogenoa eta mutagenikoa izan daiteke. Etilbentzenoak eta xilenoak toxikotasun akutua sor dezakete.
Hidrokarburo aromatiko lurrunkorak	Erregaiak erretzean edo disolbatzaileak, pinturak eta beste produktu batzuk fabrikatu, formulatu, banatu eta erabiltzean askatzen diren hidrokarburoak.	Trikloroetilenoa, tetraklorometanoa, perkloroetilenoa, etab.	Trikloroetilenoa, tetraklorometanoa eta perkloroetilenoa kartzinogenoak eta ekotoxikoak izan daitezke. Gainera, trikloroetilenoak eta tetraklorometanoak toxikotasun espezifikoak sor dezakete zenbait organotan.
Petrolioaren hidrokarburo totalak (TPH)	Ehunka konposatu kimikoren multzo zabala, batez ere hidrogenoz eta karbonoz osatuak, jatorriz petrolio gordinetik eratorriak.	Hidrokarburoen konposatu-aukera zabala barne hartzen du; konposatu alifatikoak eta aromatikoak, besteak beste.	Konposatu-aukera handia denez, hainbat arriskugarritasun-ezaugarri izan ditzakete.
Konposatu organiko iraunkorrak (KOI)	Elementu kimiko iraunkorren, biometagarrien, toxikoen eta garraiatzeko gaitasun handiarekiko konposatu	Dioxinak eta furanoak, difenilo polibromatuzko	Horiek guztiak propietate toxiko frogatuak dituzte. Lindanoak toxikotasun akutua, ekotoxikotasuna eta

Substantziak	Definizioa eta jatorria	Adibideak	Lotutako arriskugarritasuna
	kimikoen multzoa. Haietako batzuk industria-prozesuetan erabiltzen dira, edo horien ondorioz sortzen dira. Beste batzuk erreakzio kimikoetatik edo prozesuetatik eratorritako azpiproduktu gisa sortzen dira. Badira pestizida gisa erabilitako konposatuak, hainbat artikulutako gehigarriak, etab.	eterrak (PBDE), lindanoa, PCB	toxikotasuna sor ditzake organo jakin batzuetan; c-OktaBDE eta c-PentaBDE toxikoak izan daitezke ugalketarako eta organo jakin batzuetarako, hurrenez hurren; eta PCBek toxikotasuna sor dezakete organo jakin batzuetan eta ekotoxikoak izan daitezke.

18. taula: Hondakinean duten presentzia zehazteko substantzia garrantzitsuak.

Konposizio zehatza ezagutzen ez zaien hondakin horien adibide ohikoak izango lirateke, besteak beste, "Gasen tratamenduaren hondakin solidoak (...)" edo "Efluenteen in situ tratamenduaren hondakin solidoak (...)".

Hondakin-mota horiekin, ohikoa izango da saiakuntzen teknikara jotzea neurri handiagoan edo txikiagoan.

Kontua ez da saiakuntzen batera indiskriminatu bat egitea, baizik eta zein saiakuntza (eta zein ez) behar diren zehaztea.

Kontuan izan behar da nahiz eta produktu kimikoetarako saiakuntza-eskaintza nahikoa egon hondakin-matrizearen egoera hau dela (Gida hau argitaratzen den datan eskuragarri dagoen informazioaren arabera):

HP4. Narritagarría	
Eskaintza osoa	HP5. Arnasteagatiko toxikoa (hidrokarburoek eratutako hondakinetarako)
	HP6. Toxikotasun akutua (ahozkoa eta dermikoa)
	HP8. Korrosiboa.
	HP11. Mutagenoa
	HP14. Ekotoxikoa.
Eskaintza partziala	HP1. Lehergarria.
	HP2. Erregarria.
	HP3. Sukoia.
	HP12. Toxikotasun akutuko gas bat askatzea.
	HP15. Lehen aipatutako arriskugarritasun-ezaugarrietako bat izan dezaketen hondakinak, jatorrizko hondakinak zuzenean ez zeukana.
Eskaintzarik eza	HP5. STOT
	HP7. Kartzinogenoa.
	HP10. Ugalketarako toxikoa.
	HP13. Sentsibilizagarria

19. taula: Hondakin-matrizearen gaineko saiakuntzen eskuragarritasuna.

Praktikan, beraz, ezinezkoa da saiakuntzak baliatzea hondakinak sailkatzeko modu bakar gisa. Ahal den guztietan, ahalegina egin behar da saiakuntzen eskaintzarik ez dagoen arriskugarritasun-ezaugarriak baztertzeko edo berresteko, hondakinen konposizioari buruzko azterketa egoki baten bidez (batez ere kasu hauetan: HP5 STOT/Tox. Asp. (karburoak izan ezik); HP7. Carc.; HP10 Repr.; HP13 Sens.).

Hondakinak sortzen duen jarduerari eta erabilitako lehengaiei buruzko informazioak eta antzeko hondakinei buruzko espedientei buruzko datuek aukera eman dezakete hondakinaren arriskugarritasun-ezaugarri potentzialak identifikatzeko. Horrela, HP posible horiei buruzko geroko azterketa zentratuko da.

Kasu gehienetan, beharrezkoa izango da hondakinaren karakterizazio fisiko-kimikora jotzea; karakterizazio hori 18. taulan adierazitakoa baino soilagoa izan daiteke, baldin eta hondakina sortzen duen jarduerak, erabilitako lehengaiek eta antzeko beste hondakin batzuei buruzko informazioak horretarako aukera ematen badute. Analisi-emaitzek aukera eman ahal izango dute hasieran posible ziruditen ezaugarri batzuk baztertzeko edo berresteko.

Substantzia arriskutsuen (HP1) esleipenarekin mendekotasunik ez duten edo zuzenean lotu ezin diren HPetarako gordeko dira saiakuntzak (HP1. Leherkorra; HP2. Erregarria; HP3. Sukoia; HP12. Toxikotasun akutuko gas bat askatzea; HP15. Lehen aipatutako arriskugarritasun-ezaugarrietako bat izan dezaketen hondakinak, jatorrizko hondakinak zuzenean ez zeukana).


Gainera, saiakuntzak baliatuko dira karakterizazioen informazioarekin hauei buruzko erabakirik hartu ezin denean: HP4. Narritagarria; HP6. Toxikotasun akutua; HP8. Korrosiboa; HP11. Mutagenoa; edo HP14. Ekotoxikoa<sup>34</sup>.

HP5. STOT/Arnasteagatiko toxikoa (karburoak izan ezik); HP7. Kartzinogenoa; HP10. Ugalketarako toxikoa; eta HP13. Sentsibilizagarria sailkapenen kasuan, karakterizazioen informazioak aukera ematen ez badu hondakina sailkatzeko, saiakuntza horiek egiteak gaur egun duen bideraezintasuna kontuan hartuta, hondakin arriskutsu gisa sailkatu beharko da hondakina.

<sup>34</sup> Aurrerago justifikatuko den bezala, komeniko litzateke ekotoxikotasun-saiakuntzetara jotzea gainerako saiakuntzetara baino maizago.



Grafikoki, hau da prozesua:



7. irudia: Konposizio ezezaguneko hondakinak sailkatzeko erabakiak hartzeko fluxua<sup>35</sup>

<sup>35</sup> KOI duten hondakin arriskutsuak arriskutsu gisa sailkatzen dira soilik KOI Erregelamenduaren IV. eranskinaren mugak gainditzen direnean.


### 6.2.2 Konposizio ezaguneko hondakinak

Zenbait kasutan, prozesua eta erabilitako lehengaiak ezagutzeak aukera ematen du hondakinaren konposizioari buruzko informazio nahikoa eskuratzeko, saiakuntzak egin beharrik gabe. Zur tratatu baten, mekanizazio-lohi batzuen, ontzi hutsen edo, jakina, zehaztapenetik kanpoko edo iraungitako produktuen kasua izan liteke.

Egoera horretan, osagai guztiak identifikatuko dira, baita horien kontzentrazioa ere. Substantziaren baten kontzentrazioa ez bada guztiz ezaguna, analisi fisiko-kimiko baten bidez zehaztu ahal izango da.

Antzeko zerbait gertatzen da batzuetan hondakinekin, haien konposizio espezifikoak ezagutzen ez bada ere osagai ezagunak dituzten ohiko zaborren tipologiakoak badira. Analisi fisiko-kimikoa nahikoa izan daiteke substantzia arriskutsu garrantzitsuen izaera eta kontzentrazioa identifikatzeko.

Kasu horietan, sailkatzeko prozesua nahiko erraza da, eta hondakina kalkulu-metodoaren bidez sailka daiteke:



8. irudia: Konposizio ezaguneko hondakinak sailkatzeko erabakiak hartzeko fluxua.

Horrekin guztiarekin, proposamena datza kalkulu metodoa ahal den guztietan aplikatzean eta saiakuntzak beharrezkoa denean bakarrik egitean. Metodo bat edo bestea nahiz bien konbinazioa noiz aplikatu behar den zehaztea, nahitaez, eskura dagoen informazioaren eta laborategietako hondakin-saiakuntzen benetako eskaintzaren arabera egin behar da.

### 6.3 3. urratsa. Kutsatzaile organiko iraunkorrak dituzten hondakinak

2014/955/EB Erabakiak hala eskatuta, beheko taulan jasotako substantzia kutsatzaileak dituzten hondakinak hondakin arriskutsu gisa sailkatuko dira, baldin eta 850/2004 Erregelamenduaren IV. eranskinean adierazitako kontzentrazioetan edo handiagoetan badaude. 850/2004 Erregelamendua behin baino gehiagotan aldatu denez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1021 (EB) Erregelamenduak –2019ko ekainaren 20koak, kutsatzaile organiko iraunkorrei buruzkoak (bertsio bategina)–, 21. artikulua bidez, 850/2004 (EB) Erregelamendua indargabetu zuen, eta adierazi zuen indargabetutako Erregelamenduari egindako erreferentziak indarreko Erregelamenduan eginda jotzen direla VII. eranskinean ageri den korrespondentzia-taularen arabera:

Substantzia	Muga
Pentaklorobentzenoa	50 mg/kg
PCDD/PCDF	15 µg/kg (1)
DDT (1,1,1-trikloro-2,2-bis(4-klorofenil) etano)	50 mg/kg
Klordanoa	50 mg/kg
Hexakloroziklohexanoak, lindanoa barne	50 mg/kg
Dieldrina	50 mg/kg
Endrina	50 mg/kg
Heptakloroa	50 mg/kg
Hexaklorobentzenoa	50 mg/kg
Klorodekona	50 mg/kg
Aldrina	50 mg/kg
Poliklorobifeniloak (PCB)	50 mg/kg (2)
Mirexa	50 mg/kg
Toxafenoa	50 mg/kg
Hexabromobifeniloa	50 mg/kg

(1) Muga PCDD eta PCDFetan kalkulatzen da, adierazitako baliokidetasun toxikoko faktoreen (FET) arabera

(2) Europako EN 12766-1 eta EN 12766-2 arauetan ezarritako kalkulu-metodoa aplikatuko da.

20. taula: Konposatu organiko iraunkorrak eta muga-kontzentrazioak

Kasu hauetan, saiakuntzen emaitzen prebalentziak ez du eraginik<sup>36</sup>. Hau da, hondakin batek KOI horiek mugen pareko edo gehiagoko kontzentrazioetan baditu, hondakin arriskutsu gisa sailkatuko da beti.

## 7. ■ 1357/2014 (EB) Erregelamendua aplikatzeko irizpideak HONDAKINEN OSAERATIK ABIATUTA.

Atal honetan, arriskugarritasunaren ebaluazioa hondakin osoeratik abiatuta egiten denean aplikatu beharreko irizpideak zehazten dira.

### 7.1 Hondakina osatzen duten substantzien arriskugarritasunari buruzko oinarritzko informazioa.

1357/2014 (EB) Erregelamenduak eta 2017/997 Erregelamenduak substantzia arriskutsuen ehunekoaren kontzentrazio-muga desberdinak (pisua/pisua) barne hartzen dituzte, kode hauen arabera:

- Arrisku-motak eta -kategoriak.
- Arrisku-argibideak.

Adibidez:

Arrisku-motaren eta -kategoriaren kodea	Arrisku-argibidearen kodea	Kontzentrazio-muga
Acute Tox. 1 (Oral)	H315	% 0,1

*g. irudia: Kontzentrazio-mugaren adibidea, arrisku-motaren eta -kategoriaren eta arrisku-argibidearen kodearen arabera.*

1357/2014 (EB) Erregelamenduak mugarik aipatzen ez duenean ere, eta substantzia bat egoteak hondakinaren arriskugarritasuna dakarrela ezartzen duenean, saiakuntza-metodoen arabera egokia eta proportzionatua denean, substantziak kode berdinen bidez identifikatzen dira (kasu hauetan, besteak beste: HP1. Leherkorra; HP2. Erregarria; etab.).

<sup>36</sup> 2014/955/EB Erabakiaren arabera, prebalentziaren araua bidezkoa da ebaluazioa saiakuntzen bidez egiten denean, eta "substantzia arriskutsuen kontzentrazioak aplikatuz ere bai, 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskinean adierazten den bezala". 2014/955/EB Erabakian aipatutako KOIen kasuan ez dira aplikatuko Zuzentarauaren III. eranskinaren kontzentrazioak.

Arrisku-mota eta -kategoriaren kodeak	Arrisku-argibidearen kodeak
Unst. Expl.	H200

10. irudia: Arrisku-motaren eta -kategoriaren kodearen adibidea, eta arrisku-argibidearen kodea erreferentziako muga-kontzentrazioarik gabe.

Beraz, oinarrizko gai bat da kode horiek identifikatzeko moduari buruzko irizpide argia izatea.

Arrisku-motak eta -kategoriak, bai eta substantzien arrisku-argibideak ere, substantzia horien sailkapenaren araberakoak dira, 1272/2008 (EE) Erregelamenduaren arabera<sup>37</sup>. Beraz, hondakin bat bere osaeraren arabera sailkatzeko, ezinbestekoa da identifikatzea hondakina osatzen duten substantzien sailkapena, CLParen arabera.

Artatu beharreko informazio-iturriak, Gidak eta Batzordearen Komunikazioak berresten duten bezala, lehentasun-ordenaren araberakoak dira:

- Sailkapen harmonizatuak (3.1 taula. CLPren VI. eranskina).
- 1272/2008 (EE) Erregelamenduaren 42. artikuluan araututako "Sailkapenaren eta etiketatzearen katalogoa".
- Katalogoa datu-base gisa mantentzen du Produktu Kimikoen Europako Agentziak (ECHA), eta <https://echa.europa.eu/es/> webgunean kontsulta daiteke. Sailkapen harmonizatuak jasotzeaz gain, Katalogoak hemengo informazioa ere jasotzen du:
  - Fabrikatzaileen eta inportatzaileen erregistro-espeditenteak.
  - Fabrikatzaileen eta inportatzaileen sailkapen- eta etiketatze-katalogoari egindako jakinarazpenak.

Hondakin bat sailkatzeko, jakinarazpenen informazioa azken baliabidetzat soilik hartzen da, fidagarritasun txikia duelako: fabrikatzaileek bere garaian zuten informazioa eskaintzen dute, proba gehigarririk egin gabe.

Erregistro-espeditenteetatik datorren informazioa, berriz, nabarmen fidagarriagoa da; izan ere, hura sortzeko fabrikatzaileak beren substantziak behar bezala aztertzea behartuta daude, beharrezkoa denean saiakuntzak egitea barne.

**Erabili beharreko lehen iturria sailkapen harmonizatua da**, eta sailkapen hori hondakinak sailkatzeko erabili behar da, Batzordearen Komunikazioan baieztatzen den bezala: "*Sailkapen harmonizatu hori dagoenean, hondakinak sailkatzeko erabili beharko da*". Bai MITERDeK egindako Gidak eta bai CLP Erregelamenduaren 4.3 artikulua adierazten dute han azaldutako arrisku-motek eta -kategoriek legezko lehentasuna dutela gainerako

<sup>37</sup> 2014/955/EB Erabakiaren eranskinean honela definitu zen "substantzia arriskutsua": "*arrisku gisa sailkatutako substantzia, 1272/2008 (EE) Erregelamenduaren 1. eranskinaren 2. ataletik 5. atalera bitartekoetan ezarritako irizpideak betetzeagatik*".

informazio-iturri guztien aurretik, eta lehentasunez erabili behar direla hondakin bat sailkatzeko.

Hala ere, kontuan hartu behar da CLP Erregelamenduak lehentasuna ematen diela sailkapena harmonizatu behar zaien arrisku-motei; 4.3. artikuluan berariaz adierazten du sailkapen harmonizatuak estaltzen ez dituen gainerako arrisku-motak I. eranskinetako irizpideen arabera ebaluatu beharko direla. Beraz, hondakinaren karakterizazioak CLP Erregelamenduaren alderdi hori kontuan hartu behar du, eta hondakinean dauden substantzien sailkapen harmonizatuak berariaz estaltzen ez dituen HP ezaugarriak ebaluatu beharko ditu.

Alde horretatik, bai **Finlandiako Gidak**<sup>38</sup> eta bai **Kontseilu nordikoak**<sup>39</sup> azpimarratzen dute sailkapen harmonizatua osatu gabe gera daitekeela, CLP Erregelamenduak bere artikuluetan adierazten duen bezala. Horren froga da gasolinaren kasua, ez baitago sukoi gisa sailkatuta CLPko VI. eranskinean (erregistro-espeditenteen arabera, fabrikatzaileek berak likido sukoi gisa sailkatzen dute).

**Britainiar Gidak**<sup>40</sup> (eta antzeko terminoetan **OVAM Gidak** Flandesen<sup>41</sup>) ere aitortzen du sailkapen harmonizatua osatu gabe dagoela, eta ohartarazten du sailkapenak substantzia bati arriskugarritasun-ezaugarri jakin batzuk ez esleitzeak ez duela esan nahi baztertu daitekeenik. Izan ere, hondakinen ekoizleak sailkapen harmonizatutik abiatuta gainerako ezaugarriak ebalua ditzaten behartzen ditu, esate baterako, erregistro-espeditenteen arabera.

Hondakinen Sailkapenari buruzko Europako Batzordearen Gida eta Batzordearen Komunikazioa ez dira hain esplizituak, baina norabide bera seinalatzen dute:

---

*"Sailkapen harmonizatuak lehentasun juridikoa du arrisku-mota eta -kategoriei buruzko gainerako informazio-iturri guztien aldean. Kontuan izan sailkapen harmonizatua osatugabea izan daitekeela zerrendatutako arrisku-motak eta -kategoriak bakarrik estaltzen dituenen".*

*"Arrisku-argibideko zer kode zein substantziari esleitzen zaion informazioa sailkapen harmonizatuetatik erator daiteke, eta zati batean eskuragarri ez daudenean autosailkapenetatik<sup>42</sup> ere bai (operadorearen erantzukizunpean erabiliak eta agintari eskudunen kontrolpean erabiliak, harmonizatuta ez daudenez)".*

---

<sup>38</sup> JÄ TTEIDEN VÄÄRÄOMINÄISUUKSIEN ÄRVIÖINTI –OPÄS

<sup>39</sup> Hazardous waste classification. Amendments to the European Waste Classification regulation -what do they mean and what are the consequences?

<sup>40</sup> Technical Guidance WM3: Waste Classification - Guidance on the classification and assessment of waste

<sup>41</sup> Europese afvalstoffenlijst EURAL Handleiding

<sup>42</sup> "Autosailkapenak" terminoak erreferentzia egiten die fabrikatzaileek eta gainerako betebehadunek erregistro-espeditenteen esparruan egiten dituzten sailkapenei.

Beraz, hondakin bat sailkatzeko garaian sailkapen harmonizatua erabili behar da, erregistro-espeditentetik datorrenarekin osatuz (ikus adibidea dokumentu honetako 5. eranskinean).

Baliteke substantziaren baten kasuan sailkapen harmonizaturik ez egotea baina bai erregistro-espeditentetik datozen autosailkapenak. Batzordearen Komunikazioan adierazten den bezala, kasu horietan substantzien sailkapena erregistro horietatik aterako da:

*"Dagokion substantzietarako sailkapen harmonizaturik ez badago eta autosailkapena besterik ez badago, hondakinen edukitzaileak ahaleginik onenak egin beharko ditu sailkapen bat esleitzeko C&L Katalogoan argitaratutako autosailkapenetatik abiatuta eta bereziki kontuan hartuz substantziaren edo nahastearen SDF (segurtasun-datuen fitxa, SDS ingelesez) bidez hondakinak sortzen dituen operadoreari transmititutako sailkapenaren jakinarazpena".*

Erregistro-espeditentek kontraesanak izan ditzakete, erregistratutako substantzien osaera desberdinagatik edo zikinkeriak daudelako nagusiki. Zuhurtziak kasurik txarrena hartzera behartzen du, eta hondakinaren ekoizleari dagokio kontrako frogaren karga.

Adibidez, kaltzio nitratorako hiru erregistro daude<sup>43</sup>. Denak bat datoz substantzia hori narritagarrria eta toxiko akutua dela, baina batek bakarrik (*reaction mass*) aipatzen du gainera sukoia dela. REACH/CLPren substantzia-izaeraren irizpideen arabera, "reaction mass" substantzia eratzaille anitza da; bere konposizioa ezaguna da, ondo definituta dago, eta, oro har, 80/20 (80%-20%) araua betetzen duten hainbat osagai ditu. Sailkapen hori egiteko, substantzia eratzaille anitzaren osagai guzti-guztiak hartzen dira oinarri, eta, beraz, desberdina izaten da "kaltzio nitratoa" substantzia monoeratzaillearen sailkapenaz. Bada, hondakinaren ekoizleak hondakina sortzen duen produktuaren Segurtasun Datuen Fitxa aurkeztu beharko du, hala badagokio zer substantzia-mota dagoen eta, nolana ere, sukoi gisa sailkatuta dagoen ala ez frogatzeko. Froga hori egon ezean, edo zalantzarik izanez gero, sukotasun-saiakuntza bat eskatuko litzaioke hondakinaren ekoizleari.

Jakinarazpenei buruzko informazioa alde batera utziko da erabilgarri dagoen bakarra denean izan ezik. Kasu horietan, informazioa osatzeko ahalegina egingo da beste iturri bibliografiko batzuk bilatuz (ikerketa zientifikoak, segurtasun-datuen fitxak, etab.).

Beraz, sailkapen harmonizaturik edo erregistro-espeditenterik ez dagoenean, jakinarazpenen sailkapena hartuko da kontuan. Ohikoa da jakinarazpenen artean

<sup>43</sup> Anhydrous, tetrahydrate and reaction mass of calcium nitrate, magnesium nitrate and nitric acid.



erregistroen artean baino desadostasun gehiago egotea. Ikus honako adibide hau, pirenoari dagokiona:

Classification			Number of Notifiers
Hazard Class and Category Code(s)	Hazard Statement Code(s)	Hazard Statement Code(s)	
Not Classified			37
Skin Irrit. 2	H315	H315	66
Eye Irrit. 2	H319	H319	
STOT SE 3	H335 (not available)	H335	
Aquatic Acute 1	H400	H400	
Aquatic Chronic 1	H410	H410	
Aquatic Acute 1	H400	H400	12
Aquatic Chronic 1	H410	H410	7
		H302	
		H332	
		H413	2
Acute Tox. 2	H330	H330	2
Aquatic Acute 1	H400	H400	
Aquatic Chronic 1	H410	H410	
Aquatic Acute 1	H400		1
Aquatic Chronic 1	H410	H410	

11. irudia: Pirenoa sailkatzeko adibidea jakinarazpenetan oinarrituta.

Informazioak fidagarritasun txikia duenez, jakinarazpenei buruzko informazioa kontuan hartu behar denean, honela jokatu da:

- Jakinarazpen-kopurua batzea (pirenoaren kasuan, 127).
- Sailkapen sinesgaitzak baztertzea (kasu horretan, pirenoa ez dela arriskutsua adierazten duten 37 jakinarazleen sailkapena baztertuz, gainerako 90 jakinarazleetako sailkapenak geratuko lirateke).
- Ezpurutasunen ondorioz –halakorik egonez gero– dauden sailkapenak baztertzea.
- Zenbat iakinazlek osatzen duten iakinazle "sinesgarri" guztien % 80

Pirenoaren adibideari jarraituz, grafiko honek baztertze-prozesua erakusten du:

Classification			Number of Notifiers
Hazard Class and Category Code(s)	Hazard Statement Code(s)	Hazard Statement Code(s)	
<del>Not Classified</del>			<del>37</del>
Skin Irrit. 2	H315	H315	66
Eye Irrit. 2	H319	H319	
STOT SE 3	H335 (not available)	H335	12
Aquatic Acute 1	H400	H400	
Aquatic Chronic 1	H410	H410	7
Aquatic Acute 1	H400	H400	
Aquatic Chronic 1	H410	H410	2
		H302	
		H332	2
		H413	
Acute Tox. 2	H330	H330	2
Aquatic Acute 1	H400	H400	
Aquatic Chronic 1	H410	H410	1
Aquatic Acute 1	H400		
Aquatic Chronic 1	H410	H410	

Descartado por inverosímil

≥80%

Descartado por minoritario

12. irudia: Substantzia bat jakinarazpenetan oinarrituta sailkatzeko irizpidea.

Kontuan hartuko diren sailkapenak identifikatu ondoren, H esaldiak bakarrik konbinatzea bakarrik faltako da.

Jakinarazpen maioritarioak kontuan hartzeko irizpide hori bat dator Batzordearen Komunikazioan xedatutakoarekin:

*"Bereziki jakinarazle-kopuru handiena erakusten duten autosailkapenak egiaztatzea komeni da".*

Horrela, pirenoak sailkapen hau izango luke:

Classification			Number of Notifiers
Hazard Class and Category Code(s)	Hazard Statement Code(s)	Hazard Statement Code(s)	
Skin Irrit. 2	H315	H315	66
Eye Irrit. 2	H319	H319	
STOT SE 3	H335 (not available)	H335	
Aquatic Acute 1	H400	H400	
Aquatic Chronic 1	H410	H410	
Aquatic Acute 1	H400	H400	12
Aquatic Chronic 1	H410	H410	

13. irudia: Pirenoa jakinarazpenetan oinarrituta sailkatzea.

Beraz, sailkapen harmonizatua eta erregistro-espedienteak hartuko dira kontuan. Ez bata ez bestea ez badaude, jakinarazpenen sailkapena hartuko da kontuan (kasurik txarrena, fabrikatzaileek emandako H esaldiak konbinatuz), informazio hori erabilgarri dauden beste iturri batzuekin osatuz (adibidez, segurtasun-datuen fitxak).

## 7.2 Ebakidura-balioak.

1272/2008 (EE) Erregelamenduak "ebakidura-balioak" definitzen ditu:

*"Substantzia batean edo nahaste batean dauden sailkatutako edozein ezpurutasun, gehigarri edo osagai indibidualetarako atalase-balioa. Balio **horren gaineratik** halakoak eduki behar dira kontuan substantzia edo nahasketa –dagokionaren arabera– sailkatu behar ote den erabakitzeko".*

Ebakidura-balio horrek adierazten du zer kontzentrazioetik gora hartu behar den kontuan arrisku-mota horretan sailkatutako substantzia bat (osagaia, gehigarria nahiz ezpurutasuna izan) hura daukan substantzia nagusia edo nahastea sailkatzeko.

Hala ere, Erregelamendu horren 11. artikuluan definizio horren aplikazioaren ñabardura bat dago, ebakidura-balioaren berdina den kontzentrazio bat aplika daitekeela baitio:

*"Substantzia batek arriskutsu gisa sailkatutako beste substantzia bat duenean, dela ezpurutasuna, gehigarria edo identifikatutako osagai indibiduala, sailkapenaren ondorioetarako kontuan hartuko da, baldin eta ezpurutasunaren, gehigarriaren edo identifikatutako osagai indibidualaren kontzentrazioa 3. atalaren arabera aplikagarria den ebakidura-balioaren berdina edo handiagoa bada".*

1357/2014 (EB) Erregelamenduak<sup>44</sup> (HP4. Narritagarría atalerako) honako hau xedatzen du:

*"Hondakin batek ebakidura-balioa baino kontzentrazio-maila handiagoa duen substantzia bat edo batzuk baditu, honako arrisku-mota eta -kategoriaren kode hauetako batekin eta arrisku-argibide batekin sailkatuta, eta honako kontzentrazio-muga hauek gainditzen edo berdintzen badituzte, hondakina HP4 arriskutsu gisa sailkatuko da".*

Batzordearen Gidaren arabera<sup>45</sup>, 1357/2014 (EB) Erregelamenduak xedatzen duenaren kontra, HP4rako baztertu egiten dira ebakidura-balioaren azpitik dauden kontzentrazioak dituzten substantziak. Alegia, ebakidura-balioaren kontzentrazio berean edo hortik gorako kontzentrazioan dauden substantziak bakarrik hartzen direla kontuan.

Batzordearen Komunikazioa bat dator gidan adierazitakoarekin, eta ebakidura-balioen aplikazioaren interpretazio hori HP4, HP6, HP8 eta HP14ra zabaltzen du, hau da, efektu gehigarrien ezaugarri guztietara. Beraz, bai Batzordeak eta bai gaur egun MITERDek egindako Gidak aipatzen dute **ebakidura-balioak baino kontzentrazio txikiagoak** dituzten substantziak soilik baztertu behar direla.

1357/2014 (EB) Erregelamenduan ebakidura-balioak eta hondakin bat sailkatzeko mugak bat etorrarazten dituzten bi kasu daude:

Ezaugarria	Substantzia	Ebakidura-balioa	Muga-balioa
HP4. Narritagarría.	Skin Corr. 1A H314	% 1	% 1
HP6. Toxikotasun akutua.	Acute Tox. 1 H300	% 0,1	% 0,1

21. taula: Muga-balioarekin bat datorren ebakidura-balioa duten arriskugarritasun-ezaugarriak.

<sup>44</sup> Beste ezaugarri batzuetarako, ez da zehazten kontzentrazioak ebakidura-balioa baino handiagoa edo berdina izan behar ote duen, idazketa hau baita: "Ebaluazioan ebakidura-balio hauek hartuko dira kontuan: (...)".

<sup>45</sup> C Eranskinaren C.4, C.6, C.8 atalak.

Ez luke zentzurik izango ebakidura-balioa gainditu beharreko balio gisa ulertzea.<sup>46</sup> Interpretazio horrekin, Skin Irrit 1A H<sub>314</sub> substantzia baten kontzentrazioa % 1ekoa edo handiagoa izango balitz, hondakina arriskutsua izango litzateke.

Beraz, Europako Batzordearen Gidaren, MITERDeK hondakinen sailkapenari buruz egindako Gidaren eta Batzordearen Komunikazioaren arabera, substantzien kontzentrazioa ebakidura-balioaren **berdina edo handiagoa** denean ulertuko da substantzia horiek kontuan hartu behar direla halakoak dituen hondakinaren arriskugarritasuna ebaluatzeko.

### 7.3 Kontzentrazio-mugak.

2014/955/EB Erabakiak honako hau adierazten du: "Hondakin-arriskugarritasunaren propietateak ebaluatzean, 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskinean ezarritako irizpideak aplikatuko dira". Halaber, hau aipatzen du: "Arriskugarritasun-ezaugarri bat hondakinean dauden substantzien kontzentrazioan oinarrituta ebalua daiteke, 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskinean adierazten den bezala, edo (...) saiakuntza bat eginez (...).

Beraz, hondakinak sailkatzeko kontzentrazio-mugak 1357/2014 (EB) Erregelamenduan eta 2017/997 Erregelamenduan jasotakoak dira, hain zuzen ere 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina aldatu duten bi arauak.

Batzuetan, muga horiek bat datoz 1272/2008 (EE) Erregelamenduarekin (adibidez, HP<sub>7</sub>ren kasuan. Kartzinogenoa), baina ez da beti hala gertatzen (adibidez, HP<sub>4</sub>ren kasuan. Narritagarrria). Argi geratzen da, beraz, Erkidegoko agintariek ez dutela lortu nahi hondakinen sailkapena CLP Erregelamenduak substantzia eta nahasteetarako ezartzen duen modu berean egitea<sup>47</sup>.

1357/2014 (EB) Erregelamenduan kontzentrazio-mugak oro har zehazten dira. Hau da, sailkapen jakin bat duten substantzia guztiei muga bera aplikatzen zaie (adibidez, H<sub>350</sub> substantzia guztietarako muga % 0,1 da).

Hala ere, 1272/2008 (EE) Erregelamenduaren VI. eranskinaren 3.1 taulan, muga orokor horiez gain, muga espezifikoak ere sartzen dira zenbait substantziarentzat (adibidez, bentzo(a)pirenorako H<sub>350</sub>rako muga % 0,01ekoa izango litzateke). Muga espezifiko horiek ez dira beti zorrotzagoak (adibidez, azido klorhidrikoaren kasuan H<sub>314</sub>rako muga

<sup>46</sup> Ebakidura-balioaren definizioa CLP Erregelamendutik dator, eta 11. artikuluan eta I. eranskinean esplizituki esaten da substantzia kontuan hartzen dela bere kontzentrazioa balio horren berdina edo handiagoa denean. Beraz, zentzuzkoa da adieraztea ebakidura-balioa berdintzea nahikoa dela substantzia sailkatzeko kontuan hartzeko, muga-balioa kontzentrazio-maila berean ezarrita baitago.

<sup>47</sup> 2008/98/EE Zuzentarauaren 14. kontuan hartuzkoak hau adierazten du: "Hondakinak hondakin arriskutsu gisa sailkatzeak **oinarri hartu behar** du, **besteak beste**, produktu kimikoei buruzko Erkidegoko araudia, bereziki prestakinak arriskutsu gisa sailkatzeari buruzkoa, horretarako erabiltzen diren kontzentrazioko muga-balioak barne". "Oinarri hartu behar du" esamoldeak esan nahi du CLP Erregelamendua interpretazio-elementu gisa har daitekeela, baina ez duela esan nahi substantziak eta nahasteak sailkatzeko arau guztiak hondakinen kasura estrapolatu behar direnik. 2017/997 Erregelamenduan M faktoreak kontuan hartu ez izanak ere hori erakusten du.

espezifikoa % 25 da). Horrenbestez, muga espezifikoak aplikatzeak ez du zorrotasun handiago edo txikiagoa inplikatzeko; kasuen arabera da.

Batzordearen Gidan eta Batzordearen Komunikazioan **soilik zehazten da muga espezifikoak erabili behar direla HP2 ezaugarria ebaluatzeko orduan**. Erregarria<sup>48</sup>. Europako herrialdeen artean, Erresuma Batuan erabili direla bakarrik jasota dago. Bertako gidan ohartarazten denez, muga espezifiko horiek aplikatu behar dira dokumentuak berak espresuki hala adierazten duenean bakarrik.<sup>49</sup> HP2. Erregarria eta HP14. Ekotoxikoa (azken kasuan, egia esan, M faktoreei egiten diete erreferentzia).

MITERDeK prestatutako Gidan, 42. orrialdeko koadroaren testuan hau adierazten da: "Kontzentrazio-muga espezifikoak eta M faktoreak" zutabean, substantzia batzuetarako kontzentrazio-mugak eta faktore biderkatzaileak sartzen dira sailkapenean kontuan hartu beharreko arrisku-mota eta -kategoria jakin batzuetarako. M faktoreei dagokienez, kontuan hartu behar da 2017/997 (EB) Erregelamenduan ezarritako hondakin baten ekotoxikotasuna (HP14) zehazteko gaur egungo metodoak ez duela M faktore biderkatzaileak aplikatzen. Testu horretatik ondorioztatzen da CLP Erregelamenduen VI. eranskinaren sarrera batzuetan sartutako muga-balio espezifikoak kontuan hartu behar direla hondakinak sailkatzeko garaian. Hala ere, ez da ezer adierazten hondakinen lege-testuaren muga-balio espezifikoei dagokienez, eta MITERDen Gidan eta Batzordearen Gidan HP2rako soilik egiten zaie erreferentzia.

Horregatik, hondakinak sailkatzeko helburuarekin, muga espezifikoak HP2 ezaugarria ebaluatzean soilik hartuko dira kontuan. Erregarria.

#### 7.4 Emaiza analitikoetan islatutako substantzia arriskutsuen kontzentrazioen interpretazioa.

Laborategiek eskaintzen dituzten karakterizazioen emaitzak materia lehorren mg/kg-tan adierazten dira normalean. Hala ere, hondakinak hezetasun-ehuneko jakin bat izango du beti; beraz, hondakineko substantzia arriskutsuen kontzentrazio erreala emaitza analitikoetan islatutakoa baino txikiagoa izango da.

Ministroen Kontseilu nordikoa<sup>50</sup> gai hori argitzea eskatzen duen puntu gisa islatzera mugatzen da. Britainiar Gidak zuzenketa egitea gomendatzen du, hondakinen gainsailkapena saihesteko. Hondakinen sailkapenari buruzko Europako Batzordearen Gidak eta Batzordearen Komunikazioak ere zuzenketa egin behar dela adierazten dute.

<sup>48</sup> Ikus Gidaren C eranskinaren C.2 atala edo Komunikazioaren 3. eranskinaren 3.2 atala.

<sup>49</sup> Guidance on the classification and assessment of waste (1st edition 2015) Technical Guidance WM3 (B6, C7 eta C48 orrialdeak).

<sup>50</sup> Hazardous waste classification. Amendments to the European Waste Classification regulation -what do they mean and what are the consequences? Margareta Wahlström, Jutta Laine-Ylijoki, Ola Wik, Anke Oberender and Ole Hjelmar. Nordic Council of Ministers 2015

Muga-balioak berak % (w/w) gisa adierazita daude, eta ez % (w/w dw) gisa; beraz, beti egin behar da hezetasunaren zuzenketa kutsatzaileak hondakinaren egoera fisikoan duen benetako kontzentrazioa ikusteko.

Horrenbestez, substantzia arriskutsuen kontzentrazioa ebaluatzeko, laborategiek zehaztutako analisi-emaitzak zuzendu beharko dira emandako hezetasun-ehunekoa erabiliz (eta, beraz, "hezetasun-ehunekoa" parametro hori eskatu beharko zaie hondakinen ekoizleei), edo laborategiari eskatu beharko zaio analisiaren emaitza pisu hezean adierazteko.


## 7.5 Analisisien emaitzetan islatutako ziurgabetasunen interpretazioa.

Proba analitiko orok ziurgabetasuna du lotuta, eta, beraz, irizpide argia eta egonkorra baliatu behar da interpretazioari dagokionez. Adibidez, elementu baten kontzentrazioa 10 mg/kg-koa bada eta ziurgabetasuna % zokoa bada, ezinezkoa izango litzateke ziurtatzea hondakinak substantzia horren 12 mg/kg baino gutxiago izatea. Eta, aitzitik, baliteke ekoizleak justifikatu nahi izatea ezin dela frogatu substantzia horrek hondakinean duen kontzentrazioa 8 mg/kg-tik gorakoa dela. Matematikoki, emaitza hori  $10 \pm 2$  mg/kg gisa adieraziko litzateke, eta " $\pm 2$  mg/kg" hori da "konfiantza-tartea" delakoa.

Europako Batzordeak ez du horri buruzko erabakirik eman ez bere Gidan ez eta Komunikazioan ere; beraz, nahitaezkoa da irizpide propio bat garatzea EAerako.

Administratuaren aldeko ziurgabetasuna interpretatzeak hondakinen infrasaillkapena ekarriko luke, ziurgabetasunak % 30-40koak izan daitezkeela kontuan hartuta (adibidez, PCBen kasuan). Baina alderantzizkoa egiteak, administratuaren aurkako ziurgabetasuna interpretatzeak alegia, gainsaillkapena ekarriko luke, auzitegietan zalantzazko pronostikoa sortuz zorrotzasun handiegiagatik eta "*in dubio, pro reo*" doktrina juridikoaren aurka jarduteagatik.

Inguruabar horiek guztiak bat datoz zenbakizko datu jakin baten arabera hondakin baterako arriskugarritasuna zehazten den atalasea emaitza horren konfiantza-tartearen barruan dagoenean. Behean, adibide grafiko bat:



14. irudia: Neurriak interpretatzeko agertokiak eta horien ziurgabetasuna muga-balioari dagokionez.

A kasuak ez du ebaluatutako arriskugarritasun-ezaugarria, bere konfiantza-tartearen goiko muga kontzentrazio-atalasearen azpitik dagoelako (hau da, kapitulu honetako lehen paragrafoaren zenbakizko ereduarekin jarraituz,  $10 \pm 2$  mg/kg-ko emaitza izango genuke, eta atalasea, adibidez, 13 mg/kg-koa izango litzateke). D kasuan, berriz, hondakinak ebaluatutako arriskugarritasun-ezaugarria du, bere konfiantza-tartearen beheko muga kontzentrazio-atalasearen gainetik dagoelako (adibidez, 13 mg/kg-ko atalasea eta  $16 \pm 2$  mg/kg emaitza). B eta C kasuek, azkenik, atalasearen gainjartze bat erakusten dute konfiantza-tartearekiko (adibidez, 13 mg/kg-ko atalasea eta  $12 \pm 2$  mg/kg-ko emaitzak [B kasuan] edo  $14 \pm 2$  mg/kg-koak [C kasuan]).

B eta C kasuak, halako gaiei aplikatzen zaizkien irizpide matematiko-zientifikoak zehatz-mehatz aplikatuz, saiakuntza ez-erabakitzailerak izango lirateke formalki, eta, beraz, karakterizazioa berriro egitea komeniko litzateke. Horrek nabarmen eragingo lieke hondakinaren kostuari eta, batez ere, operatibari, metaketari/pilaketari eta kudeaketari (edo kudeaketarik ezari, karakterizazioaren emaitza argitu arte). Gainera, hondakinen arriskugarritasunaren esparruan dauden saiakuntza analitikoak eta laborategien errealitatea dela-eta (ikus "Saiakuntza eskuragarriak eta halakoak egiten dituzten laborategien azterketa prospektiboa" 13. eranskinen), merkatuan dauden saiakuntza guztiak ez daude ENACek edo multilateralitate-akordioen erakunde sinatzaileek egiaztatuta. Horrek esan nahi du egiaztatzen ez diren saiakuntzek ez dutela zertan saiakuntza edo konfiantza-tartearen ziurgabetasuna kuantifikatuta izan, egiaztatutako saiakuntzen kasuan ez bezala.

Horregatik guztiagatik, eta alderdi operatibo hutsak direla-eta, ez da gomendatzen hondakin baten arriskugarritasunaren balorazioa egindako saiakuntza bakoitzaren ziurgabetasunaren mende jartzea, nahiz eta saiakuntza bakoitzari lotutako ziurgabetasuna adierazita egon, betiere saiakuntza- eta ikuskapen-txostenetan kalkulatu bada (egiaztatutako saiakuntzen kasua).



Aurreko adibideko B edo C egoerak gertatzen badira (konfiantza-tartearen eta arriskugarritasun-atalasearen gainjartzea), gomendatzen da lehentasuna ematea zenbakizko emaitzari ziurgabetasuna kontuan hartu gabe; kasu horietan, ingurumen-organok ebaluatu ahal izango du beste karakterizazio bat eskatzeko aukera, gehienez ere urtebeteko epean, emaitza finkatzeko edo desanbiguatzeko. Printzipioz, kasu honek ez du zertan oso arrunta izan, eta administratuak prozedura hori puntualki jarraitu beharko du lehen arriskutsu gisa definitutako hondakin bat desklasifikatu nahi duenean bakarrik. Emaitzak erabakigarriak izan arte, administratuak hondakina arriskutsu edo ez-arriskutsu gisa kudeatzen jarraitu ahal izango du, eskura duen karakterizazio berrienaren arabera egiten zuen moduan, betiere emaitza eztabaida ezinak eskaintzen baditu.

Bai lehenengo karakterizazioan, bai berrespen/desanbiguazioko hurrengoetan, Gida honetako 9.1. atalean (Laginak hartzea) ezarritako egiaztatze-eskakizunak eta arau teknikoak betetzeko eskakizunak aplikatu beharko dira beti.

Beraz, hondakinen sailkapena ebaluatzeko, kontuan hartuko da substantzia arriskutsuen kontzentrazioa analitikan islatzen dena izango dela (hezetasuna zuzenduta), ziurgabetasuna kontuan hartuta. Ziurgabetasunak –berriki azaldutako guztiagatik– balorazioa baldintzatu badezake 1357/2014 (EB) Erregelamenduaren mugen aurrean (balorazio ez-erabakitzailea), proposatuko da lehenik eta behin hondakina sailkatzea eta kudeatzea lehen erreferentzia-balioaren emaitzen arabera (ziurgabetasuna aplikatu gabe). Nolanahi ere, ingurumen-organok aditu-iritziaren arabera baloratuko du gaia, eta kontuan hartuko du karakterizazio berriak eskatzeko aukera, gehienez ere urtebeteko epean, emaitza berresteko.

# 8 ■ Kasu bereziak

Hondakin batzuk ebaluatzea bereziki zaila da, eta, beraz, atal berezi bat merezi dute, sailkatzeko prozesuan aplikatu beharreko irizpideak jasotzen dituen.

## 8.1 1. kasu berezia. Metaldun hondakinak.

Metal batzuk hainbat hondakin motatako ohiko kutsatzaileak dira, eta, beraz, irizpiderik argiena hartu behar da haien arriskua ebaluatzeko. Sarritan, metal astunak substantzia kartzinogeno eta/edo ekotoxiko gisa sailkatzen dira, eta, beraz, hondakinei arriskugarritasun-ezaugarriak eman diezazkieketen kontzentrazio-mugak gutxi dira.

Atal honetatik kanpo geratzen dira forma trinkoko (substantzia arriskutsuekin kutsatu gabeak) metal puruen **aleazioak**. Horiei dagokienez, Zuzentarauaren III. eranskineko kontzentrazio-mugak ez dira aplikagarriak izango 2014/955/EB Erabakiaren arabera.

Hondakin bat aleazio bat denean edo aleazio trinko bat duenean, ez dira aplikatuko araudiaren mugak, 2014/955/EB Erabakian berariaz hala adierazita. Hitzez hitz, bazterketa ez da forma trinkoko edozein metali buruzkoa, forma trinkoko aleazioei buruzkoa baizik. 2014/955/EB Erabakiaren testuak ez du zalantzarik sortzen: **metal puruen aleazio trinkoak**<sup>51</sup>. Hala ere, egia da desberdina dela metalak modu puruan edo aleatuan egotea. Hondakin guztiz ez-arriskutsuaren kodea esleitzen zaien metalak (aleatuak ala ez) hondakin ez-arriskutsuak izango dira nolana ere, sailkapen harmonizatua edozein dela ere. Europako zerrenda aztertuz gero, ikusten da oro har hondakin guztiz ez-arriskutsuen kodeak esleitzen zaizkiela metalei:

### 02 01 Nekazaritzaren, baratzezaintzaren, akuikulturaren, basogintzaren, ehizaren eta arrantzaren hondakinak.

02 01 10 Hondakin metalikoak.

### 12 01 Metalen eta plastikoen gainazalaren moldekatzearen eta tratamendu fisiko eta mekanikoaren hondakinak.

12 01 01 Burdin metalen karraka-hautsa eta txirbilak.

12 01 02 Burdin metalen hautsa eta partikulak.

12 01 03 Metal ez-burdinazkoen karraka-hautsa eta txirbilak.

<sup>51</sup> Ingeleseko bertsioan: *pure metal alloys in their massive form*; frantsesezko bertsioan: *alliages de métaux purs sous leur forme massive*. Espainiako bertsioak "forma trinkoa" aipatzen du, "forma masiboaren" adierazpen analogoa. Izan ere, CLP Erregelamenduan, ingelesezko eta frantsesezko bertsioek "massive form" edo "forme massive" aipatzen dituzte (2014/955/EB Erabakian bezala), eta gaztelaniazkoak "forma masiva".

12 01 04 Metal ez-burdinazkoen hautsa eta partikulak.

**15 01 Bilgarriak (udaletako gaikako bilketako bilgarrien hondakinak barne).**

15 01 04 Metalezko bilgarriak.

**16 01 Garraiobide desberdinetako ibilgailuak (errepidekoak ez diren makinak barne) beren bizitza baliagarriaren amaieran eta ibilgailuen bizitza baliagarriaren amaierako desegite-hondakinak eta ibilgailuen mantentze-lanetakoak (13. eta 14. kapitulu- etakoak eta 16 06 eta 16 08 azpikapitulu- etakoak izan ezik).**

16 01 17 Burdin metalak.

16 01 18 Metal ez-burdinazkoak.

**17 04 Metalak (beren aleazioak barne) <sup>52</sup>.**

17 04 01 Kobrea, brontzea, letoia.

17 04 02 Aluminioa.

17 04 03 Beruna.

17 04 04 Zinka.

17 04 05 Burdina eta altzairua.

17 04 06 Eztainua.

17 04 07 Metal nahasiak.

**19 10 Metaldun hondakin zatikatuetatik datozen hondakinak.**

19 10 01 Burdin eta altzairu-hondakinak.

19 10 02 Hondakin ez-burdinazkoak.

**19 12 Hondakinen tratamendu mekanikoaren hondakinak (esaterako, sailkapena, birrintzea, trinkotzea, pelletizazioa), beste kategoria batean zehaztu gabeak.**

19 12 02 Burdin metalak.

19 12 03 Metal ez-burdinazkoak.

**2001 Gaika bildutako frakzioak (15 01 azpikapitulu- an zehaztutakoak izan ezik).**

20 01 40 Metalak.

Beraz, praktikan, hondakin bat metal bat (hondakin bihurtzen den metala) denean, ez da arriskutsua izango, hondakin guztiz arriskutsuaren berariazko kodea aplikatzen denean izan ezik. (adibidez, 16 03 07\* Metalezko merkurioa).

Egoera aldatzen da metalak dituzten hondakinak direnean (metalak izango lirateke hondakina kutsatzen duten substantziak). Adibidez, ibilgailuak bizitza baliagarriaren amaieran zatikatzeko instalazioen kasuan, 19 10 02 kodea metal ez-burdinazko hondakinei esleituko litzaieke (hondakin guztiz ez-arriskutsuaren kodea), metal-mota edozein dela ere. Baina zatiketaren frakzio arinerako, berriz, 19 10 03\* edo 19 10 04 kodea egokia ote den ebaluatu beharko litzateke, metalen edukiaren arabera, besteak beste.

<sup>52</sup> 17. kategoriako kodeak eraikuntza- edo eraipen-jardueretan sortutako hondakinei soilik dagozkie.

Ebaluazioan, hondakinean dauden metal guztien edukia hartu beharko da kontuan, modu trinkoan, hautsean, partikulatan eta abarretan daudela ere.

Behean, hondakinak beruna duenean nola jokatu adieraziko da:

Batzordeak berunaren sailkapen harmonizatu berria argitaratu zuen CLPko 9. ATP<sup>53</sup> bidez (2016-07-19). Erregelamenduaren kontuan hartuzkoen artean, hau aipatzen da:

---

*"Berunari dagokionez, RACek, 2013ko abenduaren 5eko bere irizpen zientifikoan, ugalketarako 1A kategoriako toxiko gisa sailkatzea proposatu zuen. Hala ere, berunaren bioerabilgarritasun masiboari buruzko ziurgabetasuna dagoenez, nahitaezkoa da bereizketa egitea forma masiboaren (1 mm-tik gorako tamainako partikulak) eta hauts-formaren (1 mm-tik beherako partikulak) artean. Bidezkoa da, beraz,  $\geq 0,03\%$  kontzentrazio-muga espezifiko (KME) bat sartzea hauts-formarako eta  $\geq 0,3\%$  kontzentrazio-muga generikoa (KMG) forma masiborako".*

---

Sailkapen harmonizatu horren arabera, beruna toxikoa da H360 ugalketarako, presentziaren tamaina edozein dela ere. Beraz, berunezko hondakin bat H360 substantzia arriskutsua duen hondakina da. Premisa horrekin, 1357/2014 (EB) Erregelamenduak honako arau hau eskaintzen du HP10erako:

---

*"Hondakin batek arrisku-mota eta -kategoriako eta arrisku-argibidearen kode hauetako batekin sailkatuta dagoen substantzia bat badu, eta 7. taulan adierazitako kontzentrazio-mugetako bat gainditzen edo berdintzen badu, hondakina HP10 arriskutsu gisa sailkatuko da:*

---

<sup>53</sup> Batzordearen 2016ko uztailaren 19ko 2016/1179 (EB) Erregelamendua, substantziak eta nahasteak sailkatzeari, etiketateari eta ontziratzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1272/2008/EE Erregelamendua aldatzen duena aurrerapen zientifiko eta teknikora egokitzeari dagokionez.

Arrisku-mota eta kategoriaren kodeak	Arrisku-argibidearen kodeak	Kontzentrazio-muga
Repr. 1A Repr. 1B	H360	% 0,3
Repr. 2	H361	% 3

22. taula: Arrisku-mota eta -kategoriaren kodeak eta arrisku-argibidearen kodeak HP10 arriskutsu gisa sailkatzeko, eta kontzentrazio-mugak.

Beraz, beruna % 0,3ko edo gehiagoko kontzentrazioan duen hondakina hondakin arriskutsu gisa sailkatu behar da<sup>54</sup>. Eta, era berean, hondakina beste edozein metalekin (kadmioarekin, merkurioarekin, etab.) kutsatuta egongo balitz dagozkion mugen pareko edo handiagoko kontzentrazioetan, arriskutsu gisa sailkatu beharko litzateke.

### 8.1.1 Forma trinkoa eta hauts-forma

Batzuetan, metalezko elementuak arriskutsuagoak dira hauts gisa forma masiboan baino, eta hala islatzen du metal batzuen sailkapenak. Hondakinen sailkapenari buruzko Europako Batzordearen Gidak hau aipatzen du hori dela-eta:

*"Legeriak ez duenez "forma masiboa" definitzen, Estatu Kide batzuek > 1 mm-ko partikula-tamaina (diametroa) erabiltzen dute metalak "forma masiboan" sailkatzeko muga gisa, "hautsen" aldean.*

Kontseilu nordikoa argia da horri dagokionez:

*"Metal bat modu masiboan ez-arriskutsu gisa sailkatuta egon daiteke, baina bere forma partikulatua (adibidez, Cu eta Zn hautsak) arriskutsu gisa sailka daiteke. Forma masiboaren eta partikulatuaren arteko hesia 1 mm-ko tamainan ezartzen da normalean".*

<sup>54</sup> Europako Hondakinen Zerrendan kode bat agertzen da, 170403 Beruna, eta hondakin guztiz ez-arriskutsua da. Hori ez da koherentea dokumentu honetan orain arte azaldutakoarekin. Hala ere, kontuan izan behar da Zerrendaren azken bertsioa 2014ko amaierakoa dela, eta berunaren sailkapena 2016ko uztailakoa dela eta 2018ko martxoan sartu dela indarrean. Beraz, EHZ 170403 gisa hartzea zaharkituztat jotzen da, Zerrenda aurrerapen teknikora egokituta ez egoteagatik.

ECHAren baitan eztabaida handia egon da berunaren sailkapenari buruz modu masiboan. Industriaren alegazioak gorabehera, azkenean Arriskuen Analisisiko Batzordeak bere proposamenari (H360) eustea erabaki zuen forma fisiko guztietarako, besteak beste berunaren gainazala forma masiboetan ere PbO-ra berehala oxidatzen delako, bioerabilgarritasun handiagoa duen eta giza osasunari eragin diezaiokeen konposatua (informazio gehiagorako: Committee for Risk Assessment. RAC Opinion proposing harmonized classification and labelling at EU level of Lead. Adopted 5 December 2013).

Halaber, MITERDen Gidak adierazten du metalak < 1 mm-ko granulometria batera daudenean CLPko hautsetarako sailkapen harmonizatua erabili beharko dela, betiere hondakina zuzenean arriskutsu gisa sailkatzen ez bada.

1 mm-ko mugaren benetako jatorria substantziak eta nahasteak sailkatzeko sistematik dator. Hasiera batean partikularen bereizketa hori ekotoxikotasuna ebaluatzeko T/D protokoloari dagokionez erabiltzen zen<sup>55</sup>, baina gaur egun osasunerako arriskueterako ere erabiltzen da. Erreferentzia eguneratuagoa dago CLP irizpideak aplikatzeko ECHAren Gidan:

*"1 mm-ko diametroa baino partikula-tamaina txikiagoa duten metalei kasuz kasuko saiakuntzak egin ahal izango zaizkie. Horren adibide bat da metal-hautsak beste ekoizpen-teknika batek ekoizten dituzenean, edo hautsek sailkapen zorrotzagoa eragiten duen forma masiboak baino disoluzio-tasa (edo erreakzio-tasa) handiagoa eragiten dutenean.*

Sailkatzeko eta etiketatzeko ebaluatutako eta/edo erabilitako partikulen tamainak ebaluatu beharreko substantziaren araberakoak dira, eta beheko taulan erakusten dira:

Tipo	Tamaño de partícula	Comentarios
Componentes metálicos	El menor tamaño representativo	Nunca mayor de 1 mm
Metales-Polvo	El menor tamaño representativo	Es necesario considerar diferentes fuentes si se obtienen diferentes propiedades cristalográficas/morfológicas
Metales-Forma masiva	1 mm	El valor predeterminado puede modificarse si existe suficiente justificación

*15. irudia: Sailkatzeko eta etiketatzeko ebaluatutako eta/edo erabilitako partikulen tamainak.*

Forma masiboa, normalean, 1 mm-ko partikula-tamainarekin probatuko da. Bestela, gainazal-eremu desberdineko materialen T/D saiakuntzak disoluzio zinetikoko ekuazio oso fidagarriak eman ditzake, arrisku akutuak eta epe luzera ebaluatzeko 'Partikula kritikoen diametroa' (CPD) definitzeko aukera ematen dutenak.

Beraz, ECHAren arabera, merkaturatze jarritako metalekin saiakuntzak egin behar dira merkaturatzeko moduaren adierazgarriak diren partikula-tamainetatik txikienarekin. Eta emaitzak forma masiborako egokiak ez direnean, saiakuntza berriak egin daitezke 1 mm-ko partikulekin, kontrako arrazoirik ezean. Aurrekoarekin bat datorren zentzu batean hitz egiten du GHSren (Sistema Global Armonizatuaren) 10. eranskinak.

<sup>55</sup> OECD Series on Testing and Assessment. Number 29. Guidance document on transformation/dissolution of metals and metal compounds in aqueous media

Erregela hori aplikatuz, metalek baliozko sailkapen bakarra izan dezakete hautsarentzat eta forma trinkoarentzat, edo bi sailkapen izan ditzakete, merkaturatze-modu bakoitzerako bat.

Sailkapen bikoitz hori dagoenean, hondakin bat sailkatzeko orduan, sailkatu beharreko hondakinean dagoen metalaren partikula adierazgarriaren tamainari dagokiona erabili beharko da.

Behean, 24. taulan, Berunaren adibidea ikus daiteke: sailkapen desberdina du partikula-tamainaren arabera:

Nazioarteko kimikoa	izendapen	Sailkapena Arrisku-argibidearen kodeak	Kontzentrazio-muga espezifikoak eta faktoreak	M
Berun-hautsa; [<1 mm-ko diametroak]	partikula-	H374		
		H302	10	
		H333	25	
		H360FD	22,5	
		H400	0,3	
		H410	25	
Hauts masiboa; [≥ 1 mm-ko diametroak]	partikula-	H373	10	
		H302	25	
		H332	22,5	
		H360FD	0,3	
		H400	25	
		H410	0,25	

23. taula: Beruna partikula-tamainaren arabera sailkatzeko adibidea.

CLPren VI. eranskina eta erregistro-espeditenteak kontuan hartuta, beheko taulak metalen gaur egungo sailkapena jasotzen du tamainaren arabera (arrisku-argibidearen kodea, H esaldia, bakarrik islatzen da, muga zorrotzagoarekin):

	Masiboa		Hautsa	
	Harmonizatua	Erregistroak	Harmonizatua	Erregistroak
Antimonioa				H351
Artsenikoa	H410			
Berilioa	H350			
Kadmioa	H350			H350
Kobaltoa	H334	H350		H350
Kobrea				H400 / H412
Kromoa				
VI kromoa				
Eztainua				
Merkurioa	H360			
Molibdenoa				
Nikela	H351		H351	
Beruna	H360		H360	H410
Selenioa	H301			H301
Teluroa		H360		H360
Talioa	H300			
Zinka			H410	

24. taula: Arrisku-argibidearen kodeak metalen partikula-tamainaren arabera.

Ikus daitekeenez, gaur egun sailkapen bakarra dago Sb, Co, Cd, Cu, Pb, Ni, Se, Te eta Zn hautsetarako. Horietatik guztietatik, garrantzitsuak diren bakarrak (forma masiboenak baino okerragoak direlako) hauek izango lirateke: Sb, Cu, Pb eta Zn.

CLPren VI. eranskinean 1 mm soilik aipatzen da Ni eta Pb-rako hesi gisa. Granulometria adierazi gabe ere, Zn-erako ere sailkapen bat jasotzen da hauts-formarentzat (sailkapen bikoitza, forma piroforikorako eta egonkorturako).

Hala ere, lehen esan den bezala, garrantzi handikotzat jotzen da erregistroen sailkapena ez ahaztea, horietatik H esaldi berriak ateratzen baitira gainerako hauts-metalentzat, aurreko taulan jasotakoaren arabera.

Horregatik, hautsezko hondakinen kasuan metal-edukiak hauts-formarako mugak gainditzen dituenean (CLPren VI. eranskinean edo erregistroetan sailkapen harmonizatua izango balu), karakterizazioa findu beharko litzateke, hondakina bahetuz.

Enpresak beste lagin-hartze bat kontratatuzera behartuta egon ez daitezen, hautsezko hondakinak direnean, kostuaren/helburuaren balantzaren arabera, metalak ezaugarritzeko eskakizunetan gomendatuko da beharrezkoa den kantitatearen bikoitzaren lagina hartzea, < 1 mm-ko frakzioaren analisia egin behar izango balitz, edo hasiera batean, granulometriaren determinazio bat (bahetua) egin beharko balitz, egiaztatze



hondakinaren zer masa-ehuneko dagoen 1 mm-tik behera, eta frakzio horren gainean dagokion metala zehazteko frakzio hori adierazgarria balitz (> % 90).

### 8.1.2 Karakterizazioaren xede diren metalak.

Hondakin batek metalak eduki ditzakeenean, horien edukia zehaztu beharko da, kutsatzaile horien izaera eta kontzentrazioa identifikatzeko.

Kasu bakoitzaren egoera espezifikoak kontuan hartuta, zein elementu karakterizatu behar diren baloratuko da. Hala ere, oro har, hau da aztertu beharko liratekeen metalen zerrenda:

Antimonioa, artsenikoa, berilioa, kadmioa, kobaltoa, kobrea, kromo totala, kromoa (VI), eztainua, merkurioa, molibdenoa, nikela, beruna, selenioa, talioa, telurioa eta zinka.

2014/955/EB Erabakiaren "metal astunen" definizioan<sup>56</sup> jasotako elementu guztiak sartu dira, baita laborategiek eskainitako paketeetan sartutako beste metal batzuk ere.

### 8.1.3 Konposatu metalikoak

Metalek sailkapen desberdina dute oinarritzko formaren edo konposatu desberdinen arabera, eta, jakina, konposatu desberdinen arriskugarritasuna ere alda daiteke (eta aldatu ohi da).

Errutinazko laborategiek ez dute lortzen metalak espezializatzea, hau da, ez dute adierazten metal bat elementu edo konposatu gisa ote dagoen. Hori teknika konplexuen bidez egin daiteke (X izpien difrakzioa, etab.), baina horren kostua oso altua da (> 1.500 € elementu bakoitzeko), eta CSICera edo bestelako laborategi "berezi" batzuetara jo behar da.

Metalak dituen hondakin bat sailkatzeko, funtsezkoa da zehaztea metala oinarritzko forman edo konposatu gisa eta horietako zeinetan dagoen.

Enpresa ekoizleari aukera emango zaio metalak bere lehengaietan eta prozesuetan oinarrituta aurkezten diren modua justifikatzeko (salbuespen gisa, laborategiko tekniken bidez).

Justifikaziorik izan ezean, zuhurtziak gomendatzen du metalak konposatu gisa daudela pentsatzea, sailkapena beti txarragoa baita.

<sup>56</sup> "Metal astuna: hauen edozein konposatu: antimonioa, artsenikoa, kadmioa, kromoa (VI), kobrea, beruna, merkurioa, nikela, selenioa, telurioa, talioa eta eztainua; bai eta substantzia horiek beren metal-forman ere, betiere substantzia arriskutsu gisa sailkatuta badaude".

Metala konposatu gisa dagoela onartu ondoren, baina zein den jakin gabe, hurrengo kontua da zehaztea zein konposatu erabili behar den "erreferentzia" gisa H esaldiak metalari esleitzeko. Bi kasu gerta daitezke:

- "...ren konposatuak"<sup>57</sup> sarrerarako sailkapen harmonizatu generikoa dagoenean, sailkapen hori hartuko da, dagokion metalaren konposatu guztiak modu konbentzionaletan ordezkatzeko baititu (sailkapen espezifikoak dutenen kasuan izan ezik).
- "...ren konposatuak" sarrerarik ez dagoenean, aukera emango zaio enpresa ekoizleari metala zer konposatutan aurkezten den justifikatzeko. Eta, zalantzarik izanez gero, konposaturik txarrena hartuko litzateke<sup>58</sup> (ahal bada, gertagaitzak baztertuz).

Batzordearen Komunikazioak ohartarazten du "*hipotesirik txarrenean dauden substantziak arriskugarritasun-ezaugarri bakoitzari dagokionez zehaztuko direla*".\_Hau da, ez da nahikoa HP ezaugarri posible guztiak ebaluatzeko konposatu adierazgarri bat hartzea: horietako bakoitzerako konposaturik txarrena aintzat hartu behar da, baldin eta tarteko prozesuaren eta lehengaien arabera guztiz gertagaitza den konposatua ez bada.

Nolanahi ere, hurrengo zeregina izango da metalaren kontzentrazioa (analisi-txostenean islatua eta hezetasun-ehunekoarekin zuzendua) konposatuaren kontzentrazio bihurtzea, bi aukera kontuan hartuta:

- "...ren konposatuak" sarrera baten aurrean gaudenean, baliteke sailkapen harmonizatuan "1. oharra" sartzea (CLPren VI. eranskinaren 3.1 taulako azken zutabea). Ohar horrek hau esan nahi du:

*"Ezarrirako kontzentrazioa –edo, kontzentrazio ezean, Erregelamendu honen kontzentrazio generikoak (3.1 taula) edo 1999/45/EE Zuzentarauaren kontzentrazio generikoak (3.2 taula)– elementu metalikoaren pisuaren ehunekoak da, nahastearan guztizko pisuarekiko kalkulaturik".*

Hau da, 1. oharra badago metal horren konposatuarentako, elementuaren kontzentrazioetik abiatuta egin behar da ebaluazioa (hezetasun-ehunekoak zuzenduta), eta ez da beharrezkoa izango forma konposatuari dagokiona

<sup>57</sup> Sarrera dago hauen konposatuarentako: berilioa, kromoa (VI), artsenikoa, selenioa, kadmioa, antimonioa, merkurioa, talioa, beruna eta uranioa; bai eta bario-gatzetarako ere.

<sup>58</sup> Hala egiten da Frantziaren, Flandesen ez bezala, "eredu" gisa erabiltzen baita kloruro-forma, kromo VIrako izan ezik, trioxidoa erabiltzen baitu. Batzordearen Komunikazioak Frantziaren bidea jotzen du egokituz: "hipotesi errealista txarrena" hartu behar da identifikatutako elementu bakoitzari dagokionez.

kalkulatzea. 1. oharra kasu hauetan dago: beruna, merkurioa, antimonioa, kadmioa eta artsenikoa.

- Hondakinaren ekoizleak espezie metaliko jakin bat dagoela justifikatzen badu (bai 1. oharrik gabeko “...ren konposatuak” sailkapena badago, bai sarrera hori ez badago ere), kontzentrazioa bihurtzeko eredu-konposatu bat ezarri behar da elementuaren masa atomikoa eta konposatuaren pisu molekularra erabiliz.

1. oharrik ez badago, baina enpresak zer konposatu den justifikatzen badu, konposatu horren pisu molekularra erabiliko da; bestela, HP bakoitzerako arriskugarritasun handiena duen konposatuaren pisu molekularra hartuko da (ez konposatu astunena).<sup>59</sup>

## 8.2 2. kasu berezia. Hidrokarburoekin KUTSATUTAKO HONDAKINAK.

“Metalak” bezala, TPHak funtsezko parametroa dira hondakinak sailkatzeko, substantzia horiek kasu askotan agertzen direlako eta hondakinen arriskugarritasuna ezartzen diren mugen baitan dagoelako.

Hondakinean dagoen hidrokarburoari dagokion sailkapena aplikatuko da, dagoen kontzentrazioetik abiatuta, baina hori posible izango da soilik **hidrokarburoa identifika daitekeenean, betiere hidrokarburo horrek degradaziorik edo konposizio-aldaketarik izan ez badu.**

Kasu askotan, ez da jakingo zein den hidrokarburoa, eta horrelakoetan TPHaren ehuneko jakin bat islatzen duen zehaztapan analitiko bat baliatuko da.<sup>60</sup> Kasu horietarako, sailkapen “estandar” bat eduki behar da. Hura gabe, hidrokarburoa zein den ezagutzen ez bada, ezin izango litzateke sailkapen egokirik egin:

- Ez litzateke ezagutuko hidrokarburoaren sailkapena (haren arrisku-argibideko kodeak); beraz, ezingo lirateke aplikatu 1357/2014 Erregelamenduaren (EB) mugak.
- H esaldiak ezagutzen ez direnez, hondakinak ere ezingo lirateke saiakuntza bidez sailkatu. Kartzinogenesia eta teratogenesia ohikoak dira hidrokarburoen artean, baina praktikan ezin da horrelako saiakuntzarik egin.

**Europako Batzordeak**, bere Gidan eta bere Komunikazioan, aitortu zuen ingurumen-organoeak ahalmena dutela substantzia organikoen multzoetarako sailkapen

<sup>59</sup> Kontuan hartu behar dira sailkapen desberdinak dituzten konposatu batzuen hidrato posibleak ere.

<sup>60</sup> TPHak normalean C<sub>10</sub>-C<sub>40</sub> frakzioak izaten dira, eta merkatuan nahikoa eskaintza dago hauen frakzioaren araberako kontzentrazio-datuak lortzeko: GRO/DRO (< C10 kateak dituzten hidrokarburoak), hexanoa, BTEX eta beste disolbatzaile lurrunkor edo hidrokarburo arinak, sailkapena doitzeko edo, gutxienez, hidrokarburo-frakzio bakoitzak guztizkoan duen pisua bereizteko.

konbentzionalak ezartzeko, eta espresuki aipatu zituen hidrokarburo totalen eta hidrokarburo aromatiko poliziklikoen kasuak.

**Flandesek**<sup>61</sup> sailkapen jakin bat ezartzen du TPHetarako, eta sailkapen horretara iritsi da CONCAWEren gomendioak<sup>62</sup> erabiliz. **Erresuma Batuak** antzeko sailkapen bat erabiltzen du, eta sailkapen horren oinarria ez da gidan azaltzen, baina, ondorioak ikusita, iturri berean oinarritzen da.

CONCAWEren agiriak erabilgarri dagoen abiapunturik onentzat hartzen dira, petroliotik eratorritako substantzia guztien erregistroak landu dituen Europako Elkartea baita:

- Hidrokarburoen sailkapena sailkapen harmonizatua baino askoz ere osatuagoa (eta aurkakoa) da.
- Beste herrialde eta eskualde batzuek ez ezik, PGLk ere iturri hori hartzen du erreferentziazat<sup>63</sup>.

Abiapuntu horrekin, hidrokarburo-familia guztietarako arrisku-argibideko kode posible guztiak konbinatuz, TPHak izan daitezke:

- Sukoia (H224, H226)
- Narritagarria (H315)
- STOT/Asp Tox (H304, 372, 373, 336)
- Tox. akutua (H332)
- Kartzinogenoa (H350, H351)
- Repr. (H361)
- Mutagenoa (H340)
- Ekotoxikoa (H400, H410, H411)

Flandesen konponbidea da sailkapenak kasurik txarrena islatzea, H esaldi txarrenak batuz:

- H224 Likido sukoia
- H315 Narritagarria
- H304 Arnasteagatiko toxikoa

<sup>61</sup> Europese afvalstoffenlijst EURAL Handleiding. OVAM.

<sup>62</sup> Hazard classification and labelling of petroleum substances in the European Economic Area – 2017: [https://www.concawe.eu/wp-content/uploads/2017/11/Rpt\\_17-13.pdf](https://www.concawe.eu/wp-content/uploads/2017/11/Rpt_17-13.pdf)

<sup>63</sup> Adibidez, L - % 3 DMSO- oharra KONCAWEtik dator

- H372 STOT
- H350 Kartzinogenoa 1B kat.
- H361 Ugalketarako toxikoa 2 kat.
- H340 Mutagenoa 1 kat.
- H410 Ekotoxiko kronikoa 1 kat.

H esaldi horiek erabiliz, argi dago TPHdun hondakinen gainsailkapen bat sortuko litzatekeela, hidrokarburorik arriskutsuenak ere ez baititu arriskugarritasun-ezaugarri guztiak biltzen.

Dokumentu honetan garatutako irizpideari dagokionez, oinarria bera da, baina Flandesekiko ñabardura batzuk ditu:

- Baztertu egiten da sukoitasuneko H224 eta H226 esaldiak modu orokorrean TPH guztiei aplikatzea, esaldi horiek erregaiei eta disolbatzaileei (petrolioaren frakzio arinak) dagozkielako nagusiki. Disolbatzaileek, gasolinak edo dieselak esku hartzen duten kasuak identifikatzen errazak izango lirateke, eta detektatuz gero, jada ez litzateke aplikatuko TPHen sailkapen "estandarra", identifikatutako substantzia edo nahaste zehatzari dagokiona baizik (*ikus 8.2. atala*).
- Narritagarrria (H315) ezaugarria ez da benetan adierazgarria, eta are gehiago H319 arrisku-argibideko kodea ez dagoenean; izan ere, bi arrisku-argibideen batura da, eta horrek TPHren % 2oko muga aplikatzera eramango luke hondakin bat arriskutsu gisa sailkatzeko. Hain muga altuarekin, ezaugarri hori ez da garrantzitsua, TPHdun hondakinak beste ezaugarri batzuen arabera sailkatuko liratekeelako. Hala ere, HP4 ezaugarria ebaluatu beharko litzateke hidrokarburoetan eduki handia duen hondakina bada.
- Arnasteagatiko toxikotasuna, H304, Batzordearen Gidak xedatzen duen bezala, hondakinak fase likido bat duenean bakarrik aplikatuko da. Gainera, muga % 10ekoa izango litzateke, H373ri aplikatzekoa denarekin bat etorritz. Beraz, H304 hondakin ez-fluidoaren kasuan alde batera utz daiteke.
- STOTi dagokionez, printzipioz H372 edo H373 ote dagokion zalantza dago. Sailkapen harmonizatuan H372 hiru substantziari<sup>64</sup> bakarrik esleitzen zaie, "White spirit"aren formulazio desberdinak. TPHen kasu orokorrari H372 esleitzeko aukera kontuan hartzen da CONCAWEren gomendioen ondorioz<sup>65</sup>, erakundeak

<sup>64</sup> 64742-82-1 CAS zk. (Nafta (petrolio), bentzenoaren edukia pisuaren <% 0,1); 8052-41-3 CAS zk. (Stoddard disolbatzailea); eta 64742-88-7 CAS zk. (Nafta disolbatzailea (petrolio), tarteko alifatikoa).

<sup>65</sup> H372 arrisku-adierazpena esleitura duten frakzioak frakzio arinak dira (C<sub>12</sub>arte), eta, beraz, ezingo lirateke TPH frakzio tipikoarekin parekatu. Hala ere, CONCAWEk sailkapen hori beste zati astun batzuei aplikatzen die, bereziki findu gabeko oinarriei –tratatu gabeko oinarri azidoei, esate baterako–.

ohartarazten baitu H372 soilik aplikatuko litzatekeela H350 ere aplikatu behar denean. Azken horrek % 0,1eko muga bat aplikatzera eramango lukeenez, ez du zentzurik TPHen multzo osorako H372 (% 1eko muga) erabiltzeak. H373 esleitu behar da (% 10eko muga) H350 aplikagarria ez den kasuak estaltzeko.

- H350 da garrantzitsuena, hondakin oro arriskutsutzat sailkatu beharko bailitzateke TPH  $\geq 0,1$  edukiz gero. Aurrerago, aplikagarritasuna aztertuko da.
- H361 ezaugarria (2 kategoriako ugalketarako toxikotasuna) petrolio-produktu gehienentzat komuna da, CONCAWEren arabera, eta, beraz, TPHen sailkapen lehenetsian jaso beharko litzateke.
- Ez da beharrezkotzat jotzen TPHei H340 (mutagenoa) esleitzea, H esaldi hori duen familia bakarra gasolinak direlako (sailkapen espezifikoan kontuan hartuko litzateke).
- Azkenik, ekotoxikotasunari dagokionez, H411 (2 kategoriako kronikoa, % 2,5eko mugarekin) H410 baino nabarmen adierazgarriagoa da (1 kategoriako kronikoa, % 0,25eko mugarekin). Hori cracking katalitikoko produktuei (beraz, merkatuan presentzia txikiarekin) eta fuel astunari baino ez legokieke. Sailkapen espezifiko bat proposatzen da fuelerako: ez dirudi arrazoizkoa denik TPHak orokorrean zigortzea substantzia jakin hori H410 delako. Fuela, gaur egun, oso gutxi erabiltzen da. Agian garrantzitsua izan daiteke lurzoru kutsatuen espedienteak izapidetzean, eta horietan, azterketa historikoaren arabera, fuelaren presentzia detektatu beharko litzateke.

Horrekin guztiarekin, **TPHen kasu orokorrari** aplikatu beharreko H esaldien zerrenda hau izango da:

Esaldia	Mota	Muga
H373	STOT	% 10
H350	Kartzinogenoa 1B kat.	% 0,1
H361	Ugalketarako toxikoa 2 kat.	% 3
H411	Ekotoxiko kronikoa 1 kat. 2	% 2,5

Britainiar Gidan ere ondorio horretara iristen da: hondakin bat arriskutsua izango litzateke TPH kontzentrazioa  $\geq 1\%$  bada. Hala ere, irizpide hori zehaztu egin behar da, baldintzarik gabe aplikatzeak hondakinen gainsailkapena ekarriko lukeelako (hidrokarbuero guztiak ez dira H350).

Bai CLPak eta bai Britainiar Gidak halako ihes-klausula bat eskaintzen dute, kartzinogenesia bentzenoaren edo 1,3-butadienoaren kontzentrazioaren (petroliotik eratorritako gasen) edo hidrokarbuero aromatiko poliziklikoen (HAP) kontzentrazioaren mende dagoela

ulertzean. Argudio hori International Petroleum Industry Environmental Conservation Association-ek (IPIECA) ere berresten du<sup>66</sup>:

Petroleum substance groups	Relevant Classes	Hazard	Possible Constituents of Concern
Crude oil	Carcinogenicity		H <sub>2</sub> S, Benzene, HAP
Petroleum Gases	Carcinogenicity		1,3-Butadiene, H <sub>2</sub> S
Naphthas/Gasolines	Carcinogenicity		Benzene
Kerosines	-----		-----
Gas oils	Carcinogenicity		HAP
Heavy fuel oil	Carcinogenicity		HAP
Residual aromatic extracts	-----		-----
Distillate aromatic extracts	Carcinogenicity		HAP
Treated distillate aromatic extracts	Carcinogenicity		HAP
Lubricant base oils	Carcinogenicity		HAP
Petroleum waxes	-----		-----
Petrolatums	Carcinogenicity		HAP
Foots oils	Carcinogenicity		HAP
Slack waxes	Carcinogenicity		HAP
Bitumens (asphalts) and vacuum residues	-----		-----
Petroleum cokes	-----		-----

25. taula: Hidrokarburoen arrisku-kategoriak substantzia-multzoetan oinarrituta.

Araudia aztertu ondoren, gaur egun uste da hondakinen gainsailkapena TPH % 0,1arekin saihesteko bide posible bakarra dela HAPen eta bentzenoaren kontzentrazioari erantzutea gas-kromatografiaren bidez aztertuz eta emaitzak dagozkien mugekin alderatuz.<sup>67</sup>

Muga horiei dagokienez, hainbat aukera daude, baina konplexua da, 1357/2014 (EB) Erregelamenduaren interpretaziotik abiatuta, ondorioztatzea zein den egokia:

- Muga orokorrak HAP bakoitzari aplikatzea (EPAREN 16 konposatu).

<sup>66</sup> "Application of GHS criteria to substances of unknown or variable composition, complex reaction products or biological materials (UVCB), in specific petroleum substances".

<sup>67</sup> HAPak familia bat dira (16 konposatu EPAREN arabera), eta bere konposatu indibidualek ezaugarri desberdinak dituzte; beraz, egokiagoa dirudi muga-balio generikoak aplikatzeko bidea aukeratzea konposatu bakoitzaren sailkapenaren arabera. Egia bada ere muga espezifiko batzuk oinarri zientifiko eta toxikologiko handiarekin daudela, esaterako, bentzo(a)pirenoarentzat, ez da koherentea aurrez aipatutakoarekin muga-balio espezifiko horiekin, eta, beraz, ez dira kontuan hartuko.

- HAP bakoitzaren sailkapen indibidualaren arabera dagozkion muga orokorrak edo espezifikoak (dauzkatenen kasuan) aplikatzea.
- ppm-ko muga konbentzionala ezartzea HAPen baturarako.
- ppm-ko muga konbentzionala ezartzea HAPen baturarako eta, gainera, halakoa duten HAPen muga espezifikoa aplikatzea.

Muga espezifikoak aplikatzeak zentzu teknikoa izango luke, eta, nahiz eta gabezia batzuk izan, berme handiagoa eskainiko luke. Hala eta guztiz ere, lehen ikusi den bezala, hondakinen araudiak ez du muga espezifikoen aplikazioa babesten, ez eta hondakinen sailkapenari buruzko Europako Batzordearen Gidak ere (HP2rako izan ezik).

EPAren 16 HAPen baturarako muga bat ezartzeko aukera Batzordeak onartutako aukera da, baina, bestalde, 1357/2014 (EB) Erregelamenduak ez du onartzen substantzia kartzinogenoen kontzentrazioak batzea; aitzitik, mugak gainditzen diren substantziaz substantzia baloratzea eskatzen du. Teknikoki, aipatutako lehen aukerak baino berme handiagoa eskainiko luke, muga espezifikoak kontuan ez hartzea konpentsatuko bailitzateke neurri batean, baina juridikoki ziurgabetasunak irekitzen ditu.

Laugarren aukerak –baturarako muga bentzo(a)pirenoaren eta dibentzo(a,h)antrazenoaren muga espezifikoekin osatuta erabiltzeak–, lehen aipatu dugun bezala, muga espezifikoen aplikazioaren arazoa dauka, ez hondakinen araudiak eta ez Europako Batzordearen Gidak ez dutelako babesten muga horien aplikazioa.

Erregelamendu-arau propio baten bidez, berezko mugak ezar litezke EAerako (banakakoak, batura gisa, batzuk zein besteak konbinatuta, etab.), Batasunaren ingurumen-arauak baino zorrotzagoak ezar daitezkeelako beti. Hala ere, baliteke oraingoz egokia ez izatea, kontuan hartzen baduzu beste autonomia-erkidego batzuekin sortuko litzatekeen desadostasuna.

Beraz, a priori posible diren aukera guztietatik, egungo araudi-esparrua kontuan hartuta, irizpide hau erabiltzea proposatzen da:

- Muga orokorrak HAP bakoitzari aplikatzea (EPAren 16 konposatu).

Zalantzarik izanez gero muga mg HAP/hondakinaren kg-tan edo ppm HAP/kg TPH-tan aplikatzeari buruz (Britainiar Gidak bigarren aukera hautatu zuen), ohartarazi behar da hauek direla aukera baten eta bestearen oinarriak:

- mg HAP/hondakinaren kg Txosten honetan hartutako aukera da, uste baita TPH duten hondakinak hidrokarburo-nahaste bat duten hondakinak direla (hau da, hondakina hainbat nahasteren nahastea da), eta ezin da bermatu HAPak hondakinak dituen TPHetatik soilik datozenik.
- ppm HAP/kg TPH. Britainiarren iritziz, TPH duen hondakin bat substantzia batekin kutsatutako hondakin bat da, hau da, interpretatzen dute TPHak ez direla nahaste bat, substantzia bat baizik.



CLPren substantziak edo nahasteak sailkatzeko arauak erabiliz gero, ondorioak oso desberdinak dira (1:1000). Gida honetan interpretatu da hondakina hidrokarbuo bakar batekin (substantzia batekin) kutsatuta dagoela jakiten denean haren izaera ezagutzen delako izango dela. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango TPHen sailkapen konbentzional hori erabiltzea: hidrokarbuo horren sailkapen espezifikora joko da.

Baina hondakinean zein hidrokarbuo dauden ez dakigunean, egokiago dirudi nahaste bat dela pentsatzea.

Egia esan, TPHak substantzia edo nahasketatzat jotzen badira, suposizio bat izango da beti, kasu batzuetan egokia eta beste batzuetan okerra. Hala ere, litekeena da TPHak nahaste bat izatea, dela hondakinean hainbat produktu-mota (adibidez, olio bat baino gehiago) daudelako, dela produktu bakarra (olio bat) izan arren konposizio aldakorreko, ezezaguneko edo jatorri biologikoko (UVCB) substantzia bat delako edo hainbat substantziaren nahasketa delako.<sup>68</sup> SDF erabilgarririk edukiz gero, gomendatzen da egiaztatzea bai 1. atala (Substantziaren edo nahastearen izaera) eta bai 3. atala (Substantziaren edo nahastearen konposizioa), UVCB substantzia baten edo nahaste baten aurrean ote gauden bereizteko, produktu honen kasuan bezala:

---

<sup>68</sup> Araudiei dagokienez, REACH eta CLP Erregelamenduaren ikuspegitik, substantzia horien izatera UVCB delako substantziaren barruan sartzen da; halako substantzien konposizioa aldakorra, ezezaguna edo jatorri biologikokoa da. UVCB gisa hartzeak berak esan nahi du osagai ugari daudela kontzentrazio aldakorretan, eta, beraz, zaila da zehaztea zein osagai indibidual datorren hondakinean egon daitezkeen UVCBetatik.

<b>MEZCLAS:</b>		
Este producto es una mezcla. <b>Descripción química:</b> Disolución de productos químicos.		
<b>COMPONENTES PELIGROSOS:</b> Sustancias que intervienen en porcentaje superior al límite de exención:		
30 < 40 % 	<b>Brea, alquitrán de hulla, temperatura elevada</b> CAS: 65996-93-2 , EC: 266-028-2 CLP: Peligro: Skin Sens. 1:H317   Muta. 1B:H340   Carc. 1A:H350   Repr. 1B:H360FD   Aquatic Acute 1:H400   Aquatic Chronic 1:H410	Indice nº 648-055-00-5 < ATP05
20 < 25 % 	<b>Alcohol bencilico</b> CAS: 100-51-6 , EC: 202-859-9 CLP: Atención: Acute Tox. (inh.) 4:H332   Acute Tox. (oral) 4:H302   Eye Irrit. 2:H319	Indice nº 603-057-00-5 < Autodasificada
15 < 20 % 	<b>Aceite de creosota, fracción de acenafteno</b> CAS: 90640-84-9 , EC: 292-605-3 CLP: Peligro: Skin Irrit. 2:H315   Eye Irrit. 2:H319   Skin Sens. 1:H317   Muta. 2:H341   Carc. 1B:H350   STOT RE 2:H373IR   Asp. Tox. 1:H304   Aquatic Chronic 2:H411	Indice nº 648-098-00-X (Nota H) (Nota M) < Autodasificada
5 < 10 % 	<b>1,2-ciclohexanodiamina</b> CAS: 694-83-7 , EC: 211-776-7 CLP: Peligro: Acute Tox. (inh.) 4:H332   Acute Tox. (skin) 4:H312   Acute Tox. (oral) 4:H302   Skin Corr. 1A:H314   Eye Dam. 1:H318   STOT SE (irrit.) 3:H335	Autoclasicado < REACH
5 < 10 % 	<b>Fenol</b> CAS: 108-95-2 , EC: 203-632-7 CLP: Peligro: Acute Tox. (inh.) 3:H331   Acute Tox. (skin) 3:H311   Acute Tox. (oral) 3:H301   Skin Corr. 1B:H314   Eye Dam. 1:H318   Muta. 2:H341   STOT RE 2:H373	Indice nº 604-001-00-2 < Autodasificada
5 < 10 % 	<b>Hexametildiamina</b> CAS: 124-09-4 , EC: 204-679-6 CLP: Peligro: Acute Tox. (skin) 4:H312   Acute Tox. (oral) 4:H302   Skin Corr. 1B:H314   STOT SE (irrit.) 3:H335	Indice nº 612-104-00-9 < CLP00
2,5 < 5 % 	<b>Naftaleno</b> CAS: 91-20-3 , EC: 202-049-5 CLP: Atención: Acute Tox. (oral) 4:H302   Carc. 2:H351   Aquatic Acute 1:H400   Aquatic Chronic 1:H410	Indice nº 601-052-00-2 < CLP00
2,5 < 5 % 	<b>Destilados (alquitrán de hulla), aceites pesados</b> CAS: 90640-86-1 , EC: 292-607-4 CLP: Peligro: Skin Irrit. 2:H315   Skin Sens. 1:H317   Muta. 1B:H340   Carc. 1B:H350   Repr. 2:H361fd   Aquatic Chronic 3:H412	(Nota H) Indice nº 648-044-00-5 < ATP01
< 1 % 	<b>Benzo(e)acefenantrileno</b> CAS: 205-99-2 , EC: 205-911-9 CLP: Peligro: Carc. 1B:H350   Aquatic Acute 1:H400   Aquatic Chronic 1:H410	Indice nº 601-034-00-4 < CLP00
< 1 % 	<b>Benzo(k)fluoranteno</b> CAS: 207-08-9 , EC: 205-916-6 CLP: Peligro: Carc. 1B:H350   Aquatic Acute 1:H400   Aquatic Chronic 1:H410	Indice nº 601-036-00-5 < CLP00
< 1 % 	<b>Benzo(a)antraceno</b> CAS: 56-55-3 , EC: 200-280-6 CLP: Peligro: Carc. 1B:H350   Aquatic Acute 1:H400   Aquatic Chronic 1:H410	Indice nº 601-033-00-9 < ATP01
< 1 % 	<b>Bifenil-2-ol</b> CAS: 90-43-7 , EC: 201-993-5 CLP: Atención: Skin Irrit. 2:H315   Eye Irrit. 2:H319   STOT SE (irrit.) 3:H335   Aquatic Acute 1:H400	Indice nº 604-020-00-6 < CLP00
< 0,5 % 	<b>Benzo(d,e)flcriseno</b> CAS: 50-32-8 , EC: 200-028-5 CLP: Peligro: Skin Sens. 1:H317   Muta. 1B:H340   Carc. 1B:H350   Repr. 1B:H360FD   Aquatic Acute 1:H400   Aquatic Chronic 1:H410	Indice nº 601-032-00-3 < CLP00
< 0,1 % 	<b>Dibenzo(a,h)antraceno</b> CAS: 53-70-3 , EC: 200-181-8 CLP: Peligro: Carc. 1B:H350   Aquatic Acute 1:H400   Aquatic Chronic 1:H410	Indice nº 601-041-00-2 < ATP01

16. irudia: Substantzia-nahaste batek osatutako produktu baten konposizioaren SDFren adibidea.

Horrekin guztiarekin, hidrokarburoak dituzten hondakinetarako proposamena petrolioaren hidrokarburo totalen, BTEXen eta hidrokarburo aromatiko polizikloen (HAPen) determinazio analitikoa eskatzean datza. Era berean, HP14 Ekotoxikoa ebaluatzeko egin beharreko saiakuntzak beharko dira.

Analisi-emaizak lortu ondoren, lehenik eta behin ekotoxikotasunari buruzko ondorioak aztertuko dira. Saiakuntzek adierazten badute hondakina ez dela ekotoxikoa, ebaluazioa honela egingo da:

### 8.2.1 BTEX, HEXANO ETA HEPTANOAREN MUGA HIDROKARBUROEKIN KUTSATUTAKO SILIZE-, KAREHARRI- EDO BUZTIN-MATRIZEKO LURZORU ZEIN BESTE HONDAKIN BATZUETARAKO<sup>69</sup>

Bentzenoari, toluenoari, etilbentzenoari, xilenoari eta estirenoari dagozkien sailkapenak hauek dira:

Substantzia	CAS zk.:	H esaldiak	Muga	Iturria
Bentzenoa	71-43-2	H225	-	VI. eranskina
		H315/319	% 20	
		H304	% 10	
		H372	% 1	
		H350	% 0,1	
		H340	% 0,1	
Toluenoa	108-88-3	H225	-	VI. eranskina
		H315	% 20	
		H304	% 10	
		H373	% 10	
		H361	% 3	
Etilbentzenoa	100-41-4	H225	-	VI. eranskina
		H304	% 10	
		H373	% 10	
		H332	% 22,5	
Xilenoa	1330-20-7	H226	-	VI. eranskina
		H315	% 10	
		H312	% 55	
		H332	% 22,5	
Estirenoa	100-42-5	H226	-	VI. eranskina
		H315/319	% 20	
		H332	% 22,5	
		H361d	% 3	
		H372	% 1	

26. taula: Arrisku-argibidearen kodeak eta BTEXen kontzentrazio-mugak.

Beraz, analitikek ondorioztatzen badute substantzia horietakoren bat dagoela, H225 eta H226 arrisku-argibideetarako mugarik ez dagoenez, hondakina, hasiera batean, HP3 sukoia

<sup>69</sup> Ingurumen Organoak ebaluatu ahal izateko, BTEX saiakuntzak izanez gero, baztertu daitezke paragrafo honetan adierazitako mugak hidrokarburoen kateetan oinarrituta, BTEXek C<sub>6</sub>-C<sub>10</sub> kateak baitituzte. Hau da, barruti horretarako ezarritako mugaren batetik goragoko kontzentrazioa zehazten bada, sukoitasun-saiakuntza eskatu beharko litzateke; bestela, sailkatzeko muga aplikazioa baztertu ahal izango litzateke.

ezaugarriari dagokionez ebaluatu egin beharko litzateke, sailkapena aplikatzen ote zaion egiaztatzeko.

Baliteke ezaugarri hori aplikagarri ez izatea, sukoitasun-saiakuntzen bidez hala frogatzen bada<sup>70</sup>.

71. orrialdeko orri-oinean aipatutako azterketa horretan oinarrituta, zehazten da hidrokarburoekin kutsatutako lurzoruen kasuan ez dagoela sukoitasun-arriskurik substantzia hauek taulako kantitate txikiagoetan badaude:

Substantzia	Saiakuntzak	Kontzentrazio-muga
Bentzenoa	Ez-sukoia	<% 0,1
Toluenoa	Ez-sukoia	% < 3
Etilbentzenoa	Ez-sukoia	% 0,05
Xilenoa	Ez-sukoia	% 0,05
Estirenoa	Ez-sukoia	% 1

27. taula: BTEXen kontzentrazio-mugak HP3 gisa sailkatzeko.

Karakterizazioetatik abiatuta zehazten bada hidrokarburoekin kutsatutako lurzoruak ez dela substantzia indibidualen kontzentrazio horietara iristen, zuzenean baztertuko da HP3 arriskugarritasun-ezaugarria, eta hurrengo arriskugarritasun-ezaugarri potentzialek ezartzen dituzten mugak egiaztatuko dira. Xilenorako eta etilbentzenorako % 0,05 eta hurrengo arriskugarritasun-ezaugarriak markatutako mugaren artean, sukoitasun-saiakuntza eskatuko da, eta hurrengo mugatik aurrera, HP3z gain, muga horrek ematen dion arriskugarritasun-ezaugarria esleituko zaio hondakinari (xilenorako % 20 HP4 eta etilbentzenorako % 10 HP5).

Beraz, substantzia horietakoren bat duten lurzoruak edo edozein silize-, kaltzio- edo buztin matrize arriskutsu gisa sailkatuko lirateke, adierazitako HPekin gutxienez, substantzia horiek kontzentrazio hauetan edo handiagoetan daudenean:

<sup>70</sup> EAEko Ingurumen Organoak azterketa espezifiko bat egin du BTEX duten lurren sukoitasuna zehazteko, HP3 gisa sailkapena saihesteko. Lan horren ondorioz, substantzia bakoitzerako atalaseak ezarri dira (bentzenoa, toluenoa, etilbentzenoa eta xilenoa), eta atalase horien azpitik ezaugarri hori alde batera uzten da. Sukoitassun-saiakuntza indibidualak beharrezkoak izango lirateke soilik substantziaren bat zehazten den atalasea baino kontzentrazio handiagoan dagoenean, betiere beste konposatu organiko lurrunkorren presentziarik ez badago.

Substantzia	Kontzentrazio-muga	HP
Bentzenoa	% 0,1	HP7 eta HP11
Toluenoa	% 3	HP10
Etilbentzenoa	% 0,05etik gora	Sukoitasun-saiakuntzaren emaitzaren arabera
	% 10	HP5
Xilenoa	% 0,05etik gora	Sukoitasun-saiakuntzaren emaitzaren arabera
	% 20 <sup>71</sup>	HP4 <sup>72</sup>
Estirenoa	% 1	HP5

28. taula: BTEXen kontzentrazio-mugak HP ezaugarriak esleitzeko.

Azterketa bera egin da hexanorako eta heptanorako, hondakinetan egon ohi diren disolbatzaileak biak, horien hondakinetakoz zer kontzentrazioetik behera HP3 ezaugarria baztertu ote daitekeen erabakitzeko.

Bentzenoaren eta toluenoaren kasuetan bezala, hiru lurzoru-motatan egiaztatu ahal izan da beheko taulako kontzentrazioen azpitik hexanoak eta heptanoak ez ziotela sukoitasunik gehitzen hondakinari eta kontzentrazio horretatik gora HP14 arriskugarritasun-ezaugarria zutela; beraz, kontzentrazio txikiagoen kasuan baztertu ziren bai HP3 ezaugarria eta bai saiakuntzak.

Substantzia	Saiakuntzak	Kontzentrazio-muga
Hexanoa	Ez-sukoia	% 2,5
Heptanoa	Ez-sukoia	% 0,25

29. taula: Hexano- eta heptano-kontzentrazioaren mugak HP3 gisa sailkatzeko.

### 8.2.2 HAP

8.2. atalean (2. kasu berezia. Hidrokarburoekin kutsatutako hondakinak) adierazitakoaren arabera, muga ez-espezifikoa indibidualki aplikatuz, HAPen sailkapena hau da:

Substantzia	CAS zk.:	H esaldiak	Muga	Iturria
<b>Azenaftenoa</b>	83-32-9	H410	% 0,25	Erregistroa
<b>Azenaftilenoa</b>	208-96-8	H315/319	% 10	Jakinarazpena
		H335	% 20	

<sup>71</sup> Muga hau aplikatuko da soilik hondakinean H319 gisa sailkatutako beste konposaturen bat egonez gero (ikus 5.4. atala).

<sup>72</sup> Saiakuntzen bidez frogatzen bada hondakina ez dela narritagarria, hondakina arriskutsua izango litzateke xilenoaren % 22,5 gutxienez (HP6) edukiko balu. Behar diren saiakuntzen bidez egiaztatuko balitz hondakinak ez duela toxikotasun akuturik, hondakina ez-arriskutsua izango litzateke (xileno-edukiagatik bakarrik).

Substantzia	CAS zk.:	H esaldiak	Muga	Iturria
		H302	% 25	
		H310	% 0,25	
		H330	% 0,1	
<b>Antrazenoa</b>	120-12-7	H315	% 10	Erregistroa
		H400	% 25	
		H410	% 0,25	
<b>Bentzo(a)pirenoa</b>	50-32-8	H317	% 0,1	VI. eranskina
		H340		
		H350		
		H360FD		
		H400		
		H410		
<b>Bentzo(b)fluorantenoa</b>	205-99-2	H350	% 0,1	VI. eranskina
		H400	% 25	
		H410	% 0,25	
<b>Bentzo(g,h,i,)perilenoa</b>	191-24-2	H400	% 25	Jakinarazpena
		H410	% 0,25	
<b>Bentzo(k)fluorantenoa</b>	207-08-9	H350	% 0,1	VI. eranskina
		H400	% 25	
		H410	% 0,25	
<b>Krisenoa</b>	218-01-9	H341	% 1	VI. eranskina
		H350	% 0,1	
		H400	% 25	
		H410	% 0,25	
<b>Dibentzo(a,h)antrazenoa</b>	53-70-3	H350	% 0,1	VI. eranskina
		H400	% 25	
		H410	% 0,25	
<b>Bentzo(a)antrazenoa</b>	56-55-3	H350	% 0,1	VI. eranskina
		H400	% 25	
		H410	% 0,25	
<b>Fenantrenoa</b>	85-01-8	H302	% 25	Jakinarazpena
		H400	% 25	
		H410	% 0,25	
<b>Fluorantenoa</b>	206-44-0	H302	% 25	Jakinarazpena
		H400	% 25	
		H410	% 0,25	
<b>Fluorenoa</b>	86-73-7	H400	% 25	Erregistroa
		H410	% 0,25	

Substantzia	CAS zk.:	H esaldiak	Muga	Iturria
<b>Indeno(1,2,3,cd)pirenoa</b>	193-39-5	H351	% 1	Jakinarazpena
<b>Naftalenoa</b>	91-20-3	H302	% 25	VI. eranskina
		H351	% 1	
		H400	% 25	
		H410	% 0,25	
<b>Pirenoa</b>	129-00-0	H410	% 0,25	Erregistroa

30. taula: HAP kideak eta bakoitzaren arrisku-argibidearen kodeak.

HAPen edukiaren ebaluazioa egingo da substantzia horiek hondakinari HP7 ezaugarria ematen ote dioten erabakitzeko. Beraz, hidrokarburoak dituen hondakin bat HP7 izango da substantzia hauetakoren bat honako kontzentrazio hauetan badu:

Substantzia	Muga
Bentzo(a)pirenoa % 0,1	
Bentzo(b)fluorantenoa	% 0,1
Bentzo(k)fluorantenoa	% 0,1
Krisenoa	% 0,1
Dibentzo(a,h)antrazenoa	% 0,1
Bentzo(a)antrazenoa	% 0,1
Indeno(1,2,3,cd)pirenoa	% 1
Naftalenoa	% 1

31. taula: HAP kideak HP7 ezaugarriekin.

### 8.2.3 Petrolioaren hidrokarburo totalak

**TPHen kasu orokorrari** aplikatu beharreko H esaldiak onartuz gero, hondakina azkenean arriskutsu gisa sailkatuko da baldin eta C<sub>10</sub>-C<sub>40</sub> parametroak balio hauen berdinak edo handiagoak baditu (HP7 kendu da TPHen sailkapen orokorretik, aurreko atalean aipatutako HAPen edo bentzenoaren edukiaren araberakoa izango baita):

Muga	HP <sup>73</sup>
% 2,5	HP14*
% 3**	HP10
% 10	HP5

32. taula: TPHei aplika dakizkiekeen kontzentrazio-mugak HP ezaugarriak esleitzeko.


\* HP14 ez da aplikatuko saiakuntzak ezaugarri hori ez dagoela erakusten badu.

\*\* HP10erako saiakuntzak egiteko aukerarik ez dagoenez, 30.000 mg/kg TPH duen hondakin bat arriskutsu gisa sailkatuko da, salbu eta ezagutzen bada


<sup>73</sup> HP ezaugarri guztiak eta bakoitza ebaluatu behar dira, metagarriak baitira.

hidrokarburo-mota zehatza edo frogatzen bada toluenoaren % 3 baino gutxiago eta hexanoaren % 3 baino gutxiago duela.


$C_{10}$ - $C_{40}$  parametroa kontuan hartzea ohiko praktika da, eta inguruko laborategietako analisi-eskaintza zabalduna. Hala ere, egia da erregai batzuk frakzio arinagoak direla eta, beraz,  $C_{10}$  kate txikiagoekin eta olioekin (lubrifikatzailea eta hidraulikoa) normalean gainditzen dutela  $C_{10}$ - $C_{40}$  barrutia, frakzio astunagoak baitituzte irakite-puntu altuagoekin, grafiko hauetan ikus daitekeen bezala (gezi horia  $C_{10}$ -ri dagokio eta morea  $C_{40}$ -ri):




Diesela (freskoa)




Gasolina (freskoa)




Fuela



Kerosenoa




Biodiesela



Kreosota





17. irudia: Zenbait hidrokarbuo-multzoren kromatograma-adibideak.

Beraz, aztertu beharreko kate-barrutia zabaldu behar da petrolioaren hidrokarbuo totalen edukia zehazteko. Anlisi zabalagoetarantz eboluzionatu beharko da, adibidez, C<sub>6</sub>-C<sub>80</sub> (EPA 418.1) edukia zehazteko.

Hala ere, oraingoz eta analisisen eskaintza egokirik ez dagoen bitartean, behin-behinean C<sub>10</sub>-C<sub>40</sub>-rekin lan egingo da. Hainbat konposatu aztertzeke aukera baloratuko da, hala nola hexanoa eta/edo BTEX. Anlisi-emaitzekin batera kromatografiaren grafikoak ere aurkezteko eskatu beharko da.

Kromatogramak behatuz gero, hidrokarbuoak substantzia espezifikoak (fuela, gasolina edo gasolioa) dagozkien kasu zehatzak identifikatu ahal izango dira, eta kasu horietan frakzio horien kontzentrazioa ebaluatu ahal izango da, hala nola:

- Gasolinazko konposatu organikoak (GRO) gasen kromatografia/masen espektrometria bidez (CG/MS)
- Diesel-barrutiko hidrokarbuoak (DRO) gasen kromatografia/masen espektrometria bidez (CG/MS)
- TPHen frakzioak: C<sub>10</sub>-C<sub>16</sub>, C<sub>16</sub>-C<sub>22</sub>, C<sub>22</sub>-C<sub>30</sub> eta C<sub>30</sub>-C<sub>40</sub> gasen kromatografia/gar-ionizazio bidez (CG/FID)

Kasu horietan, hondakinaren arriskugarritasunaren ebaluazioa behean azaltzen den bezala egingo da.

#### 8.2.4 Fuel astuna

Fuel astuna substantziatzen hartzen da, eta, beraz, hondakin bat fuel astun bat bada edo harekin kutsatuta badago, ez litzateke erabiliko TPH sailkapen konbentzionala, substantzia horren berezkoa baizik. Zehatzago esanda, fuel astunaren barruan hainbat CAS zenbaki daude. Horien artean, 6. fuel-olioari dagokiona har daiteke adierazgarritzat (CAS 68553-00-4):

Harmonizatua	Erregistroak
H350*	H332
	H350*
	H361
	H373
	H400
	H410

33. taula: 6. fuel-olioaren arrisku-argibidearen kodeak.

\* Kasu honetan ez dago CLPn kartzinogenotasuna saihestea ahalbidetzen duen oharrik.

Erregistroen sailkapena oinarri hartuta, hondakin horiek fuel-kontzentrazio honekin sailkatuko lirateke:

Esaldia	HAetarako muga (%)	HP
H350	0,1	7
H410	0,25	14
H361	0,3	10
H373	10	5
H332	22,5	6
H400	25	14

34. taula: Kontzentrazio-mugak 6. fuel-olioa sailkatzeko erregistroetan oinarrituta.

Biskositate txikiagoarekin, fuel astunaren beste zehaztapen bat dago (esaterako, CAS 64741-75-9, Residues (petroleum), hydrocracked), gainera H304 izango litzatekeena. Hala ere, fuel astunekin kutsatutako hondakin solidoen kasuan, ez litzateke aplikatuko aspirazioagatiko toxiko gisa sailkatzea, eta, likido kutsatuen kasuan, H esaldi horri dagokion muga-balioa % 10ekoa da; adierazgarriagotzat jotzen da 6. fuel-olioarekin lan egitea.

Mota horretako substantziak oso gutxitan daude merkatuan une honetan, eta, beraz, aurki daitezkeen kasuak lurzoru kutsatuen espedienteei eragingo diete nagusiki.

Intertek, Iberica Spain, S.L.U. laborategiaren –karburoen analisisian aditua– gomendioetan oinarrituta, TPHekin kutsatutako lurren kasuan zehaztuko da TPHa fuel astuna dela kokalekuaren azterketa historikotik abiatuta, ez baitago lurzoru bateko TPHa fuel astuna ote den ala ez bermeekin zehaztu dezakeen metodo analitikorik.

### 8.2.5 Gasolina

Kasu honetan, beste substantzia bat da (konposizio ezezaguna, aldakorra edo jatorri biologikokoa, UVCB), eta substantzia horien hondakinen (edo halakoak dituztenen) ebaluazioa sailkapen honetatik aterako litzateke (CAS 92045-52-8, Naphtha (petroleum), hydrodesulfurized full-range):

Harmonizatua	Erregistroak
H304	H224
H340*	H304
H350*	H315
	H336
	H340*
	H350*
	H361
	H411

35. taula: Gasolinaren arrisku-argibidearen kodeak.

\* Kasu honetan aplikatuko litzateke CLPren "P. oharra"; ohar horren arabera, ez da aplikagarria H350 edo H340 bentzenoaren kontzentrazioa < % 0,1 denean.

Erregistroen sailkapena oinarri hartuta, hondakin hauek sailkatuko lirateke gasolina-kontzentrazioarekin:

Esaldia	HAetarako muga (%)	HP
H350	0,1	7*
H340	0,1	11**
H411	2,5	14
H361	3	10
H304	10	5
H315	20	4
H224	***	3

36. taula: Kontzentrazio-mugak gasolina sailkatzeko erregistroetan oinarrituta.

\* Bentzenoa hondakinaren gaineko % 0,1 dela egiaztatzen denean izan ezik.

\*\* Bentzenoa hondakinaren gaineko < % 0,1 denean izan ezik.

\*\*\* Hasiera batean, gasolina-profileko TPH duen hondakin bat HA "HP3 Sukoia" izango litzateke (saiakuntzarik ezean)<sup>74</sup>. Gasolinarekin kutsatutako lurri dagokionez, INTERTEKek horri buruz egindako azterketa batek<sup>75</sup> erakusten du ez dagoela sukoitasunik hondakinean % 0,25eko gasolina-kontzentrazioekin, lurzoru-mota edozein dela ere.

## 8.2.6 Diesela

Substantzia honen sailkapena hau litzateke:

<sup>74</sup> 1357/2014 Erregelamenduak honako hau xedatzen du: "Hondakin batek 3. koadroan adierazitako arrisku-mota eta -kategoriaren eta arrisku-argibidearen kodeetako batekin sailkatutako substantzia bat edo batzuk dituenean, hondakina ebaluatuko da, egokia eta proportzionatua denean, saiakuntza-metodoen arabera. Substantzia bat egoteak adierazten badu hondakina sukoa dela, HP3 arriskutsu gisa sailkatuko da". Horri esker, azterketa bat egin daiteke "egokia eta proportzionatua" noiz ote den zehazteko gasolinadun lurri buruzko saiakuntzak eskatu ahal izateko.

<sup>75</sup> "Hondakin solidoen "ISUKOIA" arriskugarritasun-ezaugarriaren determinazioa hondakinek duten petroliotik eratorritako erregaien edukiaren arabera". 2017ko iraila. IHOBE

Harmonizatua	Erregistroak
H351*	H226
	H351*
	H411
	H304
	H373
	H315
	H332

37. taula: Dieselaren arrisku-argibidearen kodeak

\* Substantzia honi CLPko N<sup>76</sup> oharra dagokio: hondakinen kasuan ez dela erabili behar uste da, oso konplexua delako haren aplikagarritasuna egiaztatzea<sup>77</sup>.

Erregistroen sailkapena oinarri hartuta, hondakin hauek sailkatuko lirateke gasoil-kontzentrazioarekin:

Esaldia	HAetarako muga (%)	HP
H351	1	7
H411	2,5	14
H304	10	10
H373	10	10
H315	20	4
H332	22,5	6
H226	*	3

38. taula: Kontzentrazio-mugak diesela sailkatzeko erregistroetan oinarrituta

\* Hasiera batean, diesel-profileko TPH duen hondakin bat "HP3 Sukoia" izango litzateke (saiakuntzarik ezean). Aipatutako azterketan INTERTEKek ondorioztatzen du dieselarekin kutsatutako lurra –edozein direla ere– ez direla sukoiak diesel-kontzentrazioaren % 10etik behera.

Hori guztia kontuan hartuta, proposatzen da TPHak gasolinari, dieselari edo fuel astunari dagozkienean substantzia horien berezko sailkapenak erabiltzea. Eta erregai horietako batekin kutsatutako lurren kasuan, sukoitasuna baztertuko litzateke gasolinaren % 0,25etik behera eta dieselaren edo fuel astunaren % 10etik behera, edo solidoetako sukoitasun-saiakuntza bat egingo da.<sup>78</sup>

<sup>76</sup> Ez da beharrezkoa kartzinogeno gisa sailkatzea fintze-prozesua guztiz ezagutzen bada eta frogatu badaiteke bere jatorri-substantzia ez dela kartzinogenoa. 3. zatian sartutako petroliotik eratorritako substantzia konplexu jakin batzuei bakarrik aplikatzen zaie ohar hau.

<sup>77</sup> Horrela ondorioztatzen da, halaber, aplikatu beharreko ohar gisa hauek zerrendatzen dituen 2014/955/EB Erabakitik: B, D, F, J, L, M, P, Q, R eta U.

<sup>78</sup> MITERDen Gidaren 11. irudiaren oinean dagoen oharren arabera, hau adierazten da:

- Fase librea duen hondakin solido batetik bereizitako elementuei, adibidez, toluenoarekin inpregnatutako lurzoru bati, sugar-probak egin behar zaizkie.
- Fase libre batean sartzen dira hondakin batetik isur edo dekanta daitezkeen likidoak edo baliabide fisiko edo mekaniko sinpleen bidez erraz atera daitezkeen likidoak.

### 8.3 3. kasu berezia. Substantzia arriskutsuak dituzten lurrak eta harriak.

Lurrak eta harriak ispilu-kodea duen hondakina dira (170503\* eta 170504), eta konposizio ezezagunaren adibide bereziki argia dira. Lur guztiak hondakin arriskutsu gisa sailkatzea saihesteko, nahitaezkoa da behar bezain sendoa den irizpide bat garatzea haien arriskugarritasunaren ebaluazioa egiteko.

Hasiera batean konposizioa ezagutu ezin bada ere, 4/2015 Legearen xedapenek nahitaezkoa egiten dute lurzorua kalitatea ikertzea kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerak jasaten edo jasan dituen kokaleku bat induskatu aurretik.

Kasu horietan, hondakinen kokalekuaren eta karakterizazioen (VIE-B parametroak) azterketa historikoa izango da, kudeatu aurretik. Azterketa historikotik kontrakoa ondorioztatzen ez bada, eta lur horiek beste substantzia arriskutsu batzuk dituztenean izan ezik, hondakinen sailkapena VIE-B parametro horien emaitzetan oinarrituta egingo da. Horretarako, parametro bakoitzari dagokion sailkapena aplikatuko da. 9. *eranskinean*, lurren sailkapenari buruzko adibide bat dago (baina edozein hondakin sailkatzeko adibide gisa balio du).

4/2014 Legearen 25. artikuluan araututako salbuespen-kasuetan, zabortegiko hondakinen onargarritasuna zehazteko analisiak eskatu beharko dira, bai eta hondakina sailkatzeko aukera emango duen VIE-B parametroen karakterizazioa ere.

Gainerako kasuetan, lur batzuk kutsatzailea izan daitekeen jarduera bat jasaten ez duen edo jasan duen leku batetik datozenean, ulertuko da hondakina ez-arriskutsua dela, kutsadura-zantzuak antzematen direnean izan ezik.

# 9. ■ Laginak hartzeko, karakterizazioetarako eta saiakuntzetarako eskakizunak

## 9.1 Laginak hartzea

Laginak hartzea funtsezko puntua da hondakinaren karakterizazioaren prozesuan; izan ere, manipulazio desegoki batek edo hondakin osoaren adierazgarri ez den zati bat hartzeak edozein emaitza arriskuan jar dezake.

Eskatu ahal izango da ikuskapenak (laginketa-plana egitea eta exekutzea, laginak gordetzea eta laginen garraioa tenperatura-baldintza trazagarrietan kudeatzea) UNE-EN ISO/IEC 17020ren arabera hondakinaren esparruan akreditatutako ikuskapen-erakundeek egitea, akreditatzeko irismenean **UNE-EN 14899:2007** arauaren eskakizunak esplizituki betez (Hondakinaren karakterizazioa. Hondakinaren laginak hartzea. Laginketa-plan bat prestatzeko eta aplikatzeko eskema).

Gida hau argitaratzen den datan eskakizun horiek betetzen dituzten erakunde edo laborategien eskaintza mugatua da, baina erregulazio-joera akreditatutako ikuskapen-erakundeetara jotzea da beti<sup>79</sup>. Horregatik, oraingoz, akreditazio horiek ez zaizkie eskatuko 1357/2014 (EB) Erregelamenduaren arabera sailkatzeko hondakin-analitikak edo -saiakuntzak enkargatzen zaizkien laborategiei, **baina bai eskatuko zaizkie 2022ko abenduaren 31tik aurrera**, eta oso gomendagarria da egun hori iristen den bitartean. Gida hau argitaratu den datan, beste autonomia-erkidego batzuetan eskatzen ari dira akreditazio hori. Nolanahi ere, 646/2020 Errege Dekretuak akreditazio hori eskatzen du, eta zaborte-giko biltegitratzeak berekin dakar arriskugarritasuna sailkatzea.

Bitartean, nolanahi ere, 2022ko abenduaren 31ra arte gehienez ere, eskatu ahal izango da, erreferentzia horien arabera laborategia akreditatuta ez badago ere, laginak hartzen dituen erakundea independentea izatea. Hau da, ez izatea ekoizle bera (ezta berarekin erlazionatutako enpresa bat edo karakterizatu beharreko hondakinari lotutako kudeaketa-, ekoizpen- edo ustiapen-jarduerak dituen) lan hori egiten duena, eta enpresa horrek hondakina sortzen duen enpresari, laginketa-plana eta laginak hartzea justifikatzen dituen txosten bat, *UNE-EN 14899:2007rekin eta UNE-EN 14899:2007ren eta UNE-CEN/TR 15310 (1-5 zatiak):2008* Jarraibide Teknikoen Bildumarekin bat etorriz.

<sup>79</sup> Ikus, erreferentzia gisa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta ezabatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren II. eranskinaren 3. apartatua: "Oinarrizko karakterizazioa egiteko laginketaren diseinua eta laginak hartzea eta betetze-probak UNE-EN ISO/IEC 17020 arauaren arabera akreditatutako erakundeek egingo dituzte..."

Horrela, ekoizpen-enpresentzako eskakizunetan honako idazkera hau jaso beharko da:

Beharrezkoa izango da 1357/2014 (EB) Erregelamenduko irizpideen arabera hondakin bat sailkatzeko laginak hartzen dituen erakundeak honako bi baldintza hauetako bat gutxienez betetzea:

1. Hondakinen eremurako UNE/EN ISO/IEC 17020 arabera akreditatuta egotea eta UNE-EN 14899 araua bere akreditazio-irismenean txertatuta edukitzea.
2. Erakunde independente bat izatea eta enpresari lagin-hartzearen adierazgarritasuna justifikatzen duen txosten bat aurkeztea UNE-EN 14899:2007 arauaren arabera eta UNE-CEN/TR 15310 (1-5 zatiak):2008 Jarraibide Teknikoen Bildumaren arabera. (AUKERA HONEK 2022KO ABENDUAREN 31RA ARTE BAKARRIK BALIO DU).

Hondakina sortzen duen enpresak baldintza horiekin lotutako ebidentziak eman beharko dizkio Ingurumen Organoari.

## 9.2 Karakterizazioak

Hondakinen karakterizazioei dagokienez, eskatuko da laborategi akreditatuek egitea, eskaintza nahikoa dagoelako eta eskakizun hori praktika normalizatua delako EAEn, bai lurzoruen eta bai zabortegien arloan. Edonola ere, erabilitako metodoek normalizatuak izan behar dute<sup>80</sup>.

## 9.3 Saiakuntzen txostenen edukia

Beharrezkotzat jotzen da laborategien txostenetan saiakuntzak arauaren arabera egiten ote diren baloratzeko gutxieneko edukia izatea. Adibidez, ekotoxikotasun-saiakuntzen kasuan, laborategi batzuk L(E)C50en emaitzaren berri ematera mugatzen ari dira, jarraitutako protokoloari buruzko informaziorik eman gabe.

Erreferentzia-arauek (440/2008 (EE) Erregelamendukoek nahiz OECDkoek edo ISOek) txostenen gutxieneko edukiari buruzko apartatu bat dute. Beraz, ezinbestekotzat jotzen da laborategiek gutxieneko eduki hori errespetatzea.

Horrela, errekerimenduetan honako hau adierazi beharko litzateke:

Saiakuntzen ziurtagiriek, gutxienez, erreferentzia gisa erabiltzen diren arauetan (440/2008 (EE) Erregelamendua, OECD arauak edo ISO arauak) adierazitako **txostenen edukia** jaso beharko dute, edo haiekiko desbideratzeak adierazi.

<sup>80</sup> Komunikazioaren 4. eranskinean hondakinak karakterizatzeko ENB metodoen eta arauen zerrenda ez-exhaustiboa dago.

## 9.4 Saiakuntza-metodoak

Hondakinaren karakterizazioa eta haren arriskugarritasun-ezaugarriak esleitzean, lehentasuna emango zaio aldez aurreko informaziotik abiatuta hondakinaren konposizioa zehazteari (*ikus dokumentu honetako 6. kapitulua*) eta kalkulu-formulak H kode bakoitzerako kontzentrazio zehatzetan eta ezarritako kontzentrazio-mugetan oinarrituta aplikatzeari (*ikus dokumentu honetako 5. kapitulua*).

Saiakuntza-metodoak aplikatu behar badira, kontuan hartuko da CPL Erregelamenduaren 7. artikulua araberako **animaliekin egindako saiakuntzetan oinarritutako metodoak saihestu behar direla**. Ildo horretan, eta arriskugarritasun-ezaugarri jakin batzuetarako ez dagoenez, metodo alternatiboak bilatu beharko dira hondakinatarako egokiak direnean eta halakoak daudenean. Horretarako, Animalien Esperimentazioaren Alternatibei buruzko Europako Erreferentzia Laborategian kontsultatzea gomendatzen da. Bertan, animaliekin egindako saiakuntzen ordeko froga batzuk daude eskuragarri. Horretarako, esteka honetan kontsulta daiteke:

<https://ec.europa.eu/jrc/en/eurl/ecvam>

Inguruko laborategiek animaliekin esperimentatzerik eskatzen ez duten saiakuntzen eskuragarritasunari buruz egindako prospekzioan oinarrituta, egiaztatu da bai laborategien kopurua eta bai egindako saiakuntzen aldakortasuna ez dela behar bezain zabala Erregelamenduaren beharrei erantzuteko; beraz, kasu batzuetan animalietan saiakuntzak egitea beste aukerarik ez da egongo. Kasu horietan, ingurumen-organoak berariaz justifikatu eta onetsi beharko du hori.

Eskuragarri dauden laborategien eta saiakuntzen azterketa prospektiboa 13. eranskinean dago jasota. Bildutako informazioan oinarrituta, behean arriskugarritasun-ezaugarri bakoitzari aplika dakizkiokeen saiakuntzak zehaztu dira, bai eta haien benetako erabilgarritasun-maila ere.

### 9.4.1 HP1. Leherkorra<sup>81</sup>

Leherkortasun-ezaugarriaren barruan, hiru substantzia- eta hondakin-mota daude:

- Lehergailuak.
- Peroxido organikoak.
- Autoerreaktiboak.

Kasu bakoitzean, saiakuntza-metodoak desberdinak izango dira.

<sup>81</sup> Saiakuntzen eta saiakuntzak egiten dituzten laborategien eskuragarritasunari dagokionez, horretarako egindako prospekzioaren araberako ondoriozta daiteke joera dela 440/2008 Erregelamenduko saiakuntzak egitea eta – gutxienez laborategiei dagokienez – eskuragarritasun txikiagoa dagoela *Proba eta irizpideen Eskuliburua. Lehengaiak garraiatzeko gomendioak (NBE)* agirian.



### 9.4.1.1 Leherkortasuna.

440/2008 (EE) Erregelamenduan honako hauek sartzen dira:

- A.14 metodoa. Propietate leherkorrak. Horren barruan, honako ezaugarri hauek ebaluatzen dira:
  - Sentikortasun termikoa.
  - Sentikortasun mekanikoa (talka).
  - Sentikortasun mekanikoa (marruskadura).

Hondakinetako leherkortasuna zehazteko erreferentzia-saiakuntza lehen adierazitakoa izango da (A.14 metodoa), eta sentikortasun-proben hiru motetan banakatzen da. Bestela, A14 metodoaren bidez saiakuntzak egiten dituzten laborategiak eskuragarri ez badaude, *Guidance on the Application of the CLP Criteria* agirian adierazitako metodoak proposatuko dira. Batzordearen Gidak eta Komunikazioak agiri horretara bidaltzen dute, eta agiri horrek "Proba eta irizpideen Eskuliburua. Lehengaiak garraiatzeko gomendioak (NBE)" agirira. Hark 440/2008 (EE) Erregelamenduaren metodoen antzeko metodoak biltzen ditu:

- Koenen proba (E1)
- BAM gabia (3a ii)
- Marruskatzeko BAM makina (3b i)

Aurreko saiakuntzak salgai arriskutsuak garraiatzeko gomendatzen dira. Hala ere, CLPren irizpideen arabera<sup>82</sup>, gomendatutako probak hauek dira (440/2008 Erregelamenduaren A.14 metodoaren alternatibak ere badira):

- Koenen proba, konfinamendupeko berotzea ebaluatzeko.
- Gap proba, detonazioaren hedapena ebaluatzeko.
- Denbora/presioa proba konfinamendupeko su-pizterako.

### 9.4.1.2 Peroxido organikoak.

440/2008 (EE) Erregelamenduan ez da saiakuntzarik sartzen.

"Proben eta irizpideen Eskuliburua. Lehengaiak garraiatzeko gomendioak (NBE)" agiriaren arabera, saiakuntzak hiru multzotan banatzen dira:

- Detonazioa zabaltzea (hurrengoetako bat)
  - A.1. 50/60 altzairuzko hodiaren BAM.

<sup>82</sup> 2.1.4.5.1 puntua: "Gai leherkor ezagun bat duten **nahasteen** kasuan, **onartzeko prozedura** aplikatu beharko da".

- A.5. Jarritako hesiarekiko eszitazioa (ONU).
- A.6. Detonazioa (NBE).
- Deflagrazioa zabaltzea (hauetako bat):
  - C.1. Denbora/presioa proba.
  - C.2. Deflagrazio-proba.
- Berotzearen efektua espazio konfinatuan (lehenengoa eta beste bietako bat):
  - E.2. Presio-ontziaren proba (Herbehereak).
  - E.1. Koenen proba.
  - E.3. Presio-ontziaren proba (AEB).

#### 9.4.1.3 Autoerreaktiboak.

440/2008 (EE) Erregelamenduan ez da saiakuntzarik sartzen. .

“Proben eta irizpideen Eskuliburua. Lehengaiak garraiatzeko gomendioak (NBE)” agiriaren arabera, saiakuntzak hiru multzotan banatzen dira:

- Detonazioa zabaltzea (hurrengoetako bat)
  - A.1. 50/60 altzairuzko hodiaren BAM.
  - A.5. Jarritako hesiarekiko eszitazioa (ONU).
  - A.6. Detonazioa (NBE).
- Deflagrazioa zabaltzea (hauetako bat):
  - C.1. Denbora/presioa proba.
  - C.2. Deflagrazio-proba.
- Berotzearen efektua espazio konfinatuan (lehenengoa eta beste bietako bat):
  - E.1. Koenen proba.
  - E.2. Presio-ontziaren proba (Herbehereak).
  - E.3. Presio-ontziaren proba (AEB).

#### 9.4.2 HP2. Erregarria

Substantzia edo hondakin erregarrietarako probak aldatu egiten dira egoera fisikoaren arabera (gasa, likidoa edo solidoa). 440/2008 (EE) Erregelamenduan honako hauek jasotzen dira:

- A.17. Propietate erregarriak (solidoak).



- A.21. Propietate erregarriak (likidoak).

NBEren Eskuliburuan metodo paraleloak jasotzen dira (likidoarena 440/2008 Erregelamenduarenaren baliokidea izanik):

- O.1. proba. Substantzia erregarri solidoetarako proba.
- O.2. proba. Substantzia erregarri likidoetarako proba.

### 9.4.3 HP<sub>3</sub>. Sukoia

Saiakuntzak egin nahi diren ezaugarriaren eta karakterizatutako hondakin-motaren arabera, saiakuntzen erabilgarritasuna beheko ataletan sailkatu dira. Azpimarratzekoa da – eskuragarri dauden saiakuntzen prospekzioan eta halakoak egiten dituzten inguruko laborategien eskuragarritasunean oinarrituta– joera orokorra dela Batzordearen 2008ko maiatzaren 30eko 440/2008 Erregelamenduan (EE) jasotako metodoak baliatzea.

#### 9.4.3.1 Sukoitasun-puntua

1357/2008 (EB) Erregelamenduak xedatzen du hondakin arriskutsu gisa sailkatu behar direla:

Hondakin-mota	Sukoitasun-puntua
Likido sukoiak	< 60 °C
Gasolioak, diesel karburanteak eta berokuntzarako olio arin erabiliak	> 55 °C eta ≤ 75 °C

39. taula: HP<sub>3</sub> gisa sailkatzeaugar-puntuaren arabera.

Metodo gisa, 440/2008 (EE) Erregelamenduak saiakuntza hau eskaintzen du hondakin likidoetarako:

- A.9. Sugar-puntua. Saiakuntza honek saiakuntza egin ahal izateko hainbat metodo eta arau jasotzen ditu, oreka termikoaren baldintzetan ala ez-orekaren baldintzetan egitea esate baterako, eta likido likatsuetarako (behean informazio gisa soilik ematen dira):
  - Oreka-metodoa: ISO 1516, ISO 3680, ISO 1523 eta ISO 3679 arauak.
  - Ez-oreka metodoak:
    - Abel aparatua: BS 2000 arauak, 170. zatia, M07-011 NF eta NF T66-009.
    - Abel-Pensky aparatua: EN 57, DIN 51755 lehen zatia (5-65 °C arteko tenperaturetarako), DIN 51755 bigarren zatia (5 °C-tik beherako tenperaturetarako) eta NF M07-036 arauak.
    - Tag aparatua: ASTM D-56 araua.
    - Pensky-Martens aparatua: ISO 2719, EN 11, DIN 51758, ASTM D 93, BS 2000-34 eta NF M07-019.

Disolbatzaileak dituzten likido likatsuen (pinturak, gomak, etab.)ugar-puntua zehazteko, likido likatsuenugar-puntua zehazteko probak egiteko aparatuak eta metodoak bakarrik erabil daitezke (ISO 3679, ISO 3680, ISO 1523 eta DIN 53213 lehen zatia).

A.9ugar-puntua metodoaren ordezt, saiakuntza egingo duten laborategi eskuragarri aurkitu ezean, NBEren Eskuliburuan bildutako beste metodo batzuk proposatzen dira jarraian. Eskuliburuak kopa itxiko metodoa proposatzen du, estandar eta arau hauen arabera; guztiak baliokideak izanik, salgai arriskutsuen garraiora bideratuagoak daude:

- American Society for Testing Materials Internacional, 100 Barr Harbor Drive, PO Box C700, West Conshohocken, Pennsylvania, USA 19428-2959:
  - ASTM D3828-07a, Standard Test Methods for Flash Point by Small Scale Closed Cup Tester.
  - ASTM D56-05, Standard Test Method for Flash Point by Tag Closed Cup Tester
  - ASTM D3278-96(2004) e1, Standard Test Methods for Flash Point of Liquids by Small Scale Closed-Cup Apparatus
  - ASTM D93-08, Standard Test Methods for Flash Point by Pensky-Martens Closed Cup Tester
- Association française de normalisation, AFNOR 11, rue de Pressensé, 93571 La Plaine Saint-Denis Cedex:
  - Frantziako NF M 07-019 araua
  - Frantziako NF M 07-011 / NFT 30-050 / NFT 66-009 arauak
  - Frantziako NF M 07-036 araua
- Deutsches Institut für Normung, Burggrafenstr. 6, D-10787 Berlín:
  - DIN 51755 araua (65 °C-tik beherakougar-puntuak)
- Estatuko Normalizazio Batzordea, Ministro Kontseilua, 113813, GSP, Mosku, M-49 Leninsky Prospect, 9:
  - GOST 12.1.044-84

Hala ere, aurreko arau eta estandarren araberako saiakuntzen benetako eskuragarritasuna oinarri hartuta, eta halakoak egiteko eskuragarri dauden laborategien eta saiakuntzen prospekzioa kontuan hartuta, **ASTM D56-05, Standard Test Method for Flash Point by Tag Closed Cup Tester**-en oinarritutakoetara bidaltzen da, metodo horren bidezko saiakuntzak egiten dituzten erakundeak daudelako.

- A.13. Solidoen eta likidoen propietate piroforikoak.

NBEren Eskuliburuak, bestalde, metodo hauek aipatzen ditu:

- N2 proba. Solido piroforikoetarako proba-metodoa.
- N3 proba. Likido piroforikoetarako proba-metodoa.

#### 9.4.3.3 Solidoen sukoitasuna

440/2008 Erregelamenduak saiakuntza-metodo hau eskaintzen du:

- A.10 metodoa. 440/2008 (EE) Erregelamenduaren sukoitasuna (solidoak).

Lehenengo ebaluazio baterako atariko saiakuntza eta egiaztapena (emaitza positiboa izanez gero) egiteko metodo hauetako edozein (440 Erregelamendukoaren baliokideak) baliozkoa da, 440 Erregelamendukoa izanik erakunde gehien eskaintzen dituen:

- Sukoitason-ahalmena: ASTM D4982-89 (N.1. probaren *preliminary screening*-aren baliokidea)
- N1 proba (Nazio Batuak<sup>83</sup>). Errekuntzan erraz sartzen diren substantzietarako proba-metodoa.

#### 9.4.3.4 Gasen sukoitasuna

440/2008 Erregelamenduak saiakuntza-metodo hau eskaintzen du:

- A.11. Sukoitasona (gasak).

Bestela, 440/2008 Erregelamenduaren saiakuntza hori egiten duen erakunderik ezean, NBEren Eskuliburuan gomendatutako metodoetara jo daiteke, hondakin-motaren arabera, eta baliokideak izan daitezke:

- 31.4 atala. Aerosol lurrunduetarako urruneko sugar-proba.
- 31.5 atala. Sugar-proba leku itxi batean.
- 31.6 atala. Aerosol-aparren sugar-proba.

#### 9.4.3.4.1 Sukoitasona urarekin kontaktuan

440/2008 (EE) Erregelamenduak saiakuntza hau eskaintzen du:

- A.12 metodoa. Sukoitasona (urarekin kontaktuan).

NBEren Eskuliburuak, berriz, hau aipatzen du:

<sup>83</sup> Salgai arriskutsuen garraioari buruzko gomendioak: proben eta irizpideen eskuliburua. Nazio Batuak. New York eta Geneva, 2009.

- N5 proba (Nazio Batuak). Urarekin kontaktuan gas sukoiak askatzen dituzten substantzietarako proba-metodoa.

Bi metodoak baliokideak dira, baina eskuragarritasun handiena duena 440/2008 (EE) Erregelamenduarena da.

#### 9.4.3.4.2 Autosukoitasuna

440/2008 (EE) Erregelamenduak metodo hauek eskaintzen ditu:

- A.15. Autosukoitasun-tenperatura (likidoak eta gasak).
- A.16. Solidoen autosukoitasunaren tenperatura erlatiboa.

#### 9.4.3.4.3 Autoberotzea

440/2008 (EE) Erregelamenduan ez da saiakuntzarik sartzen.

NBEren Eskuliburuak metodo hau deskribatzen du:

- N4 proba. Bat-bateko berotzea duten substantzientzako proba-metodoa.

Saiakuntza hau egokia da solidoetarako, eta, CLParen irizpideei buruzko ECHAren Gidak<sup>84</sup> dioen bezala, "Self-heat" ezaugarria solidoei bakarrik aplikatzen zaie (likidoek ez baitute nahikoa gainazal airearekin kontaktuan).

#### 9.4.3.4.4 Aerosol sukoiak

440/2008 (EE) Erregelamenduan ez da halako metodorik deskribatzen; baina NBEren Eskuliburuak aerosolen sukoiatasuna zehazteko balio dezaketen metodo hauek deskribatzen ditu:

- 31.4 atala. Aerosol lurrunduetarako urruneko sugar-proba.
- 31.5 atala. Sugar-proba leku itxi batean.
- 31.6 atala. Aerosol-aparren sugar-proba.

### 9.4.4 HP4. Narritadura

Egindako inguruneko laborategi-prospekzioan oinarrituta, eta arriskugarritasun-ezaugarri hori ebaluatzeko eskaintzen dituzten saiakuntzen eskuragarritasunean oinarrituz, saiakuntza-mota gehigarriren bat egin behar izanez gero, behean adierazten da halakoen eskuragarritasuna, eta horien artean –ahal den neurrian– lehentasuna emango zaie in vitro saiakuntzei, animaliarik erabiltzen ez dutelako.

#### 9.4.4.1 Larruzaleko narritadura

440/2008 (EE) Erregelamenduak metodo hau jasotzen du:

<sup>84</sup> 2.11.4.2. Screening procedures and waiving of testing.

- B.4. Toxikotasun akutua: larruzaleko narritadura/korrosioa.

OECDk metodo bera eskaintzen du, baina ez da halakorik egiten duen laborategirik identifikatu:

- 404. testa: Acute Dermal Irritation/Corrosion

In vitro saiakuntzei dagokienez, 440/2008 (EE) Erregelamenduak metodo hau jasotzen du, eta egiten duten laborategien eskuragarritasuna aurkitu da:

- **B.46.** Larruzaleko in vitro narritadura: berregindako giza epidermisarekiko saiakuntza-metodoa.

Eta OECDren antzekoa (ez da laborategien eskuragarritasunik detektatu):

- 439. testa: In Vitro Skin Irritation: Reconstructed Human Epidermis Test Method.
- 431. testa: In vitro skin corrosion: Reconstructed human epidermis (RHE) test method

#### 9.4.4.2 Begiko narritadura

440/2008 (EE) Erregelamenduak in vivo metodo hau barne hartzen du:

- B.5. Toxikotasun akutua: begiko narritadura/korrosioa.

OECDk in vivo metodo bera eskaintzen du:

- 405. testa: Acute Eye Irritation/Corrosion

In vitro saiakuntzei dagokienez, 440/2008 (EE) Erregelamenduak metodo hau jasotzen du, eta egiten duten laborategien eskuragarritasuna aurkitu da:

- **B.48.** Oilasko-begi isolatuaren saiakuntza-metodoa, begietarako intentsitate handiko agente korrosibo eta narritagarriak detektatzeko.
- **B.47.** Behi-kornearen opakutasunaren eta iragazkortasunaren saiakuntza-metodoa, begietarako intentsitate handiko agente korrosibo eta narritagarriak detektatzeko.

Eta OECDren antzekoak (ez da aurkitu halakoak egiten dituzten erakundeen eskuragarritasunik):

- 438. testa: Isolated Chicken Eye Test Method for Identifying i) Chemicals Inducing Serious Eye Damage and ii) Chemicals Not Requiring Classification for Eye Irritation or Serious Eye Damage.

- 437. testa: Bovine Corneal Opacity and Permeability Test Method for Identifying i) Chemicals Inducing Serious Eye Damage and ii) Chemicals Not Requiring Classification for Eye Irritation or Serious Eye Damage.

CLPren irizpideei buruzko ECHAren Gidaren arabera<sup>85</sup>, beste metodo batzuk ez dira erabakigarritzat jotzen: *Fluorescein Leakage (FL) test* (OECD TG 460), etab.

#### 9.4.5 HP5. STOT / Arnasteagatiko toxikotasuna

CLPren irizpideei buruzko ECHAren gidan<sup>86</sup> aipatzen den bezala, ez dago saiakuntza-metodo espezifikorik toxikotasun organoespezifikorako. Sailkapena egiteko, gizakiekin izandako esperientzia edo animaliekin egindako toxikotasun akutuaren, subkronikoaren eta kronikoaren esperientzia baliatzen dira.

##### 9.4.5.1 9.4.5.1. STOT SE

###### 9.4.5.1.1 STOT SE 1 (H370) eta 2 (H371)

1. eta 2. kategoria horiek erreferentzia egiten diete efektu ez-hilgarri adierazgarri edo larrii, esposizio bakarren ondoren, berehalakoa nahiz geroratua.

CLPren irizpideei buruzko ECHAren Gidak *Guidance on IR&CSA*<sup>87</sup> agirira bidaltzen du toxikotasun akutuko metodo horiei dagokienez:

- EU B.1 / OECD TG 401 "Acute Oral Toxicity" (OECDren Gidetatik eta 67/548/EEE Zuzentarauaren V. Eranskinetik ezabatua).
- EU B.1 bis / OECD TG 420 "Acute oral toxicity – Fixed dose procedure".
- EU B.1 ter / OECD TG 423 "Acute oral toxicity – Acute toxic class method".
- OECD TG 425 "Acute oral toxicity – Up-and-down procedure" (2008an eguneratua).
- EU B.3 / OECD TG 402 "Acute dermal toxicity".
- EU B.2 / OECD TG 403 "Acute inhalation toxicity" (2009an eguneratua).
- Draft OECD TG 433 "Acute Inhalation Toxicity, Fixed Dose Procedure".
- EU B.52 / OECD TG 436 "Acute Inhalation Toxicity, Acute Toxic Class Method" (2009an onartua).
- Draft OECD TG 434 "Acute Dermal Toxicity, Fixed Dose Procedure".

<sup>85</sup> 3.3.2.1.2.4 atala.

<sup>86</sup> 3.8.2.1.2. *Identification of non human data*

<sup>87</sup> R.7.4.3.1. atala. *The Guidance on Information Requirements and Chemical Safety Assessment. Chapter R.7a: Endpoint specific guidance.*



Horietatik guztietatik, CLPren irizpideei buruzko ECHaren Gidaren arabera, ez dute balio heriotzan amaitzen diren saiakuntza klasikoek. Hala ere, "fixed dose" edo "up-and-down" metodoek toxikotasun-zeinuen behaketa-tarte zabalagoa dute, eta STOTerako informazioa eman dezakete. Nolanahi ere, laborategi eta saiakuntza eskuragarrien prospekzioan oinarrituta, ez da aurkitu aurreko saiakuntzak hondakinetan egiten dituenik.

CLPren irizpideei buruzko ECHaren Gidak<sup>88</sup> gida-balioen tarte hauek eskaintzen ditu esposizio bakarretarako (efektu ez-hilgarri adierazgarriak ikusten diren kontzentrazioa):

Route of exposure	Units	Category 1	Category 2
Oral (rat)	mg/kg body weight	$C \leq 300$	$2000 \geq C > 300$
Dermal (rat or rabbit)	mg/kg body weight	$C \leq 1000$	$2000 \geq C > 1000$
Inhalation (rat) gas	ppmV/4h	$C \leq 2500$	$20000 \geq C > 2500$
Inhalation vapour (rat)	mg/l/4h	$C \leq 10$	$20 \geq C > 10$
Inhalation dust/mist/fume (rat)	mg/l/4h	$C \leq 1.0$	$5,0 \geq C > 1,0$

18. irudia: Kontzentrazio ez-hilgarrien gida-balioak STOT SE 1 eta 2 saiakuntzen esposizio bakarretan.

#### 9.4.5.1.2 STOT SE 3 (H335)

Hondakin bat arriskutsu gisa sailkatzeko, STOT SE 3 gisa sailkatu beharko ote litzatekeen erabaki beharko litzateke. Hala ere, kategoria horretarako ez dago gida-baliorik<sup>89</sup>. Esposizio bakarraren ondorengo aldi baterako efektuak dira, arnasbidearen narritadura gisa adierazita (zentzumenen narritadura eta efektu zitotoxiko lokalak). CLPk<sup>90</sup> esplizituki adierazten du **ez dagoela saiakuntza espezifikorik**, baina kontuan har litezkeela inhalazioagatiko toxikotasun-saiakuntzetan egindako oharrak. Hala ere, saiakuntza horiei ez zaie balio erabakigarria ematen<sup>91</sup>.

#### 9.4.5.2 STOT RE 1 (H372), eta 2 (H373)

Efektu ez-hilgarri adierazgarriak edo larriak dira, esposizio errepikatuen ondoren, berehalakoak nahiz geroratuak.

Giza epidemiologiari buruzko datuetatik edo animalietan (28 / 90 eguneko arratoia edo sagua) egindako azterketetatik abiatuta egiten da sailkapena. Osagai nagusien toxikotasun kronikoko edo subkronikoko datuak erabiltzea gomendatzen da. Animalia ornodunekiko

<sup>88</sup> 3.8.2.2.1. *Guidance values.*

<sup>89</sup> CLP Erregelamenduak 3.8.2.2.1. apartatuan dio klase hori nagusiki giza datuen bidez ebaluatzen dela.

<sup>90</sup> 3.8.2.2.1. atal bera, c) letra.

<sup>91</sup> "Adibidez, animaliekin egindako azterketek informazio baliagarria eman dezakete toxikotasun klinikoaren (disnea, errinitisa, etab.) eta histopatologiaren (esaterako, hiperemia, edema, hantura minimoa, mukosa-geruzaren loditzea) zeinuei dagokienez; itzulgarriak dira, eta lehen deskribatutako sintoma kliniko bereizgarriak isla ditzakete. Animaliekin egindako azterketa horiek proben pisuaren ebaluaziorako erabili ahal izango dira".

iraupen luzeko saiakuntzak proposatu behar dira substantzien erregistroak egin bitartean eta ECHAk baimendu bitartean; beraz, ez litzateke koherentea izango hondakinekin zuzenean egitea haien arriskugarritasuna ebaluatzeko.

Informazioa eman dezaketen 440/2008 (EE) Erregelamenduaren metodoak behean adierazten direnak izango lirateke; nabarmendu dira laborategien eskuragarritasun-maila dutenak:

- **B.7.** Ahotiko toxikotasuna etengabeko administrazioagatik (28 egun) karraskarietan.
- **B.8.** Inhalaziotagiko toxikotasun subakutua: 28 eguneko azterketa.
- **B.9.** Toxikotasuna larruazal bidez etengabe administratzeagatik (28 egun).
- **B.26.** Ahozko toxikotasun subkronikoaren saiakuntza — ahotiko toxikotasuna etengabeko administrazioagatik (90 egun) karraskarietan.
- **B.27.** Ahozko toxikotasun subkronikoaren saiakuntza — ahotiko toxikotasuna etengabeko administrazioagatik (90 egun) karraskariez bestelakotan.
- **B.28.** Toxikotasun dermiko subkronikoa — 90 eguneko saiakuntza karraskarietan.
- **B.29.** Inhalaziotagiko toxikotasun subkronikoa: 90 eguneko azterketa.

OECDren saiakuntza analogo hauen kasuan, ez da aurkitu halakoak egiten dituzten erakunderik:

- 407. testa: Repeated Dose 28-day Oral Toxicity Study in Rodents.
- 412. testa: Subacute Inhalation Toxicity: 28-Day Study.
- 410. testa: Repeated Dose Dermal Toxicity: 21/28-day Study.
- 408. testa: Repeated Dose 90-Day Oral Toxicity Study in Rodents.
- 409. testa: Repeated Dose 90-Day Oral Toxicity Study in Non-Rodents.
- 411. testa: Subchronic Dermal Toxicity: 90-day Study.
- 413. testa: Subchronic Inhalation Toxicity: 90-day Study.

STOT SEren kasuan bezala, CLP Erregelamenduaren irizpideei buruzko ECHaren Gidak gida-balioak eskaintzen ditu (arratoiekin egindako 90 eguneko saiakuntzetarako), eta balio horiek baligarriak izan daitezke hondakin bat sailkatzeko orduan, kontzentrazio hauetan efekturik izanez gero:

Study type	Species	Unit	Category 1 90-day	Category 1 28-day	Category 2 90-day	Category 2 28-day
Oral	Rat	mg/kg bw/d	≤ 10	≤ 30	≤ 100	≤ 300
Dermal	Rat	mg/kg bw/d	≤ 20	≤ 60	≤ 200	≤ 600
Inhalation, gas	Rat	ppmV/6 h/d	≤ 50	≤ 150	≤ 250	≤ 750
Inhalation, vapor	Rat	mg/l/6 h/d	≤ 0.2	≤ 0.6	≤ 1	≤ 3
Inhalation, dust/mist/fume	Rat	mg/l/6 h/d	≤ 0.02	≤ 0.06	≤ 0.2	≤ 0.6

19. irudia: Kontzentrazioen gida-balioak 90/28 eguneko esposizioen ondoren STOT RE 1 eta 2 saiakuntzetan.

Hondakin bat sailkatzeko balioak 2. kategoriari dagozkionak izango lirateke. 90 eguneko saiakuntzetarako, gida-balioak 10ez biderkatuko dira.

#### 9.4.6 HP6. TOXIKOTASUN AKUTUA

440/2008 (EE) Erregelamenduaren metodoak<sup>92</sup> hauek dira:

- **B.1 bis.** Ahotiko toxikotasun akutua. Dosi finkoen metodoa.
- B.1 ter. Ahotiko toxikotasun akutua. Toxikotasun akutuko moten metodoa.
- **B.3.** Toxikotasun akutua larruzaletik.
- **B.2.** Inhalazioagatiko toxikotasun akutua.
- **B.52** Inhalazioagatiko toxikotasun akutua. Toxikotasun akutuko moten metodoa.
- **B.7** Ahozko toxikotasuna etengabeko administrazioagatik (28 egun) karraskarietan

OECDren antzekoak:

- 420. testa: Acute Oral Toxicity - Fixed Dose Procedure.
- 423. testa: Acute Oral toxicity - Acute Toxic Class Method.
- 402. testa: Acute Dermal Toxicity.
- 403. testa: Acute Inhalation Toxicity.

<sup>92</sup> Letra lodiz nabarmendu direnen kasuan, ez da aurkitu kontsultatutakoen artean halakoak egiten dituzten laborategiak. Prezio-tartea 1.600 €-tik eta 37.000 €-ra bitartekoa da saiakuntza bakoitzeko gida hau argitaratzen den egunean.

- 436. testa: Acute Inhalation Toxicity – Acute Toxic Class Method.

LD50/LC50en emaitzak balio hauekin konparatuko lirateke:

Esposizio-bidea		4. kategoria
Ahotikoa (mg/kg)		≤ 2.000
Dermikoa (mg/kg)		≤ 2.000
Inhalazioa*	Gasak (ppm bolumenean)	≤ 20.000
	Lurrinak (mg/l)	≤ 20
	Hautsak eta lainoak (mg/l)	≤ 5

40. taula: LD50/LC50 saiakuntzen bidez HP6 sailkatzeko.

\* 4 orduko esposiziorako balioak. 1 h-ko saiakuntzetarako, taulako balioak 2z zatitu behar dira (gasak eta lurrinak) edo 4z (hautsak eta lainoak).

#### 9.4.7 HP7. Kartzinogenoa

CLP Erregelamenduaren irizpideei buruzko ECHAren Gidak<sup>93</sup> ez du metodo zehatzik eskaintzen, baina IR&CSA<sup>94</sup> Gidara bidaltzen du. Gida horretan, epe luzeko azterketa<sup>95</sup> arrunt hauek azaltzen dira:

- B.32. 440/2008 (EE) Erreg. - 451. testa: *Carcinogenicity Studies*.
- B.33. 440/2008 (EE) Erreg. - 453. testa: *Combined Chronic Toxicity/Carcinogenicity Studies*.
- US-EPA. *Health Effects Test Guidelines OPPTS 870.4200 Carcinogenicity*.

**Ez dago muga kuantitatiborik saiakuntza hauetarako**, gizakiengan duten ahalmen kartzinogenoaren arabera egiten baita sailkapena. Animaliekin egindako saiakuntzen emaitzetatik abiatuta, beharrezkoa izango litzateke zehaztea hondakina, gutxienez, "susmagarri" (H351) gisa sailka ote daitekeen.

CLP Erregelamenduaren sailkapen-irizpideen gidak<sup>96</sup> substantziak sailkatzeko informazio-iturri gehigarri posibleei egiten die erreferentzia, baina ez dirudi bideragarria denik hondakinen kasuan.

#### 9.4.8 HP8. Korrosibotasuna

Korrosibotasunaren ezaugarrirako narritadurarako egiten diren saiakuntza berak erabiltzen dira (ikus 9.4.4. atala).

<sup>93</sup> 3.6.2.1. *Identification of hazard information*

<sup>94</sup> Apartado 7.7.10.1 *Non-human data on carcinogenicity*

<sup>95</sup> 440/2008 Erregelamenduaren saiakuntzak egiten dituen laborategi bakarra aurkitu da kontsultatutako guztien artean. Saiakuntza horien prezio-tartea 700.000 €-tik gorakoa da Gida hau argitaratzen den egunean.

<sup>96</sup> Azterketa epidemiologikoak, QSAR analisiak, antzeko egiturako substantzietatik estrapolatzea, in vitro saiakuntzak, etab.

Azido eta base indartsuetarako, hau da, hondakinaren pH-a  $\leq 2$  edo  $\geq 11,5$  denean, hondakina korrosibotzat joko da, bi baldintza hauek betetzen direnean izan ezik:

- pH + 1/12 erreserba alkalinoa  $< 14,5$  edo pH - 1/12 erreserba azidoa  $> -0,5$

Erreserba azidoa edo alkalinoa metodo hauetako baten arabera zehaztu behar da, eta, horien artean, laborategiek UNE-CEN/TS 15364:2008 arauan oinarritutakoa bakarrik egiten dutela jaso da:

- CLP metodoa: Young, J.R. How, M.J., Walker, A.P y Worth, W.H.M, 1988. "Substantzia azidoak edo alkalinoak dituzten prestakinak azalerako korrosibo edo narritagarri gisa sailkatzea, animaliekin saiakuntzarik egin gabe". Toxicology in vitro 2 (1): 19-26.
- **UNE-CEN/TS 15364:2008** "Hondakinen karakterizazioa - Portaera-saiakuntzak lixibiazioan zehar - Neutralizazio azido eta oinarritzorako ahalmenaren saiakuntzak".
- UNE-EN 14429:2015 "Hondakinen karakterizazioa. Portaera-saiakuntza lixibiazioan zehar. pH-aren eragina lixibiazioan hasierako azidoa/basea gehikuntzarekin".
- UNE- EN 14997:2015 "Hondakinen karakterizazioa - Portaera-saiakuntza lixibiazioan zehar - pH-aren eragina lixibiazioan pH-aren etengabeko kontrolarekin".
- OECD 122. testa: *Determination of pH, Acidity and Alkalinity*.

- Saiakuntzek erakusten dute korrosibotasunik/narritadurarik eza.

#### 9.4.9 HP9. Infekziosoa

Ezaugarri honetarako ez dira aplikagarriak saiakuntza-metodoak.

#### 9.4.10 HP10. Ugalketarako toxikoa

CLP<sup>97</sup> araudian, ugalketarako toxikotasunaren ezaugarriak hiru adierazpen posible ditu:

- Funtzio sexuala edo ugalkortasuna.
- Jaio aurreko garapena.
- Bularra emanez (azken hau ez da kontuan hartzen hondakinak sailkatzeko<sup>98</sup>).

Hauek dira 440/2008 (EE) Erregelamenduan ezarritako saiakuntzak<sup>99</sup>:

<sup>97</sup> 3.7.1.2. atala.

<sup>98</sup> H362 da, alegia, ez da 1357/2014 Erregelamenduan jasotzen.

<sup>99</sup> Kontsultatutako guztien artean erreprotoxikotasun-saiakuntza horiek egiten dituen laborategi bakarra aurkitu da. Saiakuntzen kostua 73.000 €-tik 445.000 €-ra bitartekoa da saiakuntza bakoitzeko Gida hau argitaratzen den egunean.

- B.31. Jaio aurreko garapenerako toxikotasun-azterketa.
- B.34. Belaunaldi bateko ugalketa-saiakuntza.
- B.35. Toxikotasun-azterketa ugalketarako 2 belaunalditan.
- B.56. Toxikotasun-azterketa zabaldua ugalketarako 1 belaunalditan.

OECDren antzeko metodoak (ez da aurkitu halakoak egiten dituzten laborategien eskuragarritasunik):

- 414. testa: Prenatal Development Toxicity Study.
- 415. testa: One-Generation Reproduction Toxicity Study.
- 416. testa: Two-Generation Reproduction Toxicity.
- 443. testa: Extended One-Generation Reproductive Toxicity Study.

CLP araudiaren sailkapen-irizpideen Gidak bidaltzen duen IR&CSA Gidan beste metodo batzuk aipatzen dira<sup>100</sup>: *in vitro*, *in silico*, *in chemico*, OECD GD 184, OECD TG 421, OECD TG 422, EU B.7, EU B.10, EU B.54, OECD TG 440, OECD GD 71, EU B.55, OECD TG 441 y GD 115, *Chernoff/Kavlock tests*, *a modified one-generation study by NTP (National Toxicology Program, U.S. Department of Health and Human Services, etab.* Hala ere, ez da aurkitu saiakuntza horiek egiten dituen laborategirik.

**Ez dago muga kuantitatiborik saiakuntza hauetarako**, gizakiengan duten ahalmen teratogenikoaren arabera egiten baita sailkapena. Animaliekin egindako saiakuntzen emaitzetatik abiatuta, beharrezkoa izango litzateke zehaztea hondakina, gutxienez, "susmagarri" (H361) gisa sailka ote daitekeen.

#### 9.4.11 HP11. Mutagenikoa.

Substantzia mutagenikoen efektu kaltegarriak askotarikoak izan daitezke:

- Mutazio genetikoa (pareak ordeztzea, gehitzea edo kentzea).
- Aberrazio kromosomikoak (egitura edo kopurua).

Hori dela-eta, saiakuntza asko daude. CLP Erregelamenduak lehentasuna ematen die 440/2008 (EE) Erregelamenduko saiakuntzei (hala ere, Erregelamenduaren oinarri diren OECDren antzeko metodoak ere jasotzen dira). REACH Erregelamenduan lehentasun bat ezartzen da, erabakietarako zuhaitz baten edo jarraitu beharreko ibilbide baten bidez ezaugarri hori ebaluatzeko egokiena den saiakuntza-hurrenkera zehaztuz. Horrela, gomendatzen da *in vitro* saiakuntzetatik hastea hurrengoetara pasatu aurretik. Kasu

<sup>100</sup> R.7.6.3 atala. *Information sources on reproductive toxicity.*

gehienetan, *in vitro* saiakuntza bat edo bi bakarrik beharko dira, hondakinean dauden kutsatzaileen kontzentrazioari buruzko proben haztaperen batekin batera. Behean, saiakuntzak adieraziko dira<sup>101</sup>:

- In vitro mutagenesi-saiakuntzak, hala nola:
  - **B.10.** Ugaztunetako aberrazio kromosomikoen in vitro saiakuntza. (OECD TG 473).
  - **B.13/14.** Alderantzizko mutazio-saiakuntzak bakterioetan. (OECD TG 471).
  - B.15 Mutagenesi-saiakuntzak eta kartzinogenesi-detekzioa - Mutazio genetikoa
  - *Saccharomyces cerevisiae*
  - B.17. Mutazio genikoa in vitro ugaztun-zeluletan. (OECD TG 476).
- Mutagenesi hereditarioaren in vivo saiakuntzak zelula germinaletan:
  - B.22. Mutazio hilgarri nagusiaren saiakuntza karraskarietan.
  - B.25. Translokazio hereditarioaren saiakuntza saguetan.
- Mutagenesiaren in vivo saiakuntzak zelula somatikoetan:
  - B.11. Aberrazio kromosomikoen saiakuntza ugaztunaren hezur-muinean. (OECD TG 475).
  - B.24. Orbanaren saiakuntza saguetan.
  - **B.12.** Mikronukleoen saiakuntza ugaztunen eritrozitoetan. (OECD TG 474).
- Mutagenesi- edo genotoxikotasun-saiakuntzak zelula germinaletan:
  - Mutagenikotasun-saiakuntzak:
    - B.23. Aberrazio kromosomikoen saiakuntza ugaztunaren espermatogonietan. (OECD TG 483).
  - Genotoxikotasun-saiakuntzak:
    - B.19. Kromatida ahizpen espermatogonietako trukeen analisia.
    - B.18. Barrabileko zeluletako DNAREN (UDS) sintesi-saiakuntza programatu gabea.
- Genotoxikotasun-saiakuntzak zelula somatikoetan, esaterako:

<sup>101</sup> Adierazitako saiakuntza guztien artean, 440/2008 Erregelamenduari dagozkion eta nabarmenduta dauden saiakuntzak egiten dituen erakunde bakarra aurkitu da. Saiakuntza bakoitzari lotutako kostua 2.500 €-tik 26.000 €-ra bitartekoa da Gida hau argitaratzen den egunean.

- B.39. Gibelego DNaren (UDS) in vivo saiakuntza programatu gabea. (OECD TG 486).

Ezaugarri horretarako ez dago muga kuantitatiborik saiakuntzen emaitzetarako.

#### 9.4.12 HP12. Toxikotasun akutuko gas bat askatzea.

Ezaugarri honetarako berez ez da saiakuntzarik preskribatzen 440/2008 (EE) Erregelamenduan. Ezaugarri horren oinarria hau da:

Urarekin edo azidoekin kontaktuan toxikotasun akutuko (1, 2 edo 3 kategoriak) gasak kantitate arrisksuetan askatzen dituzten hondakinak dira. Gas toxikoak hauek izango lirateke, nagusiki<sup>102</sup>:

- Hidrogeno sulfuroa.
- Hidrogeno fluoruroa.
- Karbono disulfuroa.
- Sufre dioxidoa.
- Kloroa.
- Nitrogeno dioxidoa.
- Amoniakoa.
- Hidrogeno zianuroa.

Gas horiek kiloko eta orduko litro batean askatu beharko lirateke. Askatze-tasa hori zehazteko, hondakinen sailkapenari buruzko Europako Batzordearen Gidak bidaltzen du CLP Erregelamenduaren irizpideak ezartzeari buruzko ECHAren Gidaren 2.12 atalean deskribatutako saiakuntzara; hau da, NBEren Eskuliburuaren metodo honetara:

- N5 proba. Urarekin kontaktuan gas sukoiak askatzen dituzten substantzietarako proba-metodoa.

Hala ere, kontsultatutako guztien artean ez da aurkitu saiakuntza hori egiten duten laborategirik. Horregatik, proposatzen da 440/2008 Erregelamenduaren (EE) saiakuntza hau egitea (laborategi batzuek egiten dituzte):

- A.12. Sukoitasuna (urarekin kontaktuan).

Azidoekin kontaktuan askapen-tasa zein den egiaztatzeko, hondakinen sailkapenari buruzko Europako Batzordearen Gidak dio hondakinek EUH031 edo EUH032 substantziak

<sup>102</sup> Ikus hondakinen sailkapenari buruzko Europako Batzordearen Gidaren C.12 Eranskinaren C.12 atala.



dituztenean saiakuntzako ura ordeztu daitekeela azido klorhidrikoaren 1 M-eko disoluzio batekin.

Horrez gain, zianuroak eta sulfuro errektiboak zehazteko saiakuntza espezifikoak eskuragarri daude prospekzioan kontsultatutako laborategi gehienetan.

#### 9.4.13 HP13. Sentsibilizagarria

Ezaugarri hau larruazalaren erreakzio alergiko baten (H334) edo erreakzio alergikoaren edo asmaren zein arnas zailtasunen (H317) ondorio izan daiteke inhalatzen bada. Arnas sentsibilizatorako ez dago ebaluazio zuzena ahalbidetzen duen saiakuntzarik<sup>103</sup>. Aldiz, larruazalaren sentsibilizazioari dagokionez, 735/2017 Erregelamenduak –440/2008 (EE) Erregelamendua aurrerapen teknikora egokitzen duenak– honako hauek eskaintzen ditu; B.59 eta B.60, ahal dela, konposizioaren eta/edo egitura kimikoaren – ekintza-moduaren arabera egingo dira.440/2008 ofrece los siguientes, siendo el B.59. y el B.60. los que preferiblemente se realizarán en función de la composición y/o estructura química – modo de acción.

Behean, 440/2008 Erregelamenduaren saiakuntzak<sup>104</sup> adieraziko dira:

- B.59. Larruazaleko in Chemico sentsibilizazioa: erreakzio peptidikoaren zuzeneko saiakuntza (DPRA)
- B.60. Larruazaleko in vitro sentsibilizazioa: ARE-NRF2 luziferasaren saiakuntza-metodoa
- **B.6.** Larruazalaren sentsibilizazioa.
- **B.42.** Larruazalaren sentsibilizazioa: gongoil linfatiko lokalekin egindako saiakuntza.
- B.50. Larruazalaren sentsibilizazioa: gongoil linfatiko lokalekin egindako saiakuntza: DA.
- **B.51.** Larruazalaren sentsibilizazioa: gongoil linfatiko lokalekin egindako saiakuntza: BrdU-ELISA.

IR&CSA<sup>105</sup> Gidan gomendatzen da, REACH Erregelamenduaren VII. eranskinaren arabera, informazio berria sortu behar dela in Chemico/in vitro metodoetatik hasita, B.42 metodoa erabili aurretik.

Behean, OECDren antzeko saiakuntzak adierazten dira (kontsultatutakoen artean ez da aurkitu halakoak egiten dituzten laborategien eskuragarritasunik):

<sup>103</sup> IR&CSA Gidaren E.7.3.7.9 atala.

<sup>104</sup> Adierazitako saiakuntza guztien artean, nabarmenduta dauden saiakuntzak egiten dituen erakunde bakarra aurkitu da. Saiakuntza bakoitzari lotutako kostua 4.400 €-tik 7.700 €-ra bitartekoa da Gida hau argitaratzen den egunean.

<sup>105</sup> R.7.3.7.2. atala. Non-human data for skin sensitisation.

- 406. testa: Skin Sensitisation.
- 429. testa: Skin Sensitisation Local Lymph Node Assay.
- 442A testa: Skin Sensitization Local Lymph Node Assay: DA.
- 442B testa: Skin Sensitization Local Lymph Node Assay: BrdU-ELISA.
- B.4.2 metodoaren antzeko metodoa da OECDren 229. metodoa.

#### 9.4.14 HP14. Ekotoxikoa

Hondakin baten ekotoxikotasunaren ezaugarria hainbat substantziaren (metalak, olioak, HAP, etab.) efektu konbinatuei zor dakieke. Osagai guztien efektu globalak eragin handiena duen ezaugarria da. Beraz, saiakuntzak nahiko maiz egingo dira.

Konposizio kimikoa ondo ezagutzen den edo konposatu interesgarriak hautatzeko adina informazio duten hondakin-karakterizazioetan, 2017/997 Erregelamenduan jasotako kalkulu-metodoa aplikatu ahal izango da. Horretarako, horretarako diseinatutako kalkulu-orria (HP 14 FITXA) erabili ahal izango da, eta bere funtzionamendua dokumentu honen **11. eranskinean** azaltzen da.

2017/997 Erregelamenduak kalkulu-metodoa soilik arautzen badu ere, bertako zioen azalpena saiakuntzei buruzkoa da; hala, gogorarazten du komeni dela 14/2008 Erregelamenduan (EE) ezarrita daudenak aplikatzea edo nazioartean aitortuta dauden bestelako saiakuntza-metodo eta -gidalerroak aplikatzea.

Estatuan arau bat dago, 1989ko urriaren 13ko Agindua, ekotoxikotasuna ebaluatzeko zer saiakuntza egin behar diren arautzen duena eta formalki indargabetu ez dena. Hala ere, 1357/2014 Erregelamenduak aitortutako nazioarteko arauetara bidaltzen du, eta, beraz, ez da onartzen agindu hori erabiltzea. Behean, Erregelamenduan aipatzen denaren eta Europako esperientzia ezagunen arabera erabili beharreko saiakuntzak proposatzen dira.

##### 9.4.14.1 Saiakuntza-motak

Europako gainerako herrialdeekin bat etorritik, saiakuntza-multzo bat ezarri behar dela uste da.


MITERDek garatutako Gidan adierazitakoaren arabera, hondakin baten ekotoxikotasuna zehazteak dakarren konplexutasuna dela-eta, ezaugarri hori ebaluatzeko egin behar diren saiakuntzak hondakinaren ondorengo kudeaketaren mende egongo dira.

Hondakina oraindik arriskutsu gisa sailkatu ez bada, baina azken helmuga gisa balorizazio energetikoa, erraustea edo zabortegean uztea bada, nahikoa izango litzateke **ingurune urtarreko** ekotoxikotasun **akutua eta kronikoa** ebaluatzea ezaugarri horretan oinarrituta hondakina arriskutsu gisa sailkatzeko edo desklasifikatzeko.

Hondakina oraindik ez bada arriskutsutzat sailkatu, baina azken helmuga gisa aurreko paragrafoan aipatutakoez bestelako eragiketa bat badu esleituta, **uretako ekotoxikotasun**

**akutua eta kronikoa** eta **lehorreko** toxikotasuna zehaztu beharko dira, hondakin hori material edo baliabide berrietara itzuliko baita, eta funtsezkoa da ezaugarri horiek kontrolatzea.

Ingurumenerako toxikotasuna ebaluatzeko, 440/2008 Erregelamenduan (EE) ezarritako saiakuntza-metodoak edo nazioartean aitortutako beste saiakuntza-metodo batzuk erabiliko dira. Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta, hartu beharreko erabakien zuhaitza hau izango litzateke:



21. irudia: Saiakuntzak hondakinaren amaierako jomugan oinarrituta egiteko irizpidea.

#### 9.4.14.1.1 Uretako toxikotasun akutuaren saiakuntzak:

CLP Erregelamendua erreferentzia gisa erabiliz, uretako toxikotasun-saiakuntzen multzoa uretako hiru organismok (Daphnia, arrainak eta algak) osatuta egongo litzateke.

1357/2014 (EB) Erregelamenduak ez du inolako hierarkiarik ezartzen metodoen artean; beraz, L(E)C<sub>50</sub> zehazteko aurrerago adierazitako edozein erabil liteke.

#### Daphnia magna:

- **C2 metodoa.** Daphnia sp.-ren immobilizazio akutuko saiakuntza, 440/2008 (EE) Erregelamenduan deskribatua, OECDren 202. metodoaren baliokidea.
- OECD 202. metodoa. Daphnia sp. Acute Immobilisation Test.
- UNE-EN ISO 6341:2013 metodoa. Uraren kalitatea. Daphnia magna Straus-en (Cladocera, Crustacea) mugikortasunaren inhibizioa zehaztea. Toxikotasun akutuaren saiakuntza.

**Algak:**

- **C3 metodoa.** Algak inhibitzeko saiakuntza, 440/2008 Erregelamenduan (EE) deskribatua, (OECDren 201. metodoaren baliokidea).
- OECD 201. metodoa. Freshwater Alga and Cyanobacteria, Growth Inhibition Test.
- **UNE-EN ISO 8692:2012.** Uraren kalitatea. Ur gezako algak haztearen inhibizio-saiakuntza alga berde zelulabakarrekina.

**Arrainak:**

- C1 metodoa. Toxikotasun akutua arrainetan, 440/2008 (EE) Erregelamenduan deskribatua.
- OECDren Fish, Acute Toxicity Test-en 203. metodoa.
- ISO 7346/1, /2 eta /3 metodoa — Water Quality — Determination of the acute lethal toxicity of substances to a fresh water fish (Bracbydanio rerio Hamilton-Buchanan — Teleostei, Cyprinidae).

Hala ere, Europako Batzordearen Gida argitaratu ondoren (2018/C 124/01), ornodunekiko saiakuntzak baztertu dira arriskugarritasun-ezaugarri honetarako; beraz, *Daphniari eta* algei dagozkienak baino ez dira erabiliko (saiakuntza bat hautatuz organismo bakoitzerako).

**9.4.14.1.2 Uretako toxikotasun kronikoaren saiakuntzak:****Daphnia magna:**

- 440/2008 (EE) Erregelamenduaren **C.20 metodoa.** Daphnia magna ugaltzeko saiakuntza.
- OECD 211. testa: Daphnia magna Reproduction Test.

**Algak:**

- UNE-EN ISO 8692:2012 metodoa. Uraren kalitatea. Ur gezako algak haztearen inhibizio-saiakuntza, alga berde zelulabakarrekina (**ekotoxikotasun akaturako erabilitako saiakuntza bera da, eta, beraz, ez litzateke errepikatu beharko**).

**Toxikotasun akaturako planteatu den bezala, toxikotasun kronikoaren kasuan saiakuntza bat egin beharko litzateke organismo bakoitzeko.**

**9.4.14.1.3 Lehorreko toxikotasun-saiakuntzak:****Bakterioak:**

- UNE-EN ISO 18187:2018. Lurzoruaren kalitatea. Kontaktu-saiakuntza lagin solidoetarako *Arthrobacter globiformis*-en deshidrogenasaren jardueraren bidez.

**Landareak:**

- C31 metodoa. Lehorreko landareekiko saiakuntza: larrialdietako saiakuntza eta plantulen hazkundera, OECDren 208. metodoaren baliokidea.
- OECD 227. metodoa. Terrestrial plant test. Vegetative Vigour Test.

**Zizareak:**

- C33 metodoa. Lur-zizareak (*Eisenia fetida*) ugaltzeko saiakuntza

**Gutxienez, saiakuntza bat egin beharko da landareetan, eta beste bat bakterioen edo zizareen saiakuntzen artean aukeratuko da, aurreko metodoetako baten arabera.**

**9.4.14.2 Saiakuntza-disoluzioa**

Lehen mailako alderdi garrantzitsu bat da laginak nola prestatu behar diren zehaztea dagozkien saiakuntzak egin aurretik. Laginak prestatzeko arau espezifiko bat dago (EN 14735), eta laburpen-taula hau eskaintzen du:

Categoría de residuo	Preparación de extracto acuoso	Mezclas para los ensayos realizados en organismos acuáticos	Mezclas para los ensayos realizados en organismos terrestres
Residuos con tamaño de partícula inferior a los 4 mm (originalmente o después del pre-tratamiento)	Ensayo de lixiviación según la Norma EN 12457-2	El eluato se diluye con el medio de dilución medio del ensayo seleccionado de ecotoxicidad	– El residuo se mezcla con el medio de dilución <sup>a</sup> – El eluato se añade al agua usada para humedecer el medio de dilución
Lodos	Ensayo de lixiviación según la Norma EN 12457-2	El eluato se diluye con el medio de dilución medio del ensayo seleccionado de ecotoxicidad	– El residuo se mezcla con el medio de dilución <sup>b</sup> – El eluato se añade al agua usada para humedecer el medio de dilución
Lodos líquidos	Separación de líquidos y partículas por centrifugación	El extracto acuoso se diluye con el medio de dilución del ensayo seleccionado de ecotoxicidad	El extracto acuoso se añade al agua usada para humedecer el medio
Residuos líquidos (miscibles con agua)	No relevante	El extracto acuoso se diluye con el medio de dilución del ensayo seleccionado de ecotoxicidad	El residuo se añade al agua usada para humedecer el medio de dilución
Residuos líquidos (no miscibles con agua)	Extracción líquido/líquido (Proporción líquido/líquido = 10)	El extracto acuoso se diluye con el medio de dilución del ensayo seleccionado de ecotoxicidad	– El residuo se mezcla con el medio de dilución – El extracto acuoso se añade al agua usada para humedecer el medio

*2o. irudia: Ekotoxikotasun-saiakuntzaren nahastearen prestaketa-xehetasunak.*

Dokumentu honen proposamena da gidalerro horiek jarraitzea, funtsezkotzat jotzen baita emaitzak konparatu ahal izateko arau harmonizatuak aplikatzea. Kontsultatutako laborategien iritzia<sup>106</sup> ahobatezkoa da: denek egin dute lagina EN 12457 lixibiatuaren bidez prestatzeko beharraren alde taulan adierazitako lehen 2 kasuetan.

Hala ere, litekeena da lixibiatua prestatzeko modu horrekin hondakin baten kutsatzaileak mobilizatzea ez lortzea. EN 14735 arauak ez ditu aipatzen, adibidez, oso disolbagarriak ez diren hondakinak. Hala ere, kontuan hartu behar da ingurune urtarreko toxikotasuna

<sup>106</sup> Tecnalabaqua, Uriker, Iproma, Tecnoambiente, ALS, Zebrafish Lab eta Carlos III.

ebalatu behar dela, eta, hondakinak ez baditu kutsatzaileak mobilizatzen, uretan izan dezakeen toxikotasun baxua adieraz dezakeela.

Kasu horietarako dagoen erreferentzia bakarra OECDren agiri batean dago, substantzia eta nahaste zailekin egindako saiakuntzei buruzkoa. Hala ere, agiri horren zehaztasun-maila mugatua da, eta, beraz, aurreikusten da hainbat laborategik metodo desberdinak aplikatu ahal izatea laginak prestatzerakoan.

Era berean, UNE-CEN TR 16110 IN arauak (Hondakinen karakterizazioa. Hondakinei aplikatutako ekotoxikotasunari buruzko saiakuntza erabiltzeko Gida), laginaren prestaketan eta ekotoxikotasun-saiakuntzen hautaketan eragin dezaketen parametroen ebaluazioa egiten du.

Azaldutako guztiarekin bat etorritik, saiakuntzak **lixibiatuaren gain** egingo dira, **UNE EN 12457 arauaren 2. zatiaren arabera prestatua** (edo 4. zatiaren arabera partikularen tamaina 4 mm-ra murriztu ezin denean).

#### 9.4.14.3 Mugak

440/2008 (EE) Erregelamenduaren metodoen (C1, C2 eta C3) deskribapenean, aipatzen da mugako saiakuntza bat 100 mg/l-ko kontzentrazioan (edo, txikiagoa balitz, disolbagarritasun-mugaren kontzentrazio berdinean) egiteko aukera. Horrela, ekotoxikotasuna bazter liteke  $L(E)C_{50} > 100$  mg/l (edo disolbagarritasun-muga baino handiagoa) dela frogatzen bada.

CLP Erregelamenduak  $CE_{50} \leq 1$  mg/l kontzentrazioa ezartzen du substantziak beren toxikotasun akutuaren arabera sailkatzeko. Toxikotasun kronikorako daturik ezean (NOEC<sup>107</sup>), CLPk aukera ematen du substantzia bat uretako toxikotasun kronikoaren kategorietan sailkatzeko uretako toxikotasun akutuaren datuetan oinarrituta, kontuan hartuz substantzia horren degradagarritasun- eta biometatze-datuak. Degradazio- eta biometatze-saiakuntzek zentzurik ez dutenez nahasteetarako –interpretazio zailekoak direlako banakako substantzietara bideratuta baitaude–, hondakin baten uretako toxikotasun kronikoa ebalatu beharko da (substantzia-nahaste bat denean), substantzien toxikotasun kronikoaren saiakuntzen bidez. Substantzia purua izango balitz, NOEC bidez egin daiteke, adibidez.

Hauek dira CLP Erregelamenduan substantziak ingurune urtarreko arriskutsu gisa sailkatzeko ezarritako mugak:

<sup>107</sup> No observed effect concentration

Kategoria	L(E)C <sub>50</sub> <sup>108</sup>
Aquatic Acute	1 mg/l
Aquatic Chronic 1	1 mg/l
Aquatic Chronic 2	10 mg/l
Aquatic Chronic 3	100 mg/l

4.1. taula: Substantziak ingurune urtarrerako arriskutsu gisa sailkatzeko mugak (CLP).

Hauek dira nahasteak ingurune urtarrerako arriskutsu gisa sailkatzeko mugak, CLP Erregelamenduan ezarriak, nahastearen toxikotasun-datuak daudenean:

Kategoria	L(E)C <sub>50</sub>	NOEC
Aquatic Acute	1 mg/l	-
Aquatic Chronic 1 – 2	-	1 mg/l
Aquatic Chronic 4	-	1 mg/l

4.2. taula: Nahasteak ingurune urtarrerako arriskutsu gisa sailkatzeko mugak (CLP)

100 mg/l-ko muga, CLPn, biodegradagarritasuna kontuan hartuz modulutzen da. L(E)C<sub>50</sub> txikiagoa izan arren, ez litzateke toxikotasun kronikorik egongo biodegradagarritasun azkarra erakusten bada. Hala ere, kontrako frogarik ezean, Erregelamenduak pentsarazi nahi digu ez dagoela biodegradagarritasun azkar hori horri buruzko daturik ezean.

CLP Erregelamenduak berak dio biodegradazio- (eta biometaketa-)saiakuntzak ez direla nahasteetarako erabiltzen (interpretazio zailekoak direlako) eta substantzia indibidualetarako soilik dutela zentzua. Kontsulta egin zaion laborategi batek berretsi du saiakuntzak egin daitezkeela, baina haien fidagarritasuna oso mugatua izango litzatekeela eta, beraz, ez dutela gomendatzen hondakinak sailkatzeko erabiltzea.

Hurbilketa praktiko gisa, toxikotasun kronikoko saiakuntzak egiteko eskaintza nahikorik ez dagoen bitartean, agiri honetan proposatzen da kasurik txarrenetik abiatzea beti: hondakinak ez dira biodegradagarriak, eta ekotoxikoak izango dira baldin eta beren L(E)C<sub>50</sub> ≤ 100 mg/l bada.

Beraz, saiakuntzak bi organismo-motekin (Daphnia eta algak) egin behar dira, eta edozein hondakin arriskutsu gisa sailkatu behar da baldin eta saiakuntza horietako batek gutxienez L(E)C<sub>50</sub> ≤ 100 mg/l emaitza ematen badu.

Hondakin likido bat kontuan hartuta, ekotoxikoa izango litzateke baldin eta saiakuntza egindako populazioaren % 50k eragina jasango balu hondakinaren 100 mg-ko (edo gutxiagoko) nahaste edo diluzio batean.

Hondakin solidoen kasuan, detektatu da kasu batzuetan laborategiak emaitzak mg/l-tan ematen ari direla saiakuntza-disoluzioan dagoen lixibiatu-kontzentrazioari erreferentzia

<sup>108</sup> Adierazitako mugek aurreikusten dute substantzia ez dela azkar degradatzen. Uretako toxikotasun kronikoaren balioen kasuan, uretako toxikotasun kronikoaren datu egokirik ez dutenez, aurreikusten dute substantzia biometagarria dela.

eginez, benetan lixibiatuaren saiakuntza egiten delako, eta ez hondakin-kontzentrazioarena. Horren ondorioz, L(E)C<sub>50</sub>oen emaitzak abiapuntuko hondakinenean baino 10 aldiz handiagoak izaten ari dira (10 aldiz ekotoxikotasun gutxiago).

Esan dezagun, beraz, *Daphnia magna*-rekin egindako saiakuntza batean populazioaren % 50en immobilizazioa gertatzen dela saiakuntzaren soluzioan lixibiatu-kontzentrazioa % 0,1ekoa denean. Laborategiek ehuneko hori ppm (ml/l) bihurtzen dute, \*10.000 biderkatuz. % 0,1 hori izango litzateke 1 ml/l; edo, gauza bear dena, 1.000 µl/l. 1 g/cm<sup>3</sup>-ko dentsitatea kontuan hartuz gero, emaitza L(E)C<sub>50</sub> = 1000 mg/l gisa adieraziko litzateke.

Datu hori osatu gabe dago, hondakinaren L(E)C<sub>50</sub> zehaztu nahi delako, ez lixibiatuarena. Jakin beharrekoa da lixibiazio baten ondoren (ingurune urtarreko disolbagarritasun-baldintzak erreproduzitzen dituen) L(E)C<sub>50</sub>ek sortzen duen hondakin-kantitatea (mg/l).

Efektu hori sortzen duen lixibiatu-kontzentrazioa ezagutuz gero (ml/l edo mg/l), erraza da hondakin-kontzentrazioa lortzea. 12457 lixibiatuak (2 edo 4 zatia) 10:1eko likido-solido harremana du. Hau da, 1 ml edo 1 mg lixibiatu ekoizteko 0,1 mg hondakin erabiltzen da. Beraz, L(E)C<sub>50</sub> = 1.000 mg/l (lixibiatu-kantitatean neurtuta) egoteak L(E)C<sub>50</sub> = 100 mg/l (hondakin-kantitatean neurtuta) emaitza emango luke.

Aldea oso garrantzitsua da emaitzak 10:1eko harreman horretan bertan aldatzen baitira lixibiatuaren mg-ei edo hondakinaren mg-ei erreferentzia eginez gero. Adibidearen kasuan, 1.000 mg/l-ko L(E)C<sub>50</sub> batekin ez litzateke ekotoxikotasunik egongo, eta bai L(E)C<sub>50</sub> = 100 mg/l-ko batekin.

Beraz, funtsezkoa da L(E)C<sub>50</sub> ondo kalkulatzeko, beti hondakinaren mg-ei (ez lixibiatuarenei) erreferentzia egin diezaion. Bi datuak edukitzea komeni da, eta bigarren kalkulatu bidez lortzea lixibiazio-saiakuntzaren L/S harremanetik abiatuta.

Kontuan izan behar da, halaber, lixibiatua prestatzen dela lagin lehor batetik abiatuta. Beraz, L(E)C<sub>50</sub>-etik lortutako emaitzak materia lehorraren mg-ei dagozkie. Egokiena da hondakinaren L(E)C<sub>50</sub> jatorrizko egoeran zehaztea, hau da, emaitza zuzenduz laginaren hezetasuna kontuan hartuta.

Aurreko guztia argitzen duen testu bat eskakizunetan sartzea proposatzen da<sup>109</sup>:

L(E)C<sub>50</sub>oen emaitzek efektua eragiten duten litro bakoitzeko hondakinaren mg-ei buruzkoak izan beharko dute. Lixibiatua L/S = 10 erlazioarekin egingo dela kontuan hartuta, L(E)C<sub>50</sub> eragiten duen lixibiatu-kontzentrazioa (%) zehaztu ondoren, lixibiatuaren litro bakoitzeko ml-ra bihurtu beharko da. Ondoren, lixibiatua sortutako L/S = 10 erlazioa kontuan hartuta, hondakinaren litro bakoitzeko mg-ak lortzeko, lortutako balioa 10ez zatitu beharko da. Adibidez:

L(E)C<sub>50</sub> sortzen da da lixibiatuaren % 0,1eko kontzentrazioarekin saiakuntza-soluzioko litro bakoitzeko; bestela esanda, lixibiatuaren litro bakoitzeko 1.000

<sup>109</sup> Ikus HP14 zehazteko eskatzeko eredu dokumentu honen 6. eranskinean.



ml-ko kontzentrazioarekin. Lixibiatu hori L/S = 10 erlazioarekin sortu zenez, hondakin-kontzentrazioari dagokion L(E)C<sub>50</sub> 100 mg/l-koa izango litzateke (1.000 ml/l\*0,1g/1ml=100 mg/l).

Laborategiak hondakinaren hezetasun-edukia adierazi beharko du. L(E)C<sub>50</sub> zuzendu beharko da hezetasun hori kontuan hartuz, erreferentzia egin diezaien jatorrizko egoerako hondakinaren mg/l-ei. Aurreko adibidearekin jarraituz, hondakinaren hezetasun-ehunekoa % 10ekoa izango balitz, 100 mg/l-ren L(E)C<sub>50</sub> zuzenduko litzateke 110 mg/l-ra [100 mg/l + (0,1\*100)] = 110 mg/l]. Balio hori hartu beharko da kontuan ekotoxikotasuna ebaluatzeko.

#### 9.4.15 HP15. Lehen aipatutako arriskugarritasun-ezaugarrietako bat, jatorrizko hondakinak zuzenean ez zeukana, izan dezaketen hondakinak.

Ezaugarri honen barruan, honako substantzia hauek dituzten hondakinak sartzen dira:

Propietateak	Arrisku-argibidearen kodeak
Sutea izanez gero, masako leherketa-arriskua	H205
Leherkorra egoera lehorrean	EUH001
Peroxido leherkorrak sor daitezke	EUH019
Aire konfinatuan berotzearen ondoriozko leherketa-arriskua	EUH044

43. taula: HP15 arriskua dakarten propietateak eta argibideko kodeak

Hondakinen sailkapenari buruzko Europako Batzordearen Gidak<sup>110</sup> CLP Erregelamenduaren irizpideei buruzko ECHAren Gidara bidaltzen du, baina hor ez da benetan argitzen sailkapen hori nola egin. Hurbilketak irizpide hauetan oinarritu behar du:

##### 9.4.15.1 H205 substantziadun hondakinak: Sutea izanez gero, masako leherketa-arriskua

CLP Erregelamenduaren<sup>111</sup> irizpideei buruzko CLPren Gidak NBEren eskuliburura bidaltzen du. Ebaluatu behar da hondakina ADRko 1.5<sup>112</sup> dibisioan sartu behar ote den. Zehazki, NBEren Eskuliburuan eskatzen diren probetan<sup>113</sup>, H205 substantziadun hondakin bat arriskutsua ez dela erabakitzeke saiakuntza hau gairiditu behar da<sup>114</sup>:

- Kanpoko suarekiko erreakzio-proba 1.5 dibisioko substantzientzat.

<sup>110</sup> C Eranskinaren C.5 atala.

111 2.1.4.3. atala.

112 Oso sentikorak ez diren gaiak, masako leherketa izateko arriskua dutenak, sentikortasun handia dutenak (garraio-baldintza normaletan, pizarazteko edo beren errektuntza detonazio bihurtzeko oso probabilitate txiki bat besterik ez dago).

113 15. atala. 5. proba-seriea.

114 15.6.1 atalean deskribatutakoa.

**9.4.15.2 EUH001 substantziadun hondakinak: Leherkorra egoera lehorrean**

Substantzia leherkor bat duten hondakinak dira, hasiera batean halakotzat sailkatuta ez zegoena disoluzio desentsibilizagarri edo egonkortzaile batean bustita, diluituta edo esekita zegoelako.

Beraz, substantzia hori berriro leherkorra izateko aukeraren ondorioa da arriskua. Beraz, aplikatu beharreko saiakuntza-metodoak dokumentu honetako 9.4.1.1 atalean zerrendatutakoak dira.

Hala ere, litekeena da saiakuntza egiteko unean substantzia oraindik egonkortuta egotea. Ezegonkortzea etorkizunean gerta daitekeenez, kasu horietan ez da bidezkoa saiakuntzak egitea.

**9.4.15.3 EUH019 substantziadun hondakinak: Peroxido leherkorrek sor daitezke**

Kasu honetan, arriskugarritasuna dator hondakina leherkor bihurtzen duten peroxido organikoak sortzeko gai diren substantzietatik.

- Arriskugarritasun-saiakuntzen emaitzak eta aldez aurreko determinazio analitikoak, eskuragarri egonez gero.
- Hondakinaren arriskugarritasun-ezaugarrien ebaluazioari buruzko ondorioak, eskuragarri egonez gero.
- Hondakinaren konposizioari eta/edo arriskugarritasunari buruzko erreferentzia bibliografikoak, ezagutuz gero.

Eskatutako informazioa jasotakoan, Ingurumen Organo honek eskuragarri dauden datuak ebaluatuko ditu eta, hala badagokio, hondakina behar bezala sailkatzeko determinazio analitikoak eta/edo dagozkion saiakuntzak egiteko eskatuko du, baldin eta sortutako informazioak sailkapena zuzenean egiteko aukera ematen ez badu.

Eskatutako informazioa aurkezten ez bada, ulertuko da ez dagoela justifikaziorik hondakinari/hondakinei ispilu-kodea du(t)en hondakin ez-arriskutsu(ar)en kodea esleitzeko, eta, horrenbestez, ispilu-kode arriskutsuarekin kodetu beharko d(ir)a eta hondakin arriskutsu gisa kudeatu.

Gasteiz, 202x(e)ko xxaren xx(a)

**Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaria**

**Director/a de Calidad Ambiental y Economía Circular**

Sin./Fdo.: xxxxxx



## 4. eranskina. HONDAKINAK SAILKATZEKO INFORMAZIO ESPEZIFIKOA ESKATZEKO EREDUA

IZENA

ENPRESA

HELBIDEA

Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 (EB) Erregelamenduak, hondakinei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina ordeztzen duenak eta hainbat zuzentzarau indargabetzen dituenak, aldaketa garrantzitsuak sartu zituen hondakinen sailkapenean.

Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakia aplikatuz (erabaki horrek aldatu zuen hondakin-zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauari jarraikiz, ispilu-kodea duten hondakinen arriskugarritasuna zehazteko oinarritzat hartu behar da hondakinean dauden substantzien kontzentrazioa eta 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskinean ezarritako mugak (1357/2014 (EB) Erregelamenduak aldatutako idazketan). Halakorik ezean, arriskugarritasun-ezaugarriak ebaluatzeko, saiakuntza bat egin behar da 440/2008 (EE) Erregelamenduaren edo nazioartean aitortutako beste gidalerro eta saiakuntza-metodo batzuen arabera.

SOZIETATE-IZENA(e)k ispilu-kodea du(t)en hondakin hau(ek) sortzen d(it)u:

EHZ kodea	Deskribapena
XXXXXX	XXX

Hondakin horien sailkapen egokia bermatzeko, nahitaezkoa da hondakinen konposizioari eta/edo arriskugarritasunari buruzko nahikoa informazio edukitzea, eta, horregatik, SOZIETATE-IZENA(e)k dokumentazio hau aurkeztu zuen 20XX(e)ko XXaren XX(e)(a)n

**INGURUMEN ORGANOAK EGOKITU BEHARREKOA: BEHAR DIREN**  
KARAKTERIZAZIOEN ETA/EDO SAIKUNTZEN JUSTIFIKAZIOA SARTU. Adibidez:

Erabilgarri dagoen informazioaren arabera (aipatu):

- XXXX
- XXXX

Emandako informazioa aztertuta, (identifikatu hondakina) hondakinak substantzia arriskutsu hauek ditu edo izan ditzake, eta hauek dira substantzia horien arriskugarritasun-ezaugarriak (identifikatu substantziak eta adierazi sailkapena):

Substantziak	Arriskugarritasun-ezaugarriak	HP posibleak

Bidalitako dokumentazio guztia aztertu ondoren, eskatzen zaizu X EGUNEN/HILABETEREN epean honako informazio hau aurkezteko hondakin bakoitzarentzat:

Hondakina	Determinazio analitikoak	Arriskugarritasun-saiakuntzak

LEHENTASUNA EMAN, AHAL DEN NEURRIAN, FORMULA BIDEZKO ARRISKUGARRITASUN-KALKULURAKO ANALISI FISIKO-KIMIKOA ESKATZEARI SAIKUNTZAK ESKATZEAREN ALDEAN.

Eskatu beti hondakinaren pH-aren neurketa.

Era berean, adierazi hondakinaren hezetasun-edukia %-tan

Behean, lagina hartzeari, analisi fisiko-kimikoei eta saiakuntza-metodoei buruzko eskakizunak deskribatzen dira.

## LAGINAK HARTZEA

Laginak erakunde independente eta gaitu batek hartu beharko ditu, kasu bakoitzerako diseinatutako laginketa-plan baten arabera.

Lagin-hartzearen adierazgarritasuna egiaztatzen duen txosten bat aurkeztu beharko da, erakunde horrek sinatua, UNE-EN 14899:2007 arauaren arabera (Hondakinen Karakterizazioa. Hondakinen laginketa. Laginketa-plan bat prestatzeko eta aplikatzeko eskema) eta UNE-CEN/TR 15310 jarraibide teknikoen bildumaren arabera (1-5 zatiak):2008 IN (Hondakinen Karakterizazioa. Hondakinen laginketa):



1. zatia: Laginketa-irizpideak hainbat baldintzatan hautatzeko eta aplikatzeko orientazioa.
2. zatia: Laginketa-teknikei buruzko orientazioa.
3. zatia: Landako azpilaginketa-prozedurei buruzko orientazioa.
4. zatia: Laginak enbalatu, biltegiratu, kontserbatu, garraiatu eta entregatzeko prozedurei buruzko orientazioa ematea.
5. zatia: Laginketa-plana definitzeko prozesuari buruzko orientazioa.

*OHARRA1: 2022ko abenduaren 31tik aurrera, eskatu ahal izango da laginak hondakinen alorrerako UNE-EN ISO/IEC 17020ren arabera akreditatutako erakundeek hartzea. Ordura arte, gomendagarria da, kontuan hartu behar baita beste autonomia-erkidego batzuetan eskatzen ari dela. Gainera, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta ezabatzea arautzen duen 646/2020 Dekretuak akreditazio hori eskatzen du laginketa diseinatzeke eta geroagoko ustiapen- eta mantentze-faseetako zaintza- eta kontrol-lanak egiteko laginak hartzeko, eta zabortegean gordetzeak berekin dakar hondakinen arriskugarritasuna sailkatzea.*

## ANALISI FISIKO-KIMIKOAK

Hondakinaren edukiaren determinazio fisiko-kimikoa eskatutako parametroetarako UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera akreditatutako laborategi batek egin beharko du. Erabilitako analisi-metodoek normalizatuak izan beharko dute. Txostenean, substantzien kontzentrazioaz gain, hezetasunaren/materia lehorren edukia, hondakinaren pH-a eta parametro bakoitzari lotutako ziurgabetasunak adierazi beharko dira.

### **Metalen analisi fisiko-kimikoaren kasu zehatzerako:**

Metalen edukia zehaztu beharko da kutsatzaile horiek **hondakinean** duten izaera eta kontzentrazioa identifikatzeko.

Oro har, hau da aztertu beharko liratekeen metalen zerrenda: Antimonioa, artsenikoa, berilioa, kadmioa, kobalto, kobrea, kromo totala, kromoa (VI), eztainua, merkurioa, molibdenoa, nikela, beruna, selenioa, talioa, telurioa eta zinka.

Kontuan hartu beharko da Sb, Cu, Pb eta Zn-ren kasuetan sailkapen desberdina dagoela partikula-tamainaren arabera; beraz, metal horien kontzentrazioak sailkapen posible bat eskatzen badu, haien kontzentrazioa jakin beharko dugu 1 mm-tik gorako eta 1 mm-tik beherako frakzioan. Hori guztia kontuan hartu beharko da bai laginak hartzean, bai ondorengo analitikan ere, bereizketa granulometriko bat gehitzera eta metal horien analisi bikoitza egitera behartu dezakeena.

Beraz, **metalen analitika eskatu beharko da hondakina aurkezten den partikularen tamainan. Aipatutako metaletakoren bat egon badaiteke eta partikula-tamaina hori ezezaguna bada, metalen analisiak eskatu beharko dira 2 partikula-tamainetan: > 1 mm eta < 1 mm**, hondakinaren partikula-tamaina horren arabera alda baitaitezke hondakinaren arrisku-argibideak edo hondakinari esleitu beharreko mugak.

## SAIAKUNTZAK

Laborategi independenteek egindako saiakuntza hauen emaitzak aurkeztu beharko dira. Beste erreferentziako arau batzuetan oinarritutako saiakuntzak planteatzen badira, komeniko litzateke ingurumen-organo honi aplikagarritasuna kontsultatzea beren baliozkotasuna ziurtatzeko.

440/2008 (EE) Erregelamenduko saiakuntza-metodoak eta haien ondorengo aldaketak aplikatzean, kontuan hartuko da CLP Erregelamenduaren 7. artikulua arabera animaliekin egindako saiakuntzetan oinarritutako metodoak saihestu behar direla. Ildo horretan, eta arriskugarritasun-ezaugarri jakin batzuetarako ez dagoenez in vitro saiakuntza-metodoric 440/2008/EE Erregelamenduan, metodo alternatiboak bilatu beharko dira hondakinatarako egokiak direnean eta halakoak daudenean. Horretarako, Animalien Esperimentazioaren Alternatibei buruzko Europako Erreferentzia Laborategian kontsultatzea gomendatzen da. Bertan, animaliekin egindako saiakuntzen ordezko proba batzuk daude eskuragarri.

<https://ec.europa.eu/jrc/en/eurl/ecvam>

GIDAREN ARABERA ESKATU BEHARREKO SAIKUNTZAK ZERRENDATZEA (KENDU PUNTU HAU EZ BADA SAIKUNTZARIK ESKATZEN ETA ANALISI FISIKO-KIMIKOA BAKARRIK ESKATZEN BADA)

HP14KO SAIKUNTZEN KASUAN, SARTU BEHEKO ATALA

#### HP14KO SAIKUNTZAK. EKOTOXIKOTASUNA

Konposizio kimikoa ondo ezagutzen den edo konposatu interesgarriak hautatzeko adina informazio duten hondakin-karakterizazioetan, 2017/997 Erregelamenduan jasotako kalkulu-metodoa aplikatu ahal izango da. Laguntzako Excel-eko HP fitxa erabili ahal izango da horretarako (HP14ri dagokion atala).

Arriskugarritasuna kalkuluen bidez zehaztu ezin bada, ekotoxikotasun hori ebaluatzeko egin beharreko saiakuntzak hondakinaren ondorengo kudeaketari lotuta egongo dira. **Saiakuntza horiek lixibiatuaren gainean egingo dira**, UNE EN 12457 arauaren 2. zatia arabera prestatua (edo 4. zatia partikularen tamaina 4 mm arte murriztu ezin denean, eta horrek behar bezala justifikatuta egon behar du).

L(E)C50en emaitzei dagokienez, efektua eragiten duten litro bakoitzeko hondakinaren mg-ei buruzkoak izan beharko dute. Lixibiatua L/S = 10 erlazioarekin egingo dela kontuan hartuta, L(E)C50 eragiten duen lixibiatu-kontzentrazioa (%) zehaztu ondoren, lixibiatuaren litro bakoitzeko ml-ra bihurtu beharko da. Ondoren, lixibiatua sortutako L/S = 10 erlazioa kontuan hartuta, hondakinaren litro bakoitzeko mg-ak lortzeko, lortutako balioa 10ez zatitu beharko da. Adibidez:

L(E)C50 sortzen da da lixibiatuaren % 0,1eko kontzentrazioarekin saiakuntza-soluzioko litro bakoitzeko; bestela esanda, lixibiatuaren litro bakoitzeko 1.000 ml-ko kontzentrazioarekin. Lixibiatu hori L/S = 10 erlazioarekin sortu zenez, hondakin-kontzentrazioari dagokion L(E)C50 100 mg/l-koa izango litzateke ( $1.000 \text{ ml/l} * 0,1 \text{ g/1ml} = 100 \text{ mg/l}$ ).

Laborategiak hondakinaren hezetasun-edukia adierazi beharko du. L(E)C50 zuzendu beharko da hezetasun hori kontuan hartuz, erreferentzia egin diezaien jatorrizko egoerako hondakinaren mg/l-ei. Aurreko adibidearekin jarraituz, hondakinaren hezetasun-ehunekoa % 10ekoa izango balitz, 100 mg/l-ren L(E)C50 zuzenduko litzateke 110 mg/l-ra [ $100 \text{ mg/l} + (0,1 * 100) = 110 \text{ mg/l}$ ]. Balio hori hartu beharko da kontuan ekotoxikotasuna ebaluatzeko.

Hondakina balorizazio energetikora edo zabortegira bideratzea aurreikusi bada, ingurune urtarrerako toxikotasun akutua eta kronikoa zehaztu beharko dira gutxienez. Hondakina balorizazio energetikoaz bestelako balorizazio-jarduera batera bideratu nahi bada eta hondakinean dauden substantzietatik abiatuz ezin bada HP14 arriskutsu gisa sailkatu, saiakuntza gehigarriak egin beharko dira ingurune lehortarreen duen toxikotasuna zehazteko, behean adierazitako saiakuntzen arabera.

Ingurune urtarreko toxikotasuna ebaluatzeko, 440/2008 Erregelamenduan (EE) ezarritako saiakuntza-metodoak edo nazioartean aitortutako beste saiakuntza-metodo batzuk erabiliko dira.

## INGURUNE URTARRERAKO TOXIKOTASUNA

### Uretako toxikotasun akutuaren saiakuntzak:

Ornodunekin egindako saiakuntzak egokitzat jotzen ez direnez, uretako toxikotasun-saiakuntzen batera uretako 2 organismoz osatuta egongo litzateke (dafnia eta algak).

Laborategi independente batek jaulkitako ziurtagiri bat beharko litzateke, L(E)C50 adieraziz bi organismoetarako (gutxienez saiakuntza bat organismo bakoitzeko):

- **Daphnia magna**, metodo hauetako batekin bat etorriz:
  - C2 metodoa. Daphnia sp.-ren immobilizazio akutuko saiakuntza, 440/2008 Erregelamenduan (EE) deskribatua, OECDren 202. metodoaren baliokidea.
  - OCDEren Daphnia spec., Acute Immobilisation Test 202 metodoa
  - ISO 6341 metodoa: 2013. Uraren kalitatea. Daphnia magna Straus-en (Cladocera, Crustacea) mugikortasunaren inhibizioa zehaztea. Toxikotasun akutuaren saiakuntza.
- **Algak**, metodo hauetako batekin bat etorriz:
  - C3 metodoa. Algak inhibitzeko saiakuntza, 440/2008 Erregelamenduan (EE) deskribatua, OECDren 201. metodoaren baliokidea
  - OECD 201. metodoa. Freshwater Alga and Cyanobacteria, Growth Inhibition Test.
  - UNE-EN ISO 8692:2012. Uraren kalitatea. Ur gezako algak haztearen inhibizio-saiakuntza alga berde zelulabakarrekin.

**Saiakuntza bat egin beharko da erakunde horietako bakoitzarentzat.**

### Uretako toxikotasun kronikoaren saiakuntzak:

Aurreko analisietarako bezala, laborategi independente batek egindako ziurtagiria beharko litzateke beheko bi organismoetarako (gutxienez erakunde bakoitzeko saiakuntza bat):

- **Daphnia magna**, metodo hauetako batekin bat etorriz:
  - 440/2008 Erregelamenduaren (EE) C20 metodoa. Daphnia magna ugaltzeko saiakuntza.
  - OCDEren 211 metodoa. Daphnia magna Reproduction Test
- **Algak**, metodo honen arabera:
  - UNE-EN ISO 8692:2012 araua. Uraren kalitatea. Ur gezako algak haztearen inhibizio-saiakuntza, alga berde zelulabakarrekin (**uretako ekotoxikotasun**

akuturako erabilitako saiakuntza bera da, eta, beraz, ez litzateke errepikatu beharko).

Toxikotasun akuturako planteatu den bezala, toxikotasun kronikoaren kasuan saiakuntza bat egin beharko litzateke organismo bakoitzeko.

### INGURUNE LEHORTARRERAKO TOXIKOTASUNA

- **Bakterioak**<sup>117</sup>:
  - UNE-EN ISO 18187:2018. Lurzoruaren kalitatea. Kontaktu-saiakuntza lagin solidoetarako *Arthrobacter globiformis*-en deshidrogenasaren jardueraren bidez.
- **Landareak**:
  - 440/2008 Erregelamenduaren (EE) C.31 metodoa. Lehorreko landareekiko saiakuntza: larrialdiko saiakuntza eta plantulen hazkundera, OECDren 208. metodoaren baliokidea.
  - OECD 227. metodoa. Terrestrial plant test. Vegetative Vigour Test
- **Zizareak**:
  - C33 metodoa. Lur-zizareak ugaltzeko saiakuntza (*Eisenia fetida*). Gutxienez saiakuntza bat egin beharko da landareetan eta beste bat bakterioetan edo zizareetan aurreko metodoetako baten arabera.

**Gutxienez, saiakuntza bat egin beharko da landareetan, eta beste bat bakterioen edo zizareen saiakuntzen artean aukeratuko da, aurreko metodoetako baten arabera.**

Analisi edo saiakuntzarik ezin bada egin laborategiek ez dutelako halakorik eskaintzen, justifikatu laborategiak adierazitako erantzunaren edo justifikazioaren bidez.

### TXOSTENAK

Laborategi independenteek egindako **analisien/saiakuntzen** emaitzak aurkeztu beharko dira. Beste erreferentziako arau batzuetan oinarritutako **analitikak/saiakuntzak** planteatzen badira, komeniko litzateke ingurumen-organo honi aplikagarritasuna kontsultatzea beren baliozkotasuna ziurtatzeko.

#### Analisien/saiakuntzen txostenen edukia

Beharrezkotzat jotzen da laborategien txostenetan saiakuntzak arauaren arabera egiten ote diren baloratzeko gutxieneko edukia izatea. 440/2008 Erregelamenduak, saiakuntza-metodoak deskribatzean, emaitzen txostenek jaso beharreko edukia jasotzen du. Era berean, OCDE arauak ere txostenen gutxieneko edukia zehazten dute, eta, oro har, erreferentzia gisa erabilitako edozein arau gutxieneko eduki hori azalduko du. **(JARRI HAU SAIKUNTZEN KASUAN BAKARRIK)**. Hortaz, kasu bakoitzean erreferentziatzeko arauan eskatzen den informazioa jaso beharko da txostenetan. Eskatutako informazioa jasotakoan, Ingurumen Organo honek eskuragarri dauden datuak ebaluatuko ditu eta hondakina sailkatuko du.

<sup>117</sup> Kntsultatutako guztien artean saiakuntza hau egiten duen Erakunde bakarra aurkitu da.

Eskatutako informazioa aurkezten ez bada, ulertuko da ez dagoela justifikaziorik hondakinari/hondakinei hondakin ez-arriskutsuen kodea esleitzeko, eta, horrenbestez, hondakin arriskutsuaren kodearekin kodetu beharko d(ir)a eta hala kudeatu.

*OHARRA2: Biltegiatze-arazoak direla-eta hondakina kudeatu beharko balitz sailkapenari buruzko erabakia hartu aurretik, une horretara arte egiten ari zen bezala kudeatu ahal izango da, baldin eta hori justifikatzen bada.*

Gasteiz, 202x(e)ko xxaren xx(a)

**Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaria**

**Director/a de Calidad Ambiental y Economía Circular**

Sin./Fdo.: xxxxxx

## 5. eranskina. HONDAKINAK SAILKATZEKO INFORMAZIO ESPEZIFIKOAREN ESKAEREN ADIBIDEAK

### A KASUA. ALUMINIOZKO APARREN HONDAKINAK

#### Errekerimendua idazten den testuingurua:

Kasu honetan, Ingurumen Organoari galdetzen zaio zer informazio aurkeztu behar den ispilu-kodea duen hondakin bat –zehazki, aluminiozko aparrak– ez-arriskutsua dela justifikatzeko.

Hondakina EHZ kode honi dagokio:

- 03 15\* Apar sukoiak edo urarekin kontaktuan gas sukoiak kantitate arriskutsuetan isurtzen dituztenak.
- 03 16 Aparrak, 10 03 15 kodean zehaztutakoez bestelakoak.

Ingurumen Organoari haren arriskugarritasunari buruz kontsultatzean, hau izan zen analisi-prozesua:

#### 1. ZEREGINA. INFORMAZIOAREN ALDEZ AURREKO ESKAERA

Ingurumen-organoak, **3. eranskinaren** ereduaren arabera, hondakina sailkatzeko informazio orokorra eskatu zuen.

Gainera, Gida honetako **2B eranskinan** aztertu zen zein ziren –hasiera batean– hondakin horren HP potentzialak. Ispilu-kode horiek bereizteko elementua da hondakinak urarekin kontaktuan gas sukoiarik isurtzen ote duten ala ez. Ondorio gisa, hondakinaren sukoiatasuna, aipatzen da, HP3 ezaugarria (**2B eranskineko 10 03 16 hondakinaren fitxa**):

EHZ kodea		
10 03 16. Aluminiozko aparrak		
Eragindako sektoreak	Aluminiozko galdategiak	
Kontuan hartutako HPak	Erabakia	Arrazoaia
HP3	Kontuz	HA EHZ ispilu-kodearekin dagoen aldea da gas sukoiak isurtzea edo ez. Printzipioz, aluminiozko sulfuroak eta karburoak izango lirateke ezaugarri hori ekarriko luketenak, baina bibliografiak aldakortasun handia aipatzen du aparren konposizioari dagokionez.
Ekintza-proposamena	HP3 (gas sukoiak isurtzea) saiatzea.	

107. taula: Aluminiozko aparren arriskugarritasun-ezaugarri posibleak.

Hondakinaren portaerari buruzko informazio **bibliografikoa** lortu zen:

Interneten bilatuz, **argitalpen zientifiko** batzuk eskura daitezke. Kasu honetan, adibidez, *Utilization of aluminium dross as asphalt filler*<sup>118</sup>. Bertan hau dio:

*This waste material is produced during melting of alumina scrap; its general composition is: 15-30 % Al<sub>2</sub>O<sub>3</sub>, 30-55 % NaCl, 15-30 % KCl and 5-7% of metallic aluminium and other impurities (carbides, nitrides, sulphides, phosphides).*

Substantzien arriskugarritasuna **ECHAren webgunean** kontsultatu zen:

Dokumentu honetako 6. eranskinean egin beharreko urratsetan azaltzen den bezala, informazio hau lortu zen:

<sup>118</sup> [http://epitoanyag.org.hu/static/upload/10.14382\\_epitoanyag-jsbcm.2017.15.pdf](http://epitoanyag.org.hu/static/upload/10.14382_epitoanyag-jsbcm.2017.15.pdf)

Substantzia	Saillkapena		
	Harmonizatua	Erregistroak	Beste iturri batzuk
Aluminio metalikoa (> 1 mm)	-	-	
Aluminio metalikoa (<1 mm, egonkortua)	H228	H228	
	H261	H261	
Aluminio metalikoa (<1 mm, piroforikoa)	H250	H250	
	H261	H261	
NaCl	-	-	
KCl	-	-	
Al <sub>2</sub> O <sub>3</sub>	-	-	
Al <sub>4</sub> C <sub>3</sub> <sup>119</sup>			H315
			H319
			H335
			H228
			H261
AlN		H372	EUH029 <sup>120</sup>
		H410	
Al <sub>2</sub> S <sub>3</sub>			H261
			H315
			H319
AlP	H260		
	H300		
	H311		
	H330		
	H400		

108. taula: Identifikatutako substantzien arrisku-argibidearen kodeak.

Ikus daitekeenez, posible da hainbat substantzia edo konposatu agertzea hondakinean sukoitasuna adierazten duten H esaldiekin<sup>121</sup>:

<sup>119</sup> <https://goo.gl/QPLprv>

<sup>120</sup> Bibliografian ikusten da substantziak urarekin erreakzionatzen duela. <https://goo.gl/6Q173z>

Kontsultatu diren segurtasun-datuen fitxetan urarekiko erreaktibotasuna ikusten da (amonio gasa sortzen da):

<https://goo.gl/JbYxTE>

<sup>121</sup> Identifikatutako substantziak ekotoxikoak, toxiko akutuak eta abar ere badira. Hala ere, EHZ kodearen deskribapenak adierazten du ezaugarri garrantzitsu bakarra sukoitasuna dela.



Substantzia	H esaldia	Arriskuaren identifikazioa
Aluminio metalikoa (< 1 mm, egonkortua)	H228	Solido sukoiak.
	H261	Urarekin kontaktuan gas sukoiak isurtzen ditu.
Aluminio metalikoa (< 1 mm, piroforikoa)	H250	Airearekin kontaktuan berez hartzen du sua.
	H261	Urarekin kontaktuan gas sukoiak isurtzen ditu.
Al <sub>4</sub> C <sub>3</sub>	H228	Solido sukoiak.
Al <sub>2</sub> S <sub>3</sub>	H261	Urarekin kontaktuan gas sukoiak eta SH <sub>2</sub> toxikoa isurtzen ditu.
AIP	H260	Urarekin kontaktuan gas sukoiak isurtzen ditu, berez sua har dezaketenak.

109. taula: HP<sub>3</sub> arrisku-argibidearen kodeak dituzten substantziak.

ECHAren webgunean substantziei edo antzeko konposatuei buruzko informaziorik ote dagoen kontsultatu zen.

Izan ere, CAS 69011-71-8 zka.ekin, erregistro hau agertzen da: Aluminum, dross (A scum formed on the surface of molten aluminum and molten aluminum alloys).

**GHS**

General Information
Classification
Labelling
Notes

GHS02: flame

**Hazard statements**

---

H261: In contact with water releases flammable gases.

22. irudia: ECHAren webguneko substantzien kontsultaren xehetasunak.

Erregistro-espeditente horretan, A.12 saiakuntzaren emaitza positiboa agertzen da. Isuritako gas-substantzia posibleak hauek dira: azido sulfhidrikoa (aluminio sulfuro posiblearen jatorria), toxiko akutu gisa sailkatua, kat. 2 (inhalazio bidez) beste arrisku-mota batzuen artean; amoniakoa (aluminio nitruroaren ondoriozkoa), toxiko akutu gisa sailkatua, kat. 3 (inhalazio bidez) beste arrisku-mota batzuen artean; edo fosfina (aluminio fosfuroaren ondoriozkoa), toxiko akutu gisa sailkatua, kat. 2 (ikus beheko taulak). Beraz, HP12

ezaugarria ere aplikatuko litzaioke hondakin horri, baina baliteke osagai horietakoren ba EUH029, EUH031 edo EUH032 gisa sailkatuta ez egotea.<sup>122</sup>

Summary of Classification and Labelling						
Harmonised classification - Annex VI of Regulation (EC) No 1272/2008 (CLP Regulation)						
General Information						
Index Number	EC / List no.	CAS Number	International Chemical Identification			
016-001-00-4	231-977-3	7783-06-4	hydrogen sulphide			
ATP Inserted / Updated: CLP00						
CLP Classification (Table 3)						
Classification		Labelling			Specific Concentration limits, M-Factors, Acute Toxicity Estimates (ATE)	Notes
Hazard Class and Category Code(s)	Hazard Statement Code(s)	Hazard Statement Code(s)	Supplementary Hazard Statement Code(s)	Pictograms, Signal Word Code(s)		
Press. Gas				GHS02 GHS09 GHS06 GHS04 Dgr		Note U
Flam. Gas 1	H220	H220				
Acute Tox. 2 *	H330	H330				
Aquatic Acute 1	H400	H400				

23. irudia: Azido sulfhidrikoaren arrisku-argibidearen kodeen ECHAren webguneko kontsulta.

Summary of Classification and Labelling						
Harmonised classification - Annex VI of Regulation (EC) No 1272/2008 (CLP Regulation)						
General Information						
Index Number	EC / List no.	CAS Number	International Chemical Identification			
007-001-00-5	231-635-3	7664-41-7	ammonia, anhydrous			
ATP Inserted / Updated: CLP00						
CLP Classification (Table 3)						
Classification		Labelling			Specific Concentration limits, M-Factors, Acute Toxicity Estimates (ATE)	Notes
Hazard Class and Category Code(s)	Hazard Statement Code(s)	Hazard Statement Code(s)	Supplementary Hazard Statement Code(s)	Pictograms, Signal Word Code(s)		
Press. Gas				GHS09 GHS05 GHS04 GHS06 Dgr		Note U
Flam. Gas 2	H221	H221				
Skin Corr. 1B	H314	H314				
Acute Tox. 3 *	H331	H331				
Aquatic Acute 1	H400	H400				

24. irudia: Amoniaikoaren arrisku-argibidearen kodeen ECHAren webguneko kontsulta.

▼M7									
015-004-00-8	aluminium phosphide	244-088-0	20859-73-8	Water-react. 1	H260	GHS02	H260	EUH029	M = 100
				Acute Tox. 2	H300	GHS06	H300	EUH032	
				Acute Tox. 3	H311	GHS09	H311		
				Acute Tox. 1	H330	Dgr	H330		
				Aquatic Acute 1	H400		H400		

25. irudia: Aluminio fosfuroaren arrisku-argibidearen kodeen CLParen VI. Eranskineko kontsulta

<sup>122</sup> Puntu hau MITERDen kontsultetan sartu da, eta dagokion erantzuna jasotzeko zain gaude.

Summary of Classification and Labelling			
Harmonised classification - Annex VI of Regulation (EC) No 1272/2008 (CLP Regulation)			
General Information			
Index Number	EC / List no.	CAS Number	International Chemical Identification
015-181-00-1	232-260-8	7803-51-2	phosphine

ATP Inserted / Updated: CLP00

CLP Classification (Table 3)

Classification		Labelling			Specific Concentration limits, M-Factors, Acute Toxicity Estimates (ATE)	Notes
Hazard Class and Category Code(s)	Hazard Statement Code(s)	Hazard Statement Code(s)	Supplementary Hazard Statement Code(s)	Pictograms, Signal Word Code(s)		
Press. Gas				GHS02 GHS09 GHS05 GHS04 GHS06 Dgr		Note U
Flam. Gas 1	H220	H220				
Skin Corr. 1B	H314	H314				
Acute Tox. 2 *	H330	H330				
Aquatic Acute 1	H400	H400				

26. irudia: Fosfinaren arrisku-argibidearen kodeen ECHAren webguneko kontsulta.

## 2. ZEREGINA: INFORMAZIO-ANALISIA ETA INFORMAZIO ESPEZIFIKOAREN ESKAERA

Aurreko atalean jasotako informazioa aztertuta, beharrezko saiakuntzak zehaztu ziren:

Identifikatutako erregistroan sukoitasuna urarekin kontaktuan bakarrik (H260 eta H261) frogatu bazen ere, hondakinaren konposizio tipikoa kontuan hartuz gero ikusten da garrantzitsua izan daitezkeela solidoen sukoitasuna (H228) eta urarekin edo azidoekin kontaktuan toxikotasun akutuko gasak askatzea (EUH029 edo EUH031 edo EUH032). Hondakinak aluminio piroforikozko hautsa (H250) izateko aukera dago.

Beraz, hasiera batean saiakuntza hauek egin beharko lirateke:

- Solidoen sukoitasun-saiakuntza.
- Sukoitason-saiakuntza urarekin kontaktuan.
- Propietate piroforikoen saiakuntza.

Hala ere, aluminio piroforikoaren forma horrek (H250 eta H261) gas sukoiak ere askatzen dituzenez urarekin kontaktuan, uste da propietate piroforikoen saiakuntza ez dela beharrezkoa, urarekin kontaktuan dagoen sukoitasun-saiakuntzak estaliko bailuke.

Horrekin guztiarekin, dagozkion saiakuntza hauek izango lirateke (**ikus gida honetako 9.4.3. atala**):

- Solidoen sukoitasuna.

2 metodo hauetako edozeinen arabera (baliokideak dira):

- A.10 metodoa. 440/2008 (EE) Erregelamenduaren sukoitasuna (solidoak).
- N1 proba (Nazio Batuak). Errekuntzan erraz sartzen diren substantzietarako proba-metodoa.

- Sukoitasona urarekin kontaktuan.

2 metodo hauetako edozeinen arabera (baliokideak dira):

- A.12 metodoa. 440/2008 Erregelamenduaren (EE) sukoitasuna (urarekin kontaktuan).
- N5 proba (Nazio Batuak). Urarekin kontaktuan gas sukoiak askatzen dituzten substantzietarako proba-metodoa.

Azkenik, azterketa- eta erabaki-prozesu horren ondoren, honako errekerimendu hau idatzi zen, dokumentu honetako eranskin honetan oinarrituta: *4. eranskina. Hondakinak sailkatzeko informazio espezifikoa.*

Behean, enpresari bidalitako informazio espezifikoaren errekerimendua sartzen da, aldez aurreko informazio-analisiaren ondoren, eta bertan eskatzen dira aipatutako bi saiakuntzak:

IZENA

ENPRESA

HELBIDEA

**HONDAKINAK SAILKATZEKO INFORMAZIO ESPEZIFIKOAREN ERREKERIMENDUA:  
XXXX HONDAKIN-EKOIZLEAK EGIN BEHARREKO SAIKUNTZEI (HP) BURUZ  
ALUMINIOZKO ZEPEN/APARREN ARRISKUGARRITASUNIK EZA JUSTIFIKATZEKO**

Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 (EB) Erregelamenduak, hondakinei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina ordeztu duenak eta hainbat zuzentarau indargabetzen dituenak, aldaketa garrantzitsuak sartu zituen hondakinen sailkapenean.

Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakia aplikatuz (erabaki horrek aldatu zuen hondakin-zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauari jarraikiz, ispilu-kodea duten hondakinen arriskugarritasuna zehazteko oinarritzat hartu behar da hondakinean dauden substantzien kontzentrazioa eta 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskinean ezarritako mugak (1357/2014 (EB) Erregelamenduak aldatutako idazketan). Halakorik ezean, arriskugarritasun-ezaugarriak ebaluatzeko, saiakuntza bat egin behar da 440/2008 (EE) Erregelamenduaren edo nazioartean aitortutako beste gidalerro eta saiakuntza-metodo batzuen arabera.

2018ko otsailaren 13an, legeria hoRRek ezarritako betebeharren esparruan, XXXXXXXXXk Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Organoaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari eskatu zion jakinaraztea "zein saiakuntza egin behar zituen aluminiozko zepak/aparrak ez-arriskutsuak direla justifikatzeko. Aluminiozko zepa/apar horiek lehengaia urtzeko prozesuan sortzen dira (aluminio-lingotea), 555º-tik gora labearen barruan, eta bitsadera bidez kentzen dira isurketaren goialdetik".

Gure ustez, XXXXXXXX hondakin-ekoizleak erreferentzia egiten dion korrontea EHZ honi dagokiona da:

Arrisku-mota eta -kategorien kodeak	Arrisku-argibidearen kodeak
Flam. Gas 1	H220
Flam. Gas 2	H221
Aerosol 1	H222
Aerosol 2	H223
Flam. Liq. 1	H224
Flam. Liq. 2	H225
Flam. Liq. 3	H226
Flam. Sol. 1	H228
Flam. Sol. 2	
Self-React. CD	H242
Self-React. EF	
Org. Perox. CD	
Org. Perox. EF	
Pyr. Liq. 1	H250
Pyr. Sol. 1	
Self-Heat 1	H251
Self-heat 2	H252
Water-React. 1	H260
Water React. 2 / 3	H261

- 03 15\* Apar sukoiak edo urarekin kontaktuan gas sukoiak kantitate arriskutsuetan isurtzen dituztenak.

Zuzendaritza honek EAEn identifikatutako ispilu-korrante bakoitzari eragin diezaioketen HPekin lotuta egindako lanean ezartzen da –korrante horren eta hondakin horri buruz dauden erregistro-espedienteen ezagutzatik abiatuta– hondakina arriskutsu gisa sailka daitekeela, ezaugarri hauek direla-eta: HP3 Sukoia eta HP12 Toxikotasun akutuko gas bat askatzea.

Arriskugarritasun-ezaugarri hau esleitu behar zaio hondakin bati baldin eta substantzia bat edo gehiago baditu 1272/2008/EE Erregelamenduaren sailkapeneko kode hauekin:

Aparren eduki tipikoak adierazten du hondakin horiek halako substantziak dituztela edo eduki ditzaketela, ezaugarri erreaktiboak dituztenak urarekin kontaktuan (H261) eta sukoiatasun-ezaugarriak dituztenak solidoetan (H228).

Beraz, HP3 eta HP12 ezaugarriak kontsultaren xede den hondakinari esleitzea bidezkoa den edo ez zehazteko, saiakuntza hauek egin beharko lirateke:

- Solidoen sukoiatasun-saiakuntza.
- Sukoiatasun-saiakuntza urarekin kontaktuan.

Behean, saiakuntza-metodoei<sup>123</sup> eta laginak hartzeari buruzko eskakizunak deskribatzen dira.

## LAGINAK HARTZEA

Laginak erakunde independente eta gaitu batek hartu beharko ditu, kasu bakoitzerako diseinatutako laginketa-plan baten arabera, **ahal dela**<sup>124</sup> UNE-EN ISO/IEC 17020ren arabera hondakinen esparruan akreditatutako ikuskapen-erakundeek, beren akreditazio-irismenean **UNE-EN 14899:2007** arauaren eskakizunak esplizituki betez (Hondakinen karakterizazioa. Hondakinen laginak hartzea. Laginketa-plan bat prestatzeko eta aplikatzeko eskema).

Lagin-hartzearen adierazgarritasuna egiaztatzen duen txosten bat aurkeztu beharko da, erakunde independente batek sinatua, UNE-EN 14899:2007 arauaren arabera (Hondakinen Karakterizazioa. Hondakinen laginketa. Laginketa-plan bat prestatzeko eta aplikatzeko eskema) eta UNE-CEN/TR 15310 jarraibide teknikoaren bildumaren arabera (1-5 zatiak):2008 IN (Hondakinen Karakterizazioa. Hondakinen laginketa):

- zatia: Laginketa-irizpideak hainbat baldintzatan hautatzeko eta aplikatzeko orientazioa.
- zatia: Laginketa-teknikei buruzko orientazioa.
- zatia: Landako azpilaginketa-prozedurei buruzko orientazioa.
- zatia: Laginak enbalatu, biltegiratu, kontserbatu, garraiatu eta entregatzeko prozedurei buruzko orientazioa ematea.
- zatia: Laginketa-plana definitzeko prozesuari buruzko orientazioa.

## SAIAKUNTZA-METODOAK

Laborategi independenteek egindako saiakuntza hauen emaitzak aurkeztu beharko dira. Beste erreferentziako arau batzuetan oinarritutako saiakuntzak planteatzen badira, komeniko litzateke ingurumen-organo honi aplikagarritasuna kontsultatzea beren baliozkotasuna ziurtatzeko.

- Solidoen sukoitasun-saiakuntza, bi metodo hauetako edozeinen arabera (baliokideak dira):
  - A.10 metodoa. 440/2008 (EE) Erregelamenduaren sukoitasuna (solidoak).
  - N1 proba (Nazio Batuak<sup>125</sup>). Errekuntzan erraz sartzen diren substantzietarako proba-metodoa.
- Sukoitasun-saiakuntza urarekin kontaktuan: bi metodo hauetako edozein erabiliz (baliokideak dira):
  - A.12 metodoa. 440/2008 Erregelamenduaren (EE) sukoitasuna (urarekin kontaktuan).

<sup>123</sup> Hondakinak sailkatzeko adierazitako saiakuntzei dagokienez, 1357/2014 Erregelamenduak 440/2008 Erregelamendura (EE) bidaltzen ditu, ENBren oharretara edo nazioartean onartuta egon daitezkeen gidalerroetara edo saiakuntza-metodoetara.

<sup>124</sup> 2022ko abenduaren 31ra arte gomendagarria izango da; data horretatik aurrera, nahitaezkoa.

<sup>125</sup> Salgai arriskutsuen garraioari buruzko gomendioak: proben eta irizpideen eskuliburua. Nazio Batuak. New York eta Geneva, 2009.

- N5 proba (Nazio Batuak). Urarekin kontaktuan gas sukoiak askatzen dituzten substantzietarako proba-metodoa.

### Saiakuntzen txostenen edukia

Beharrezkotzat jotzen da laborategien txostenetan saiakuntzak arauaren arabera egiten ote diren baloratzeko gutxieneko edukia izatea. 440/2008 (EE) Erregelamenduak, saiakuntza-metodoak deskribatzean, emaitzen txostenek jaso beharreko edukia jasotzen du. Era berean, OECD arauak ere txostenen gutxieneko edukia zehazten dute, eta, oro har, erreferentzia gisa erabilitako edozein arauk gutxieneko eduki hori azalduko du. Hortaz, kasu bakoitzean erreferentziatzko arauan eskatzen den informazioa jaso beharko da txostenetan.

Eskatutako informazioa jasotakoan, Ingurumen Organo honek eskuragarri dauden datuak ebaluatuko ditu eta hondakina sailkatuko du.

**Eskatutako informaziorik ematen ez bada, ulertuko da ez dagoela justifikaziorik hondakinei ispilu-kode ez-arristsuak esleitzeko; beraz, ispilu kode arriskutsuarekin kodetu beharko dira, eta hondakin arriskutsu gisa kudeatu beharko dira.**

Errekerimenduaren ondoren, Batzordearen 2008ko maiatzaren 30eko 440/2008 Erregelamenduaren arabera eskatutako solidoetako sukoitasun-saiakuntzaren emaitza jaso zuen hondakinaren ekoizleak. Sukoitasonaren saiakuntza solidoetan, A.10. metodoa.

### **EMAITZA HORREK, ORDEA, EZ ZUEN BARNE HARTZEN SUKOITASUN-SAIKUNTZA URAREKIN KONTAKTUAN.**

Txostenak, laginak hartzeko gainerako baldintzak, saiakuntza-metodoak eta saiakuntzen txosteneko edukia betetzeaz gain (kasu honetan, enpresak laginak hartzeko barne-prozedura erantsi zuen), emaitzen interpretazio hau zekarren solidoetan sukoitasuna neurtzeko saiakuntzarako:

**HP<sub>3</sub> SUKOIA**ren ezaugarria ebaluatu da, alde batetik, solidoetako sukoitasun-saiakuntzaren bidez. Saiatutako laginaren esplorazio-saiakuntzaren emaitzek erakusten dute ez dela errekuntzarik ematen, garrarekin nahiz gabe. Saiakuntza-metodoaren jarraibideen arabera, eta esplorazio-saiakuntzari dagokionez, "Sustantzia ez bada piztu edo ez badu hedatzen errekuntzaugar bidez edo sugarrik gabe metxaren 200 mm-an zehar, orduan substantzia ez da oso sukoiatza jo behar, eta ez da beharrezkoa probekin jarraitzea". Irizpide hori kontuan hartuta, egindako saiakuntzari dagokionez hondakina **EZ OSO SUKOITZAT** jotzen da.



### 3. ZEREGINA SUBSTANTZIA ARRISKUTSUEN KONTZENTRAZIOA KONTUAN HARTZEA

Zeregin hau ez da beharrezkoa kasu honetan, sailkapena substantzien kontzentrazioarekiko independentea baita, HP<sub>3</sub> balizko arriskugarritasun-ezaugarriak dituelako.

### 4. ZEREGINA. SAIKUNTZEN TXOSTENAK AZTERTZEA

Saiakuntzen txostenak eta goiko koadroko emaitzen interpretazioa aztertu ondoren, egiaztatu zen sukoitasun-saiakuntza urarekin kontaktuan beharrezkoa zela eta hondakina ez-sukoi gisa sailka zitekeela, baina ezin zela guztiz baztertu HP<sub>3</sub> edo HP<sub>12</sub>, eta, beraz, ez-arriskutsuaren ezaugarria.

### 5. ZEREGINA. EKOIZLEARI JAKINARAZTEA ETA HURRENGO URRATSAK

4. zereginean oinarrituta, hondakinaren ekoizleari bidali zitzaion bere hondakinaren sailkapenari buruzko ebazpena, honetan oinarrituta: 7. *Eranskina: Hondakin bat sailkatzeko/desklasifikatzeko proben balorazio-txostenaren eredu*a, ekoizpen-enpresari bidali beharrekoa.

## B KASUA. HONDAKIN-URAK ARAZTEAREN ONDORIOZKO LOHIEN HONDAKINAK

Errekerimendua idazten den testuingurua:

Kasu honetan, erreferentzia egiten zaio hondakin arriskutsu gisa kudeatzen ari ziren eta metalak eta hidrokarburoak zituzten hondakin-urak araztearen ondoriozko lohi batzuk desklasifikatzeko aukerari.

Hondakina EHZ honi zegokion: 19 08 14 Industria-uren beste tratamendu batzuetako lohiak

Hau izan zen analisi-prozesua:

### 1. ZEREGINA. INFORMAZIOAREN ALDEZ AURREKO ESKAERA

Ingurumen-organoak, 3. *eranskinaren* ereduaren arabera, hondakina sailkatzeko informazio orokorra eskatu zuen.

Gainera, Gida honetako 2B *eranskinean* aztertu zen zein ziren, hasiera batean, hondakin horren HP potentzialak eta substantzia arriskutsu posiblek.

EHZ kodea		
19 08 14. Industria-uren beste tratamendu batzuetako lohiak		
Eragindako sektoreak	-	
Kontuan hartutako HPak	Erabakia	Arrazioa
HP5	Kontuz (ez dakigu zein den konposizioa, oso aldakorra ekoizle bakoitzaren arabera)	Nolanahi ere, posibletzat jotzen da olio ezezagunak egotea
HP7		
HP10		
HP14		TPH + metalak (metalaren industriaren kasuan)
Ekintza-proposamena	TPH, HAP karakterizatzea eta metalgintzaren kasuan metalak	

110. taula: Industria-urak tratatzeko lohien arriskugarritasun-ezaugarri posibleak.

Enpresak alde aurreko prozesuak azaldu zituen, eta prozesu sortzailean erabilitako olioien segurtasun-datuak fitzak aurkeztu zituen, narritadura-/korrosio- eta ekotoxikotasun-saiakuntzekin eta parametro hauen analitika batekin batera:

- pH-a
- Materia lehorra
- Metal astunak
- VI kromoa
- Hidrokarburo totalak (eta frakzioak)
- Hidrokarburo polizikliko aromatikoak (HAP)
- Hidrokarburo monoizikliko aromatikoak (BTEX)

Horietatik, kontzentrazio adierazgarriak<sup>126</sup> honako hauek zituzten: kromoak, kobreak, nikelak eta TPHeak.

## 2. ZEREGINA: INFORMAZIO-ANALISIA ETA INFORMAZIO ESPEZIFIKOAREN ESKAERA

Informazioa aztertu ondoren, **4. eranskinaren bidez (Informazio espezifikoa eskatzeko eredu)** eskatu ziren hondakinaren HP<sub>14</sub> saiakuntzak, *Gida honetako* HP<sub>14</sub> saiakuntzen 9.4.14. atalaren arabera.

<sup>126</sup> Kontzentrazio adierazgarritzat hartzen dira pisuaren % 0,1 berdintzen edo gaintzen dutenak. Hori horrela da % 0,1 hori delako 1357/2014 Erregelamenduan ezarritako ebakidura-balioa eta muga baxuena. Kontzentrazio horren azpitik dagoen edozein substantzia gutxiets daiteke.

### 3. ZEREGINA: SUBSTANTZIA ARRISKUTSUEN KONTZENTRAZIOA KONTUAN HARTZEA

Aurreko atalean jasotako informazioa aztertu ondoren, eta substantzien kontzentrazioa materia lehorraren mg/kg-tan adierazten zenez, substantzia arriskutsuen kontzentrazioa zuzendu zen 7.4. atalaren arabera: *Emaitza analitikoetan islatutako substantzia arriskutsuen kontzentrazioen interpretazioa.*

Horretarako, enpresak emandako hondakinaren materia lehorraren ehunekoaren datua ere erabili zen, eta, horregatik, lehen bihurteta bat egin zen substantzia horiek jatorrizko hondakinean zuten kontzentrazioa kalkulatzeko.

Masa hezeko kontzentrazioa kalkulatzeko (substantziak hondakinean duen kontzentrazio erreala), hondakinaren materia lehorraren ehunekoa biderkatu zen substantziaren masa lehorraren kontzentrazioarekin, eta 100ez zatitu. Proposatutako kasuan, hondakinaren masa lehorraren % 89 adierazten da (% 11ko hezetasuna).

Substantzia	Kontzentrazioa (MS)	Kontzentrazio erreala <sup>127</sup>
Kromoa	1.600 mg/kg (MS)	1.424 mg/kg
Kobrea	1.100 mg/kg (MS)	979 mg/kg
Nikela	950 mg/kg (MS)	845,5 mg/kg
TPH C10-C40	26.000 mg/kg (MS)	23.140 mg/kg

111. taula: Kutsatzaileen kontzentrazioak pisu lehorretik pisu hezera bihurtzea.

Ondoren, substantzia adierazgarrien arriskugarritasuna eta haien mugak identifikatu ziren (metalak eta hidrokarburoak). Horretarako, atal hauetan jasotako irizpideei jarraitu zitzaizkien: 8.1. kasu berezia. *Metaldun hondakinak* eta 8. 2. kasu berezia. *Hidrokarburoekin kutsatutako hondakinak.*

Identifikatutako substantzia adierazgarrien arriskugarritasuna zehaztu zen, bai eta 1357/2014 Erregelamenduan H esaldi bakoitzerako ezarritako mugak ere.

#### **Kromoa:**

Kromo kloruroa (harmonizatua)	Kromoa (Erregistro-esped.)
H315/319: muga % 20	Saikatu gabea
H335: muga % 20	
H302: muga % 25	

112. taula: Hondakinaren kromo-arriskuaren argibideko kodeak.

Kromoaren % 0,142ko kontzentrazioarekin, substantzia horrek eragindako arriskugarritasuna baztertu zen.

<sup>127</sup> Masa hezearen kontzentrazioa (mg/kg) = [masa lehorraren kontzentrazioa (mg/kg) \* materia lehorra (%)] / 100

**Kobrea:**

Kobre oxidoa (harmonizatua)	Dikobre oxidoa (harmonizatua)	Kobre kloruroa (Erregistro-esped.)
H400: muga % 25	H302: muga % 25	H302: muga % 25
H410: muga % 0,25	H318: muga % 10	H312: muga % 55
	H332: muga % 22,5	H318: muga % 10
	H400: muga % 25	H315: muga % 20
	H410: muga % 0,25	H400: muga % 25
		H411: muga % 2,5 <sup>128</sup>

113. taula: Hondakinaren kobre-arriskuaren argibideko kodeak.

Kontzentrazio-muga % 0,25ekoa izango litzateke, bai oxidorako bai kobre kloruroarentzat. Kobreakon kontzentrazioa zuzenduz (% 0,0978) bere oxido-formara, kontzentrazioa % 0,248koa izango litzateke. Kloruro-forman, kontzentrazioa % 0,233koa izango litzateke. Nolanahi ere, % 0,25eko mugatik oso gertu, baina muga horretara iritsi gabe; horregatik, hasiera batean baztertuko da substantzia horrek eragindako arriskugarritasuna, baina enpresari analitika berriak eskatuko zaizkio urtebeteko epean, ziurgabetasun-bitartean barruan dagoelako eta, beraz, balio erabakigarririk ez duelako.

**Nikela:**

Nikela (> 1 mm) (harmonizatua)	Nikela (< 1 mm) (harmonizatua)	Nikel oxidoa (harmonizatua)
H372: muga % 1	H372: muga % 1	H317: muga % 10
H351: muga % 1	H351: muga % 1	H372: muga % 1
H317: muga % 10	H317: muga % 10	H413: muga % 25
	H412: muga % 25	H350: muga % 0,1

114. taula: Hondakinaren kobre-arriskuaren argibideko kodeak.

Funtsean, nikelak (% 0,0845) ez luke kontzentrazio nabarmenik izango. Hala ere, oxido-forman (% 0,119) kontzentrazioa nahikoa izango litzateke hondakina sailkatzeko, H350 aplikatu beharko litzatekeelako (muga: % 0,1). Kasu horretan, gainera, aldi baterako aldakortasuna egiaztatu beharko litzateke, edo, gutxienez, nikelaren determinazioarekin lotutako ziurgabetasun analitikoak kontuan hartu beharko litzateke.

<sup>128</sup> Kontuan izan fabrikatzaile horrek, sailkapen harmonizatuaren kontra, sailkapen txikiagoa proposatzen duela (H411 eta ez H410). Ez da inola ere onargarria harmonizatua baino beheragoko sailkapena.

**TPH (HAPekin batera ebaluatzen dira)**

Dokumentu honetan adierazitakoaren arabera, TPHei sailkapen konbentzional hau egokituko litzaieke:

Substantzia-taldea	Sailkapena
Hidrokarburo totalak <sup>129</sup> TPH C <sub>10</sub> -C <sub>40</sub> -ren batura)	HP7 (HAPak % 0,1 baino gehiago badira bakarrik):H350: % 0,1 HP14 H411: muga % 2,5. 1B kartz. HP10 H361: muga % 3 HP5: H373: muga % 10

115. taula: Hondakinaren hidrokarburo-arriskuaren argibideko kodeak.

% 0,23ko kontzentrazioarekin, TPHek HP7 ekar ditzakete. Kartzinogenoa. Hala ere, hidrokarburo aromatiko poliziklikoen edukia ez zen horretarako mugara iristen (% 0,1eko muga 16 HAPen batura gisa). Kontzentrazioa HP14rako mugatik gertu dago (% 2,5 H411 delako), baina ez da iristen. Dena den, kontuan hartu behar da ebakidura-balioa gainditzen duelako, ezaugarri horri gainditzen duten gainerako substantziekin konbinatuta lagun gainditu diezaiokeelako.

HP hori eragin dezakeen substantzia posibleak identifikatu ziren:

Aurrekoa ikusita, ondorioztatzen da metalek HP14 Ekotoxikotasuna eragin dezaketela (kobre oxidoak edo kloruroak), eta HP7. Kartzinogenoa (nikel oxidoa). TPHek, H411 izateagatik, HP14 eragin dezakete (ikus hondakinaren fitxa espezifikoaren 2B eranskinean).

Dena den, enpresak espeziazio-azterketa bat aurkeztu zuen, nikela metal-forman zegoela justifikatzeko, ez oxido-forman. Horrek esan nahi zuen HP7rako muga ez zela % 0,1ekoa izango (nikel oxidoari aplikatu dakiokeena H350 izateagatik), % 1ekoa baizik (nikelari aplikatu dakiokeena H351 izateagatik). Gorabehera hori kontuan hartuta, nikel-kontzentrazioa – hezetasuna zuzenduta– % 0,845ekoa zenez, HP7 baztertu zen.

Lehen fase batean formula hauen bidez ebaluatu zen arriskugarritasuna:

HP14ri dagokionez, hezetasunak zuzendutako kobre-kontzentrazioak (979 mg/kg) kobre oxidoaren % 0,248ko kontzentrazioa ekarriko luke (H400 eta H410). Gainera, hondakinak TPHei % 0,23 du (H411). 2017/997 Erregelamenduaren formulak aplikatuta, emaitza da substantzia ekotoxikoen kontzentrazioak **muga gainditzen duela**:

$$100 \times \sum c (H410) + 10 \times \sum c (H411) + \sum c (H412) \geq \% 25$$

Hau da,

<sup>129</sup> Sailkapen honek esan nahi du hondakinak arriskutsutzat jotzen direla "HP7 Kartzinogeno" gisa sailkatzeagatik, TPHei (H350) kontzentrazioa  $\geq$  % 0,1 denean, salbu eta 16 HAPen baturaren kontzentrazioa < % 0,1 bada (TPHei izaera kantzerigenoa substantzia horietatik baitator).

$$100 \times c \text{ CuO}_2 + 10 \times c \text{ TPH} \geq \% 25$$

$$100 \times \% 0,24 + 10 \times \% 0,23 \geq 25 \%$$

$$\% 24,8 + \% 2,314 \geq \% 25$$

$$\% 27,11 \geq \% 25$$

Horrela, kalkulu-metodoa aplikatuz, **hondakina HP14. Ekotoxikoa izango litzateke, saiakuntzek aurkakoa frogatu ahal izateari kalterik egin gabe (saiakuntzen emaitzek lehentasuna dute).**

#### 4. ZEREGINA. SAIKUNTZEN TXOSTENAK AZTERTZEA

9.4.14. atalean zehazten den bezala, ingurune urtarrean HP14 ebaluatzeko egin beharreko saiakuntzak *Daphnia magna* eta algetarako toxikotasun akutuko probak dira. Era berean, bi organismoetako uretako ekotoxikotasun kronikoa ebaluatzeko eskatzen da, eta lehorreko ekotoxikotasunerako gutxienez saiakuntza bat egin beharko da landareetan, eta beste bat aukeran bakterio edo zizareen saiakuntzaren artean aurreko metodoetako baten arabera.

Enpresak jada eman zituen ekotoxikotasunari buruzko azterketa eskuragarriak, baina horietako bat fotobakterioarekin egin zen, eta, beraz, ez zen baliozkoa. Bigarren saiakuntza *Daphnia magna*arekin egin zen, baina txostenak ez zuen L(E)C50aren emaitza baino informazio gehiago ematen. Baieztatu zen erabilitako metodoa OECD 202 izan zela, baina ez zion erantzuten arau horretan bertan eskatutako gutxieneko edukiari. Ezinezkoa zen zehaztea saiakuntza behar bezala egin ote zen.

Era berean, enpresak ez zituen kontuan hartu ekotoxikotasun kronikoaren saiakuntzak ez ingurune urtarrean eta ez lehorrean ere.

#### 5. ZEREGINA. EKOIZLEARI JAKINARAZTEA ETA HURRENGO URRATSAK


Zeuden probak kontuan hartuta eta kalkulu-metodoa aplikatuz, hondakina HP14 hondakin arriskutsu gisa (HP14. Ekotoxikoa) sailkatu behar zen, enpresak aurkeztutako saiakuntzei buruzko akatsak zuzentzen ez bazituen. Horren berri eman zitzaion enpresari 7. Eranskinaren arabera: *Hondakin bat sailkatzeko/desklasifikatzeko proben balorazio-txostenaren eredu, ekoizpen-enpresari bidali beharrekoa.*

## 6. eranskina. SUBSTANTZIEN ARRISKUGARRITASUN-EZAUGARRI POTENTZIALAK IDENTIFIKATZEKO JARRAIBIDEAK.

